



Gernika-Lumoko *toponímia*

gernika-lumoko
euskera zerbitzua



Gernika-Lumoko
toponīmīa

Kredituak:

Egilea: Iratxe Lasa Arana eta Mikel Gorrotxategi Nieto,
Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin
eta Euskaltzaindiarekin elkarlanean.

Argitaratzailea: Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saila

Maketa eta Inprimaketa: Gráficas Amorebieta.

2011ko edizioa.

GERNIKA-LUMOKO UDALAREN HITZAURREA

Mundu osoan barrena da ezaguna Gernika. 1937. urteko gertaera tamalgarri hura sufritzearen ondorioz, beste bazter batzuetako herritarrek egin behar ez denaren eredutzat gaituzte. XX. mendeko gerra eta diru goseak mapan utzi gaitu puntu beltz baten azpian, Hiroshima, Afganistan, Sierra Leona edo Amazoniarekin batera.

Gutxi dira, ordea, Gernikak Lumo duela lagun dakitenak. 1882. urtean elizatea eta hiri-bildua batuta, 1983.ean izendatu zuten gure herria orain ezagutzen dugun moduan: Gernika-Lumo. Ez gara urrutira joan behar izena adierazgarri egiten ez zaion norbait topatzeko. Ebro eta Aturri artean, Lanestosa eta Cortes tartean, hamaikatxo dira Lumo tontorrean eliza duen gain bat besterik ez dela uste dutenak.

Eta gernikarron artean, Lumo zer den jakin bai, baina ahotan etengabe darabilgun beste hainbat izenen jatorria zein ote den galdetzen al diogu geure buruari? Sigerta eta Zearetza zer diren ba al dakigu?

Esku artean duzun liburu honek, munduan ere du den Gernika handi horren atzean, herritar xumeek, 1937. urtea baino lehenagoko gizaldietan eraikitako izen txiki baina aberatsez osatutako herri bat ezkutatzen dela erakutsiko dizu, leku bakoitzaren kokapena, azalpena eta argipen guztiekin.

Eskerrik asko gure ondarea ezagutzen eta zabaltzen aritu zaretenoi, horretan lagundu duzuenoi eta etorkizunean mantentzeko gure hizkuntzaren lekukoak erabiliko dituztenei.

Idoia Fernández Antia
Euskara Zinegotzi ohia

Esperanza Uriarte Erdaide
Euskara Zinegotzia

Lan honetako faseren batean lankide izan direnei ESKERRAK:
- Deustuko Unibertsitateko Deiker Institutuari
- Busturialdean Euskaraz Bizi elkarteko kideei.

EUSKALTZAINDIAREN HITZAURREA

Herri bateko historian barneratu nahi izaten dugunean, ohiko zenbait gai etortzen zaizkigu burura, hala nola, sorrera urtea, eraikitze eta populatze prozesua, biztanleriaren, sektore ekonomikoen eta bizimoduaren bilakaera, jasan dituen zailtasunak, izurriteak, gerrak eta bestelako gorabeherak, aztarnategiak, arte eta kultura ondarea, folklorea, tradizioak, pertsonaia ospetsuak, etab. Gutxitan oroitzen gara, ordea, ondare historikoaren alderdi garrantzitsu batez, mendeetan zehar herri horretan sortu, erabili eta oraindik ere erabiltzen diren izenez, alegia.

Izan ere, historian zehar errotu diren izenak, toponimoak, izana duen herriaren izenak dira, herriaren izanaz mintzo zaizkigunak. Hortaz, Gernika-Lumoko toponimo historikoak, horietako asko galduak edo ahantziak, eta egun bizirik dirautenak gernikarren eta lumotarren izanaren eta bere hizkeraren lekukotasun adierazgarriak dira.

Biziaren bilakaera, hirigintzaren hazkundera eta paisaia geografikoaren aldaketa sakona elkarrekin lotuak daude eta eragin zuzena dute mendeetan zehar iraun duten izen ugariren galtze eta desitxuratze prozesuekin. Horregatik, ondare hori jaso eta errekuperatu ez ezik, gaur egun erabiltzeko modu zuzenean idatzirik ematea ere nahitaezkoztat jotzen da euskararen errekupezazio eta normalizazio prozesuan.

Hori da, hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen helburu garrantzitsuenetako bat, eta xede hori bera erakutsi zuen Gernika-Lumoko udalak bertako ondare historikoaren atal hau lantzeko hartu zuen erabakiarekin. Hortik aurrera, erraza izan zen bi erakundeen artean lan hori burutzeko hitzarmena bideratu eta sinatzea. Hitzarmen haren ondorio eta emaitza dugu liburu honetan azaltzen zaigun lan ederra.

Esker ona agertu nahi diogu lehenik eta behin udalari, izan duen interes eta sentsibilitateagatik. Eskerrak iratxe Lasa egileari, zailtasunak zailtasun, azkenean lortu ahal izan delako bere jakituria eta esperientzia islatzen burutu duen lan honetan. Ezin aipatu gabe utzi, bi erakundeen ordezkari gisa, lan honen prozesua hurbiletik segitzen eta egilea bultzatu, animatu eta laguntzen aritu diren Bittor Zarrabeitia Gernika-Lumoko euskara teknikaria eta Mikel Gorrotxategi, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkaria. Bihotz-bihotzeko oroitzapena, azkenik, liburu hau bere eskuetan izateko puntuan zegoenean gure artetik joan zitzaigun Jose Antonio Arana Martixa euskatzain gernikarrari.

Andres Iñigo
Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeburua

AURKIBIDEA

- SARRERA.....	7
- TOPONIMOEN IDAZKERA ARAUTZEKO ZENBAIT OHAR	9
Kontsonante galerak eta kontsonante txandaketak.....	9
Bokalismoak eta yod epentetikoa.....	9
Amaierako –e paragogikoa	9
Zenbait hizkien erabileraz: ñ, ll, s/z, h, x	10
Artikulua	11
Toponimo konposatuak loturik, gidoirik gabe	12
Euskalkiaren sena jagon.....	12
- LEKU-IZENEN FITXAK NOLA INTERPRETATU.....	13
- GERNIKA-LUMOKO TOPONIMIAREN EZAUGARRIAK	15
Udalerriaren izena: Gernika-Lumo	15
Auzo-izenak (biztanle-entitate ofizialak.....	18
Auzo txikiagoak.....	21
Baserri-izenak	22
Oronimia: mendi eta baso inguruko izenak.....	26
Kale-izendegia.....	26
toponimia-mapa zuzendu beharrekoak	29
- LEKU-IZENAK BANAN-BANAN.....	31
- ITURRIAK.....	155

SARRERA

Hemen aurkezten den liburuxka hau Gernika-Lumoko Udalak, Euskara Zerbitzuaren ekimenez, herriko toponimia biltzeko Euskaltzaindiarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioa da. Ikerketa apal baten ostean, Gernika-Lumoko leku-izen nagusienak bildu dira lan honetan eta herritarren eskura ipini, herritarrena euren den ondarea da eta.

Gutzira, gutxi gorabehera, Gernika-Lumoko 600 lekuren izenak jaso dira. Edozelan ere, leku asko, hainbat baserri eta etxe berbarako, desagertu egin dira aspaldi, hirigintza-aldaketak direla-eta edota beste arrazoi batzuegatik; 1936ko bonbardaketak, esate baterako, hainbat eraikin desagertzea ekarri zuen. Izen horiek herritarren memoriatik desagertzeko prozesua geldiaraztea izan da, hain zuzen ere, ikerketa honi ekiteko arrazoi nagusia.

Lanaren emaitzak ahalik eta aberatsenak izan daitezten, Gernika-Lumoko leku-izenen gaineko informazioa eta dokumentazioa bildu da; besteak beste, Deustuko Unibertsitateko Deiker Institutuak egin zuen bilketa oinarri, 2005ean udalerriko euskalgintzako talde batek beharra gainbegiratu zuen, herritarrek emandakoa berriro herritarren iritziarekin alderatzeko; horrela, oraingo honetan zenbait dokumentu zaharretan bildutakoa zerrendan gehitu da. Izan ere, Udalaren helburua Gernika-Lumoko bizilagunek herriko leku-izenak hobeto ezagutzeaz gain, beroriek behar lez zaintzeko bidea zabaltzea izan da.

Baina zer da toponimia eta zertarako ikertu?

Bi dira toponimiak dituen balio nagusiak. Batetik, **balio linguistiko erabatekoa** du toponimiak; eta bestetik, **balio historikoa**. Balio horiek ondare parebako bihurtzen dute toponimia, jagon eta gorde beharreko ondarea. Nazio Batuek ere toponimia “gizaki guztion kultur ondare material gabea” izendatu zuten New Yorken 2007an egindako Geografia Izenen Normalizazioari buruzko Nazio Batuen Konferentzian; administrazio publikoaren beharra da orduan, berori jagon eta gordetzeko bideak zabaltzea. Hala ere, erantzukizun handiena herritarrok dugu; izan ere, toponimia mendeetan ahoz transmititu da belaunaldiz belaunaldi, hori da-eta toponimia gordetzeko biderik naturalena, hizkuntza eta kultura ondarearen atala delako.

Euskararen historia latza da, eta zoritxarrez, gutxi dira euskarak historian idatziz utzi dizkigun altxorrak, batez ere euskara ez delako administrazioan erabili izan. Toponimian, berriz, historia horren eta bilakaera horren isla ugari topatu ahal ditugu, eta ondorioz lekuan lekuko euskararen aztarnategi ezin hobea da.

Toponimiak, besteak beste, garai batean erabiltzen zen lexikoaren berri ematen digu, ahoskerarena eta izenak sortzeko euskaldunok, eta zehatzago gernikar eta lumotarrek, erabiltzen zituzten baliabideen berri ematen digu; eta hori Gernika-Lumoko euskararen-tzako balio handiko altxorra da.

Toponimoak leku-izenak dira (grekoz *topos*=leku + *nimia*=izen). Gure inguruko edozein lekuk du izena Euskal Herrian: baserriek, errekek, soroek, belardiek, tontorrek, trokek, auzoek, mendi-maldek eta abarrek. Lekuei izena ematearen arrazoiak erabat praktikoa da, eguneroko bizimoduan eta inguruan erreferenteak behar ditugu eta, lekuen kokapen zehatzak jakitearren eta gure burua orientatzeko, hau da, behar praktikoa bati erantzuten dio toponimiak, edo erantzuten izan dio behintzat garai batean. Gaur egun, oster, teknologia berriek hainbat tresna sortu dituzte behar horretan laguntzeko, GPSak besteak beste; eta, beraz, horrek toponimia txikia desagertzeko arriskuan ipini du.

Edozelan ere, aldaketak ez dira berriak eta toponimia beti izan da inguruarekin batera aldatuz joan den elementu bizia. Horrela, leku berak urteetan izen bat baino gehiago hartu du zenbaitetan (**Azokakaleri**, esate baterako, garai batean **Frantseskale** ere esaten zioten), eta noiz edo noiz izena ere galdu egin du. Edozelan ere, gaur egungo herritarren bizimodua erabat aldatu da, azken mendeen bereziki, eta horrek toponimiari, erreferente txikien izenei, leku txikien eta bazterren toponimiari, garrantzia kendu dio; eta daborduko ez dute lehen izan zuten egitekoa, ez behintzat lehen izan zuten balio erreferentziala. Horrela, esan bezala, batzuk desagertu egin dira edota izen generikoak hartu dituzte. Azken batean, denek ez dute-eta balio bera izan, eta auzo-izenak garrantzi handiko izenak izan badira ere, ortuen edo lur-sailen izenak ez dira horrenbestekoak izan.

Baina, esan dugun lez, gure izenak eta gure hizkuntza elkarri estu-estu loturik daude eta desagertzea ez da beti jazoera natural baten ondorio izaten; euskararen egoera tamalgarriaren ondorioz desagertzen dira gure izenak, sarritan erdarazko izenek ordezkaturik. Gernika-Lumon esaterako, nahiz eta **Zearreta** –ahoz *Sigerta*- auzoa ezaguna izan eta *Sigerta* baserria erreferente nagusia ere bertan den, **Aguakorrie** erdal toponimoa nagusitu zen sasoi batean).

Esku artean duzun liburuxka honen helburua, adierazi bezala, desagertutako edo daigoneko erabiltzen ez diren toponimoak berreskuratzea izan da, eta nagusiki, bizirik diren lekuak eta leku-izenak zaintzea.

Esan bezala, toponimia mendeetan ahoz transmititu da belaunaldiz belaunaldi eta ahoz baino ez erabiltzeak izenak desitxuratzea ekarri du, bereziki idatziz eman gura izan denean. Honenbestez, toponimia hizkuntzaren atala denez gero, euskarak bizi duen normalizazio prozesuan parte hartu behar du. Horrela, bada, hizkuntza arruntaren eta beraren lexikoaren eta gramatikaren erabilera eta grafia arautzen dugun bezalaxe, toponimoen idazkera ere arautze prozesu bat izan behar du. Zeregin horretan arau-emaile dugu Euskaltzaindiko Onomastika batzordea, eta berori da oniritzia eman behar duena arlo honetan. Izan ere, ahoz erabiltzen ditugun izenak eta izen horien idazkeraren artean, sarritan, alde handia egoten da: *Barrantze* izenaz ezagutzen dugun Zalloko baserri eta errearen idatzizko forma zuzena, esate baterako, **Barrenetxe** da; edota, Gernika-Lumon hain ezaguna dugun *Sigerta* toponimoa, **Zearreta** dela jakiteko beharrezko lan linguistikoa egin behar da. Beste adibide bat dugu *Bideun* izenaz ezagutzen dugun baserriaren idatzizko izen osoa, **Bidaguren** hain zuzen ere. Izen arautua erabakitzeko, ez da dokumentazio zaharra soilik gogoan hartzen, oso gogoan hartzen da egungo ahoskera ere bai. Horrela, ahazko formen eta idatzizkoen artean formarik egokiena hautatzen da. Askotan, ahoz erabiltzen den formaren eta idatzizkoaren arteko alde handia izaten da, eta zein aldaketa onartu eta zein ez erabakitzea da hain zuzen ere arautze-lanaren egitekoa; horretarako, dokumentazioa jaso eta toponimoak erakusten dituen aldaketa fonetikoak-eta aztertu behar dira, hizkuntzaren aldaketa naturalak diren ala ez erabakitzeko.

Horrela, argi izan behar dugu **ahozko eta idatzizko euskararen artean dagoen alde** bezalakoxea dela toponimoen ahazko eta idatzizko erabilera, hizkuntzaren normalizazioaren ondorioa. Azken batean izenen idazkera egokia zein den esatea da toponimia arautzea, eta hori hizkuntzaren beraren idazkera arautzea bezain garrantzitsua da. Azken batean, gaztelaniaz ere Huelva idatzi behar dugu, eta ez *Güerba*, bertakoek erabiltzen duten lez.

TOPONIMOEN IDAZKERA ARAUTZEKO ZENBAIT OHAR

Euskaltzaindiak 2000. urtean *Euskera* aldizkarian argitaratu zuen *Toponimia txikia arautzeko irizpideak liburuxka*. Ordutik hona, gainera, Onomastika batzordea, parte hartu izan duen ikerketa lanetan hartutako eskarmentuari esker, tokian tokiko euskalki eta inguru ezberdinei dagozkien irizpideak garatuz joan da. Irizpideok toponimoak zelan idatzi behar diren zehazteko gertaeren zerrenda bat da.

Ondorengo lerroetan Gernika-Lumoko toponimoen idazkera zuzena hobeto ulertzeko zenbait hizkuntza ohar batu ditugu.

Kontsonante galerak eta kontsonante txandaketak

Ahozko euskaraz ohikoa da bokal artean dauden zenbait kontsonante ez ahoskatzea. “Egia da” esan beharrean, bertakoek *eixe da* esaten dute. Horixe da hain zuzen ere hainbat toponimoren amaierako –aga atzizkiarekin gertatzen dena. Mendebaldeko euskararen lurraldean oso normala da –aga amaieradun toponimoak amaierako –a soilaz ahoskatzea. Bokal arteko <g> ahoskatu ez eta –a ahoskatzen da ia sistematikoki: **Gañaga** (*Gañamendi*), **Amillaga** (*Amilla*), **Amunaga** (*Amona*) besteak beste. Fenomeno hau ahozko fenomeno da eta beraz idatziz forma osoa berreskuratzea da zuzenena. Beste atzizki batean ere galera bera topatzen dugu, -tegi atzizkian hain zuzen ere: **Epertegi** (*Eperti*)

Gauza bera gertatzen da <r> kontsonantearekin. Adibide garbia dugu **Bidaguren** toponimoa, ahaz *Bideun* esaten zaio eta; bokal arteko <g> eta <r> desagertzen direlarik.

Bokalismoak eta yod epentetikoa

Busturialdeko euskararen ezaugarria da bokal hiatoen artean soinu epentetikoa sortzea, bereziki berben amaierako bokala eta artikulua artean, esate baterako, *Merkurioit-turrix* edota *Erreterixeko subixe* ahoskatzen dira, edota *Maraixa* eta ez **Madariaga**.

Berba amaieran gainera, bestelako bokalismo batzuk ere topatzen ditugu, bokal itxierak batez ere: *Kurtzie* (**Kurtzea**), *Etxabie* (**Etxabea**), *Burgomasue* (**Burgobasoa**), *Abalizburue* (**Abalizburua**).

Bokalismo horiek guztiak bertako ahazko euskalkiaren erakusgarri dira, baina ezin dira idatzizko hizkuntzan erabili, ezta idatzizko toponimoetan ere.

Amaierako –e paragogikoa

Bizkaia mendebaldeko toponimian, kontsonantez eta kontsonante gehi artikuluz amaitzen diren leku-izenetan –e amaiera oso ohikoa da. Amaierako –e hori bokal paragogea da; hain zuzen ere, lekuzko kasuak deklinatzerakoan erantsitako bokal epentetikoaren oihartzuna. Gernika-Lumoko auzo izen ezaguna dugu horren adierazlerik argiena, **Arana** toponimoa hain zuzen (aran + -a artikulua); ahaz *Arane* esaten zaio.

Ohikoena da leku-izenak ahozko jardunean, berbetan, lekuzko deklinabidean erabiltzea (Araneko, Aranera, Aranetik bezalako formak erabiltzen dira, deklinabideak eragindako -e epentetikoa erabilita). Ondorioz, beste hizkuntza baten eraginpean euskara ahultzen joan den heinean, deklinabide sistema ahuldu egin da eta hiztunek ez zutenez hain ondo menperatzen, forma horiei deklinabide marka kendu eta forma nominatiboan *Arane* leku-izena dela pentsatuko zuten, hurrean, eta forma hori erabiltzen hasi ziren forma absolutuan.

Egia da, halere, guk -e paragogiko deitu dugun fenomeno honen barruan, paragogearekin zerikusirik ez duen beste fenomeno bat ere bildu dugula. Izan ere kontsonantez amaitu berbetan ez ezik, kontsonante gehi artikuluz amaitutako berbetan ere ageri da. Antolatutako, **Zabala** etxe izenari, Bizkaiko euskaldunek *Zabale* esaten diote, mendebaldean bereziki. Arana toponimoaren jazoera bera da Zabala leku-izenarena, deklinaturik honakoak ematen dituelako: *Zabalen* (baina Zabalean beharko luke), Zabaletik, Zabalera, Zabaleko eta abar. Aurreko adibidearen haritik har dezagun **Madurazarra** izena, lekuzko kasuetan deklinaturik honelaxe litzateke: Madurazarrera, Madurazarretik, Madurazarreko eta abar; inesiboan, “non” kasuan, ostera, Madurazarrean. Hau da, inesiboan izan ezik, gainerako kasuetan modu berean deklinatzen da. Baina gaur egun *Mausarre* esaten zaio eta inesiboan *Mausarren*, oker erabilita. Fenomeno honen erakusle argia da etxe-izen askotan ageri den *-ne* amaiera, izatez *-ena* genitiboaren atzizkia da eta: *Garratzane* (**Garra-tzena**).

Fenomenoa, Bizkaian behintzat, ez dirudi oso zaharra denik, ez behintzat toponimoen idatzizko forman aintzat hartzeko nahiko zaharra. Hori dela-eta Euskaltzaindiak momentuz, eta fenomeno hori hobeto ulertzeko eta kokatzeko bestelako datu historikorik izan arte, amaierako *-e* hori idatziz ez emateko erabakia hartu du.

Ikus aurrerago artikuluz esaten dena.

Zenbait hizkien erabileraz: ñ, ll, s/z, h, x

Toponimoak idazterakoan euskara arrunteko alfabetoko hizkiek eta alfabetoak ez dute erabilera berbera. Esate baterako <ñ> eta <ll> grafiak, euskara arautuan ez bezala, toponimian erabili daitezke, betiere hala ahoskatzen eta dokumentatzen direnean: **Gañaga** (ez *Gainaga*), **Piñubolas** (ez *Pinubolas*), **Amillaga** (ez *Amilaga*).

Gainera toponimoetan ez da <h>-rik erabiltzen ahoskatzen ez denean; Bizkaian ez da ahoskatzen, hori dela-eta **Aristietabarrena** moduko toponimoak <h> barik idazten dira, nahiz eta etimoan “haritz” berba dugun. Era berean, aipatu beharra dago toponimian zenbait berba ez direla euskara batu arautuan idazten diren grafia berarekin idazten. Batetik, euskalkiko hiztegia erabiltzen da (“barri” eta ez “berri”, esate baterako); eta, bestetik, sarritan konposaketan eta eratorpenean ageri dira eta horrek zenbait soinu aldarazi ditu. Hori da gertatzen dena goian aipatutako Aristietabarrena toponimoan, lehen elementua haritz bada ere, <s> grafiaz idazten da <t> leherkariaren aurrean gertatzen den aldaketa delako eta mendebaldeko euskaran oso normala eta aspaldikoa delako. **Gastañatxueta** (1780an dokumentatutako basoa) toponimoan ere hori berori gertatzen da, “gaztaina” berbatik eratorritako toponimoa bada ere, <s> grafiaz idazten dugu horrela dokumentatzen denean, batez ere Bizkaian gertatzen da hori.

Artikulua

Toponimoak jatorrian lekua bera izendatzeko izen generikoak ziren, hau da, zein lekuren gainean berba egiten ari ginen adierazten zuen izena erabiltzen zen: **Goikoetxea**, **Barrenetxea** (behean daggoen etxea), **Bastegietatxebarria** (Bastegieta auzoko etxe barria) eta abar esaterako. Izen horietako askok artikulua zeramaten, jatorrian izen arruntak zirelako; baina, denborarekin izen askok artikulua galdu dute, izen bereziaren zantzu handiagoa hartu dutelarik. Horrela, **Etxebarria** zena **Etxebarri** bihurtu da, eta abar.

Leku-izen baten idazkera egokia erabakitzen denean ere artikulua ipini ala ez erabaki behar izaten da. Halakoetan dokumentazioari begiratzen zaio, nagusiki izena zelan dokumentatu den eta artikulua barik noiztik aurrera dokumentatu den aztertzen da hori erabakitzeko. Jakina, nagusiki artikuluekin dokumentatu den kasuetan eta galera XIX. mende amaierakoa edo XX. mende hasierakoa denean, artikulua berreskuratu izan da, nahiz eta gaur egun artikulua ahoz erabili ez.

Edozelan ere leku-izenek eraman ohi duten artikuluz beste zenbait argibide ere ematea komeni da. Izan ere amaierako –a sarri artikulua bada ere, ahozko erabileran organikotzat jo ohi dute hiztunek gaur egun, izen berezien deklinabideari jarraituz, eta ondorioz deklinabide okerrak sortzen dira: *Bastegietabarriatik* esaten da Bastegietabarritik beharrean esate baterako. Toponimian azken batean artikulua da, eta deklinatzerako orduan **Bastegietabarria** leku-izena “mendia” izen arrunta deklinatzen dugun bezalaxe deklinatu behar dugu; beraz, gogoratu beharra dugu leku-kasuetan, inesiboan, non kasuan, izan ezik, artikulua barik deklinatzen direla izenak.

Horretaz gain, kontsonante + artikuluz amaitzen diren izenekin gainera hanka sartze larriagoak ere egiten ditugu ahozko erabileran. Ikus dezagun, esate baterako, Arana (-a) auzo-izena deklinatzeko moduak, ahozko erabilera zabaldua, okerra dena, eta erabilera zuzena:

	Non	Nondik	Nora	Nongo
Okerra	<i>Aranan</i>	<i>Aranatik</i>	<i>Aranara</i>	<i>Aranako</i>
Zuzena	Aranean	Aranetik	Aranera	Araneke

Ahoz edozelan ere, **Arana** auzoari *Arane* esaten zaio, hain zuzen ere, lehen azaldu dugun lez, deklinabide zuzena txarto interpretatzearen ondorioz (ik. amaierako –e paragogikoa atalean azaldutakoa). Horrela, lekuzko kasuetan ondo deklinatuta geratzen da, kasualitate hutsez; ez, oster, inesiboan, non kasuan, *Aranen* esaten diotelako, Aranean behar duenetan.

Leku-izenak behar lez deklinatzeko argigarri gisa behar duten toponimoen amaieran (-a) ikurra ageri da amaierako bokala artikulua dela adierazteko, eta ez dela organikoa.

Toponimo konposatuak loturik, gidoirik gabe

Leku-izen gehien-gehienak bi berben konposaketa edo eratorpenaren ondorio dira. Jakina, guk bakarrean antzematen ditugu ahozko erabileran eta horrela erabiltzen ditugu ahoz. Hala ere, etxe-izenetan bereziki, konposaketan parte hartzen duten berbak bereiz idazteko joera zabaldu da garai batean, batez ere gidoia baliaturik: *Dondiz-goikoa* edota *Bastegieta-etxebarri*. Baina hori ez da euskaldunon usadioa izan, gure deituretan ikus dezakegun lez. Horregatik, Euskaltzaindiaren egungo irizpenek argi diote toponimo konposatu guztiak loturik idatzi behar direla, bereziki etxe-izenak. Hortaz **Dondizgoikoa** eta **Bastegietaetxebarria** dira idatzizko forma zuzenak.

Euskalkiaren sena jagon

Aurretik azaldu ditugun zenbait bokalismo onartzen ez badira ere, euskalkiaren berezko ezaugarri diren bestelako fonetika-fenomenoak eta lexikoa jagon egiten da toponimian. Horrela “solo” edo “barri” bezalako berbak toponimian sarritan agertzen zaizkigu, eta horrela arautzen ditugu.

LEKU-IZENEN FITXAK NOLA INTERPRETATU

Liburuxka honetan aurkezten dizkizuegun toponimoak alfabetikoki daude antolatuta. **Izen nagusia**, markatuago ageri dena, araututako idatzizko forma egokia da, Euskaltzaindiaren oniritzia du, eta berori da fitxaren goiburua.

Leku-izenaren **ahoskera** ere jaso da letra etzanez. Bizirik diren leku-izenen ahoskera jaso gura izan da, batez ere eta soilik ahoskera eta idatzizko forma nabarmen ezberdinak direnean jaso da. Ahoskera jasotzearen helburua hauxe da: leku-izena erabiltzen denean, inguruko euskaldunek erabiltzen duten lez erabili dadin. Sarritan, ahozko erabileraren eta idatzizko forma arautuaren artean alde handia dago eta leku bera dela identifikatzea gaitza izaten da. Hori guztia dela-eta idatzizko okerreko formak, sinonimoak edo lekua bera izendatzeko beste izen batzuk ere jaso ditugu; baina berorien ondoan ik. marka ageri da, lekuaren izen zuzenera bideratuko gaituena.

Jarraian, parentesi artean, zer den esaten da, **errealitate geografikoaren izena**: baserria, troka, erreka, auzoa eta abar. Horren ondoan, lekua zein biztanle-entitate ofizial dagokion jasotzen da (**auzoa**). Gernika-Lumoko udalerriko biztanle entitate edo auzo ofizialak honako hauexek dira: Arana, Erreterria, Gernika, Lumo eta Zallo.

Horren azpian, lekuak berak **beste izen batzuk** dituenen ere aipatu egiten dira. Izen horiek ere Euskaltzaindiaren oniritzia dute, leku bera izendatzeko erabiltzen dira, baina ez daude izen nagusia bezain zabalduak.

Aurreko informazio guztiaren ostean, leku-izenari dagozkion **azalpenetan**, besteak beste, toponimoari dagozkion argibideak daude, leku-izenaren etimologia eta idatzera hobeto ulertzen lagunduko duten argibideak hain zuzen ere. Horrez gain, bertan agertzen dira gomendioak izen bereko beste deitura batzuetara jo eta informazioa gehitzeko (jarraian eredutzat ipinitako fitxa adibide).

Azkenik, **dokumentazioa** agertzen da, historian leku-izen horri buruz aurkitu izan diren agirietako (liburuak, baserri sutegiak, dokumentu zaharrak...) aipamenak hain zuzen.

Zearreta

Ahoz: *Sigerta*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: Aguakorriente

(Azalpenak): Aguakorriente izenaz ere ezaguna da, Lumotik behera bertatik igarotzen ziren erreka toren ur-emaria handia zelako eta askoz nabariago euria egiten zuenean. Ikusi Zearreta baserriaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Cearreta (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Zigerta (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 149.

Zigarreta (vulg. Zigerta) (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 149.

Hau guztia hornitzeko, derrigorrezkoa dugu begi-bistan leku-izena mapan kokatzea, herrian identifikatzea. Horretarako, liburuxka honen osagarri atzeko azalari lotuta doan mapara jo daiteke eta bertan daude kokatu ahal izan diren leku-izenen erreferentziak (koordenadak).

GERNIKA-LUMOKO TOPONIMIAREN EZAUGARRIAK

Gernika-Lumo udalerria, jakina denez, 1882ko urtarrilaren 8az geroztik udalerri bakarra da; Gernika hiribildua eta Lumo elizatearen batuketaren ondorioa hain zuzen ere. Udalerri bien arteko gatazkei, jurisdikzio gorabeherek eragindakoei, amaiera eman zitzairen bat-egitearekin.

Horrela bada, udalerri bakarra dugu gaur egun, baina Gernika-Lumoko toponimia historia horren erakusle ere bada; eta horrela, toponimia txikiari dagokionez bi toponimia mota topatzen ditugu: baserri inguruko toponimia eta hiri-toponimia. Azken hori Gernika hiribildu barruko toponimia da, kale-izenak eta kaleko etxeak biltzen dituena.

Lumoko lurretan, oster, nekazal guneko toponimia topatzen dugu, oronimia eta oikonimia dira nagusi, baso, mendi eta abarren izenak eta baserri-izenak alegia.

Baina Gernika-Lumoko toponimiak baditu beste berezitasun batzuk ere. Gernika-Lumok mendebaldeko euskalkiaren lurraldean kokagune estrategikoa du; izan ere, mendebalde eta ekialdeko azpieuskalkien artean dago. Hori dela-eta bertako toponimiak kokagune estrategiko horrek eragindakako ezaugarri bereziak erakusten ditu. Ezaugarri horien artean ditugu –ena atzizkiaren erabilera urriagoa edota –e paragogikoaren erabilera ekialdean baino sarriago agertzea.

Edozelan ere Gernika-Lumoko toponimiak bitxikeria politak eta bereziak erakusten dizkigu. *Sutznamenak* esate baterako, aditza duten leku-izenak dira, eta benetan gure inguruan egon badauden arren, bitxi-bitxiak eta urriak dira: **Ardauedateleku**.

Toponimia, euskal kultur eta etnografia ondarearen erakusle ere bada. Horra hor **Lamiñarreka** hidronimoa, lamien berri ematen diguna. Lamia berba toponimian beti erreka eta ibai inguruetakoko toponimoetan ageri da; kasualitatea ote? Ez, noski, jakina da-eta lamiak ur inguruetan bizi direla.

UDALERRIAREN IZENA: GERNIKA-LUMO

Bi berbaz konposatua, Gernika eta Lumo, bakoitzak bere jatorria eta historia berezia duena, hiribildua eta elizatea, lehen aipatutako 1882ko batasunetik aurrera bide komuna hartu zuen udalerriak. Hona jarraian izen bakoitzari buruzko teoriak.

Gernika

Toponimo honen inguruko teoria batzuk izanik, gehienek ez dute gaia ebazten. Beraz, guztietatik bat aukeratu dugu, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kide den Felix Mugurutzarena hain zuzen; izan ere, aipamen ugari jasotzen ditu eta teoria osatua delako (*Aldaba* aldizkarian 1998an argitaratutakoaren laburpena da ondoren jasotakoa):

Si hay alguna partícula que haya desorientado a los lingüistas de nuestra tierra es el final en -ika de gran número de topónimos o nombres de lugar como Delika, Sondika,

Totorika o, entre tantos, el de Gernika y que es el objeto de este modesto artículo (...)

Partiendo de este estado de las investigaciones, por mi parte, propuse, en una reciente publicación (1997), la necesidad de estar formado por un nombre latino más la terminación -ika. Así en dicho trabajo se daba solución a nombres como Bitorika o Delika a través de los nombres latinos documentados Victorius y Delius. También se solucionaban nombres con terminación en -aka como Mundaka o a través del nombre de persona Mundius. Ello nos llevaba, quizás, a aquel hipotético -iaka primitivo que Gorostiaga no lograba localizar. En la publicación antes señalada creímos verificar dicha opción a través de nombres alaveses como Mariaka o Artziniega (documentado por primera vez como Arseniega) creados en base a los nombres de persona latinos Marius y Arsenius (predecesores de los actuales Mario y Arsenio) más el citado sufijo -iaka.

En cualquier caso parece evidente la unión a nombres latinos. Así conseguimos solucionar gran cantidad de nombres como el Gernika que nos ocupa.

*Para este nuestro caso y una vez visto lo anteriormente dicho sobre la terminación -ika, forzosamente debíamos encontrarnos con un nombre latino *Gernius o similar.*

Decimos similar porque, como explicaremos más adelante se trata de un conocido Cernius (que ha de leerse en forma latina pura, es decir, como “Kernius”).

*Ese sonido inicial k- pasará, al adoptarlo el euskara, a un sonido g- como sucedió con causam > gauza, castellum > gaztelu o celam > gela, entre muchas. Así aquel supuesto *Cernika (leer “Kernika”) nos dio el actual Gernika.*

(...)

*Sondika < Sontius, Gabika < Gavius, Totorika (de un probable *Tortorius que queda reflejado en el monte Tortorio de Asturias, etc)*

(...)

...se da en infinidad de ocasiones una duplicidad en los nombres latinos documentados en lápidas, inscripciones y similares; al menos esto sucede en la península. Así se documentan, entre otros muchos, nombres como Aius/Aiuiça, Aleonius/Aleonicus, Alionius/Alionica, Altus/Altica, Amius/Amica, Anius/Anica, Colonus/Colonica, Elanias/Elanioka o hasta los “atrevidos” Erotis/Erotica.

(...)

Por tanto, como resumen, podremos decir que Gernika toma su nombre de un tal personaje Cernius, nombre que, aunque no se documenta en la península sí aparece en otros puntos del imperio (...)

Patxi Salaberri euskaltzain eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea ere iritziz berekoa da eta -ika atzizkiaz FLV (113. alea, 139-176; aipua 154-155 OR) aldizkarian berriki argitaratu duen artikulua batean ondokoa dio, lehenengo eta behin inguruan hain arrunta den atzizki horretaz eta gero Gernika izenez:

“Yo, por mi parte, considero que los mencionados autores tienen razón al proponer bases antroponímicas para los topónimos en -ika y creo, con Omaetxebarria e Irigoien,

que la terminación o sufijo procede de la forma femenina del sufijo latino *-icus*, es decir, de *-ica*, lo cual supone, como se ha visto, pensar en topónimos con un nombre femenino del tipo de *teñra* o *villa* en la base, nombre que ha sido omitido. Por otro lado, estimo que alguno de los topónimos en *-ika* para el que se ha dado un apelativo como base admite también una explicación antroponímica (véase Zulaika).

6.14. Gernika (despoblado de Álava y villa de Bizkaia)

Respecto al nombre de la conocida localidad vizcaína, podría tener razón Omaetxebarria (vide supra) al proponer (Villa) Cárnica ‘granja o caserío de Carnio’, ya que Carnius es un antropónimo documentado, y la sonorización de la velar sorda en posición inicial ha sido habitual en euskera; además, Poza cita Garnica (B) en 1587 (pág. 46).

Irigoien, como se ha visto, propone la base Granius, pero de este antropónimo, es decir, de **(teñra, villa) granica*, si no pensamos en una metátesis temprana, el resultado habría sido **Graika* con pérdida de la nasal lene intervocálica, o *Garika* tal vez, forma esta última que no necesita asterisco porque está documentada, pero no para denominar la localidad bombardeada por el ejército alemán en la guerra civil española. *Garika*, documentado como apellido, mejor que de **Graika* habrá salido del nombre de algún caserío homónimo, con origen en **(teñra, villa) carica* o **(teñra, villa) garica*, formado a partir del antropónimo *Carius* o *Garius* (Solin & Salomies, 1994: 47, 86).

Además, Gernica era según la reja de San Millán una localidad de Ubarrundia (A) ya para 1025 (Ubieto, 1976, 180, pág. 176), hoy despoblado de Miñaogutxia o Miñano Menor, que ha producido, a lo largo de la historia, microtopónimos como *Gernikaldea* ‘la parte junto a Gernika’, *Gernikabea* o *Gernikapea* ‘lo de debajo de Gernika’, *Gernikaostea* ‘la parte de detrás de Gernika’, *Gernikasakona* ‘la hondonada, la barrancada de Gernika’, *Gernikazarra* ‘Gernika la vieja’, etc.³ La localidad vizcaína se documenta como *Guarnica* y *Guernica* en 1464 (Enríquez et al., 1996: 4, 5).

Si de Gernica pasar a Garnica en euskera no sería tan difícil porque, como es bien sabido, la vibrante múltiple abre e en a (cf. *bazterra* > *baztarra*, *ederra* > *edarra*, *izterra* > *iztarra*...), el paso contrario de Garnika a Gernika creo que no está justificado. Por eso estimo que el antropónimo que está en la base de la Gernika alavesa y de la vizcaína es *Cernius* (Solin & Salomies, 1994: 53), es decir, tenemos que partir de **(teñra, villa) cernica* [*kernika*] ‘la granja, la propiedad de Cernius’ de donde por sonorización de la velar sorda en inicio de palabra habrá salido *Gernika*.”

Kontuan hartu behar da Gernika toponimoa inguru txiki bati baino ez zegokiola, hiria fundatu baino lehen (1366) **Gernikazarra** deitzen zen leku batetik datorrela, bertan zegoen baserri bati ei zegokiola; baserri horrekin lotuta legoke Lumoko basoetan dagoen Gernikabaso toponimoa ere. Baina ez dago argi, izan ere ugariak direlako udalerrri izena + baso-izenak eta baliteke hori Gernikako hiribilduak Lumoko lurretan zuen basoa ere izatea. Orduan Lumo zen zabalena, elizatea, eta Gernika hiria apurka-apurka elizaurreri lurrak kentzen joan zen, gaur egun arte.

Lumo

Lumo udalerrriaren zabalera handiagoa bazen ere, gaur egun Lumo biztanle entitateak Zallo auzoa hartzen ez duen gainerako lur eremua hartzen du.

Lumo izenaren inguruan hainbat teoria dira. Juan Ramon Iturriza Zabalak hauxe adierazten du: *“sincopa de Luurno, que denota tierrita”* (lurralde txikia). Isaac Lopez Mendizabalek dioenez, “Una” berbatik dator, esangura “belardia”, eta l- aurrizkia ipinita erabiltzen da.

Bada bertako biztanleengandik jasotako elezahar batean oinarritutako teoria ere: *“Luna* erdal berbatik ei dator, goialde horretan distira berezia erakusten zuelako ilargiak eta bertako biztanleek gur egiten ziotelako. Bertako jauntxoek, Mezeta familiakoek, armarriko bi ataletan ipini zuten ilargia”.

Azken bat ere aipa daiteke, hau da, Bienvenido Mascaray jaunak Aragoiko Pirineo aldeko toponimia aztertzerakoan dioena:

“(…)Lumo es una composición ibérica integrada por dos formas, un sustantivo y un adjetivo. El primero es una voz bien conocida, lur, tierra, suelo vegetal, de frecuente aparición en toponimia. Por ello precisamente debemos detenernos haciendo alguna consideración: la toponimia y también la epigrafía ibéricas nos presentan las voces alur y su variante alor, con similar significado: campos, tierras de labor (...). La segunda forma, el adjetivo, es umo que, calificando a tierra (femenino) debemos traducir por sazónada. (...): lur + umo da lu(r)umo, por elipsis al final del primer término; acto seguido, lu-umo da lumo, por encuentro de vocales iguales. Por último, la precisión más absoluta en la descripción: las tierras bajas de Lumo de Rañín, junto al barranco de Lumo o río Campanuel, al igual que las de Lumo de Muro, junto al Usía, comparten una misma condición derivada de la proximidad de los cursos de agua y de los niveles freáticos (manantiales aparte): son tierras frescas en las que fácilmente se alcanza el grado de sazón y de humedad que precisan determinados cultivos. En conclusión, Lumo significa tierra sazónada.

Zein ontzat hartu? Bakoitzak aukeratzea dauka egokien deritzona, gu ez gara-eta gai zentzudunagoa den bat proposatzeko.

AUZO-IZENAK (BIZTANLE-ENTITATE OFIZIALAK)

Bi auzo mota bereizi behar ditugu, alde batetik ofizialak direnak eta biztanle-entitate lez ezagutzen ditugunak, eta bestetik auzo txikiagoak, aurreko biztanle-entitate horien menpe daudenak, baina tradizio handikoak eta herritarren erabilera oso zabalduak daudenak.

Arana

Arana izena, ez dakigu baserria izendatzeko edo auzoa izendatzeko erabiliko zen lehenengoz. Izenaren etimologiari begiratuta pentsatzekoa da lehendabizi ingurua izendatzeko erabiliko zela, eta gerora bertoko baserriek hartuko zutela izena: **Arana, Aranbarrena, Arangoitia**.

Koldo Eleizalde Brenosak *Voces Toponomásticas Vascas* lanean, XX. mendearen lehen erdian egindako bilketaren emaitzan jaso zituen eta bertan Gernikan bildutako Aane toponimoaz dio: *“forma vulgar de Arane; véase esta voz [Id. [caserío] de Luno (Bizk.)]”*. Alegia, herritarrek Arane edo Aane esaten ziotela ahoz esan gura du. Edozelan ere Arana da jato-

rrizko idatzizko forma zuzena. Gaur egun amaieran -a bokalaren ordeztze ahoskatzen da, baina ez da zuzena. Ahoskera horren jatorrian deklinatzerakoan erabiltzen den <e> bokal epentetikoaren eragina dago, eta, ondorioz, deklinabide-sistemaren kaltearen eraginezko forma da; e-dun formak lehenengoz XIX. mende oso amaieran eta XX. mendean dokumentatzen dira batez ere.

Fenomeno hau, <e> paragogikoaren fenomenoa, oso zabalduta dago Bizkaiko mendebaldean, eta Gernikatik ekialdera joz gero, urriagoak dira adibideak. Lea-Artibain esate baterako, euskara bizi-bizirik izan den inguru honetan, deklinabide kalteak ez da hain agerikoa izan eta hori dela-eta fenomeno hau ez da ageri bertako toponimian.

Ohikoa da mendebaldeko euskalkian kontsonante + artikulua amaieradun toponimoetan amaierako a > e aldaketa. Esan bezala aldaketa honen jatorria oker deklinatzean datza; izan ere, amaierako -a artikulua izanik tokia adierazten duten deklinabide kasu markekin desagertu eta <e> bokal epentetikoa eraman ohi du: *Araneko*, *Aranera*, *Aranetik*. Horren ondorioz, *Arane* forma nominalizat hartu zuten hiztunek, hau da deklinatu bako formatzat. Aldaketa hau zenbat eta Bizkai mendebaldeko, orduan eta sistematikoagoa da, hau da, euskara lehenago eta arinago galdu den eremuetan sarriago topatzen dugun fenomeno da.

Hortaz, gaur egungo ahoskera *Arane* (zenbaitetan *Arene*, asimilazioaren ondorioz) bada ere, idatzizko forma zuzena Arana izan behar du. Edozelan ere gogoratu beharra dugu ablatibo kasuan, hau da non kasuan, haxe dela deklinabide egokia: *Aranean*, eta ez *Aranen*.

“Harana” berbak bi mendi edo tontorren artean dagoen sakonunea esan gura du, nahiz eta zenbaitek frutarekin, okaranarekin, ere lotu gura izan duten.

Gaur egun oso zabalduta dago Arana deitura, bereziki Sabino Arana jeltzale ezagunari esker -jatorri gernikarra zuena- egin da ezaguna.

Errenteria

Errenteria berbak “aduna” esan gura du, errenta ordaintzeko lekua. Gaztelarazko *Rentería* berbatik dator, eta euskal hizkuntzaz mailegatua jakina, horregatik ahoskeran hasierako r- kontsonantearen aurrean <e> protetikoa erabiltzen dugu, euskarazko fonetika arauari jarraituz. Hala ere, esan behar da *Rentería* zergak kobratzeko lekuaren esangurarekin Euskal Herrian baino ez dela ageri eta gaztelania estandarrean berba horrek beste adiera bat zuela. Gernikako auzoaren izena izen bereko etxetik dator.

Amaierako -a berezkoa du, organikoa da alegia. Hortaz, deklinatzerakoan ere ez dugu kendu behar, eta “Errenterian bizi naiz” eta “Errenteriakoa da”, edota “Errenteriara noa” esan behar dugu.

Errenteria etxearen nondik norakoak ezagutzeko, hona hemen Gernikazarra Historia Taldeko Alberto Iturriartek egindako liburuko pasarte bat:

“Errenteria zan burdineari egokozan zergak kontrolau eta kobretako etxea edo lonjea...., eta bertan, behin produktu horreek balantza ofizialetan pisau eta gero, aginduzko es-

kubideak ordaindu egin behar izaten zirala.

Historian hainbat erreteria etxe egon izan dira Lumo eleizatean eta Gernika uribilduan. Baina jabeek, betidanik Mezetatarrek, tokiz aldatzen ebezan errekondoak lohiz beteten ziran bakotxean.

Gernikako alderdian egondako azkenengo erreteria San Juan eleizearen aldamenean egon zan. Hantxe egon zan hainbat urtetan, harik eta XVI. mendearen hasierako hamar-kadetan errekearen beste aldera eroatea pentsau eben arte (...)

Mugarri barriak ipini ziranetik (1576ko urtarrilak 19), Gernika han ezarritakoari uko egiten saiatu zan behin eta barriro (...)

Holantxe amaitu zan Gernikaren jabetzapeko erreteria etxeen historia. 1596tik aurrera beste aldikada bat hasi zan: Ajangizen jabetzapeko erreteria etxeena.”

Oka ibaiaren bestaldean dagoen gunea da Erreteria. Auzo hau historian Ajangizko udalerrarena izan da eta Gernikarekiko desanexioa lortu zuenean, Erreteriako biztanleek erreferendum baten bidez Gernika-Lumori loturik jarraitzea erabaki zuten. Guztiarekin ere, bertako biztanleen artean gaur egun banaketa dago gai honi dagokionez.

Biztanle entitate honen barruan beste auzune txikiago bat topatzen dugu, **Lorategieta** alegia. Lorategieta Ajangizko baserri baten izena da, hain zuzen ere izen bereko auzunean dago, baina Gernika-Lumoko mugetatik kanpo. Lorategieta berbak jardinak dauden lekua esan gura du, lorategi + eta, -eta atzizkia ugaritasun edo lekua adierazten duen atzizkia izanik.

Lumo

Toponimoa landu dugu arestian, gustuko teoriak aukeran. Baina gaur eguneko Lumo auzoaren barruan beste auzo edo auzune batzuk bereizi behar ditugu:

Landaberde:

“Landa” eta “berde” kolore-izenarekin osatutako izen konposatua. Berde kolorea erro-mantzetik mailegatutako berba bada ere euskaraz erabili izan da.

Landaberden beti izan da nahastea, baserri batzuk Gernika-Lumo eta beste batzuk Foru zirela-eta edo herriz leku batekoak eta elizaz bestekoak zirenak ere. Landaberdeko errekek egiten du muga Foru herriarekin eta alde bietako etxeek hartzen dute auzo horren izena. Bilbon ere ba ei zen Landaberde izeneko gunea, Santutxu auzoan XX. mendearen hasieran Landaorlegi berriro izendatu zutena, zuzenagoa zelakoan.

Santa Ana:

Bertan den Santa Ana ermitagatik du izena auzo honek eta ondoko baserriak ere hortik hartu du izena, **Santana** baserria. Hildakoren bat Forutik Gernikara edo alderantzizko bi-dean eramaten zenean, bertatik pasatzerakoan hil kanpaia jotzen zela diote.

Monasterio:

Monasterio izen bereko baserri-izenetik hartu du izena auzo honek. Monasterio dei-tura ezaguna eta zabaldua da gurean. Erromantze jatorriko izena bada ere, mailegatu da

euskaraz. Gogoan izan behar dugu Erdi Aroan monasterio asko, batez ere gure inguruan, baserri xumeak baino ez zirela, bertan monje edo lekaime talde txiki bat bizi zela. Geroago eraiki ziren gaur egun ezagutzen ditugun monasterio handiak.

San Pedro:

San Pedro esaten zaio Lumoko herriguneari, eliza dagoen lekuari alegia. Euskal tradizio onomastikoan, herrigunea edo eliz inguruari **Ellexalde** deitu izan zaio (beste euskalki batzuetan Elizalde).

San Pedro izena elizaren adbokazioaren izenetik dator, San Pedro Apostol edo Done Petri Apostolua euskaraz. Elizateak, ohi lez, adbokazioaren izena hartu zuen *San Pedro de Luno* topatzen dugu idazki zaharretan.

Zallo

Abizen zabaldua da gaur egun Zallo. Gure baserri izenak oso gardenak izaten badira ere baditugu batzuk erabat ilunak. Sarritan izen hauek antzinateko bizitokiak dira, Lumo, Zallo edo Getxo. Agian, baina ez dugu datu zehatzik, goi Erdi Aroko dokumentaziorik ez dugu eta, hauen atzean pertsona izenak egon litezke, baina ezin jakin.

AUZO TXIKIAGOAK

Urramendi

Urramendi izen bereko baserriatik du izena auzo honek. Oso baserri zaharra da Urramendi eta gaur egun hirigunean dago, eraikin handiagoen artean.

Aurreko bokal itxiaren ondorioz zarratzen da hurrengo bokala eta ahoz *Urremendi* esaten zaio. Baina dokumentuak argi erakusten du “urra” dela lehenengo elementua, ondo dokumentaturik dago-eta 1704az geroztik. Hurritzaren fruituaren izena da, baina toponimian arrunta da fruituaren izena zuhaitzak ordezkatzeko eta hor dugu, esaterako, Ezkurdi. Fitonimoak, edo landare-izenak, oso erabiliak izaten dira toponimian, inguruaren deskribapena egiteko, zer nolako landara, zuhaitz edo fruta-arbola dagoen inguruan esaten da sarritan (ikusi baso izenez esandakoa.)

Baserri-izen zaharra izanik, eta toponimoaren itxuragatik, baserriak berak inguruko toponimoa hartuko zuen beretzat. Izan ere toponimoak jatorrian oronimoa izango zen hurrean.

Txaporta

Txaporta auzo izena bertan dauden baserriengatik hartu du. Baserri zaharrak dira eta XVIII. mende hasieratik ondo dokumentatuak daude. Hiru dira baserriak eta izen ezberdinak hartu dituzte dokumentazioan, baina gaur egun Txaportaurre, Txaportatze eta Txaportaerdikoa lez ezagutzen dira. Baina dokumentazioan Txaporta (nagusia), Txaportaerdikoa eta Txaportatxu edo Txaportaetxebarria dira. Ikusi Txaporta baserrien fitxak.

Litekeena, “txaparrota” izatea jatorrizko forma osoa, txaparro (fitonimoa) gehi –eta atzizkia, sasilekua alegia.

Mestika

Kale-izenen zerrendan agertzen den **Mestikabaso kalea**, Mestika toponimoaren deribazio bat da, beste garai batean toki honetan izandako landarediaren adierazgarri. Izan ere, inguru hori guztiori, Gernika hiriko ateetaraino, Gernikak eta Lumok ustiatzen zuten herri-basoa zen. Baso horrexetan gordetzen ziren, hazten joan zitezen, Gernikako Arborelaren txirpiak, egunen baten arbola ihartua ordezkatzeko zutenak. Elizate eta hiriaren arteko amaibako auzien ondoren, azkenik, 1864an herri-lurrak saldu eta irabaziak banatzeko akordioa hartu zuten.

Ustez **-ika** atzizkiak jatorri indoeuropearra adierazten du, eta inguru horretan historiaurrean egondako atzerriko eraginen adierazgarri da. Gainera, ez da atzizki hori daukan toponimo bakarra inguruan: Baldatika, Gernika, Otxilika, Mesterika, Ordorika...

Agirregana

Jendartean oraintsu arte gailendu den ahoskera *Agarregane* forma dugu, *Agarre* plazaren ereduari jarraituz. Kale-izenen zerrenda Euskaltzaindiaren irizpideetara egokitu zenean, zuzendutako bat hauxe izan zen, forma zuzena Agirre plaza da eta, ondorioz, Agirregana auzunea zelako.

Agirre ageri da dokumentazioan mendez mende, horrela finkatu da deitura Hegoaldean eta hau da zabalduen dagoen Euskal Herriko baserri izena. Hori guztia begi aurrean ez litzateke onargarria izango batzen gaituena apurtzea, bereizten gaituena indartzeko. Areago bereizketa hori berri-berria denean.

Agirre plazak antzina inguru horretan zegoen Agirre baserritik hartu zuen izena. Baserri hori 1704ko fogerazioaren ostean agertzen zaigu zerrendetan. Beraz, horretan oinarrituta daude Agirregana auzunea eta Agirreburu kalea izenak ere.

Txorraburu

Mendebaldetik Iñigo Lopez de Haro kalearekin egiten du topo eta ekialdetik Carlos Gangoiti kalean amaitzen da. Jatorria, antzinako baserri-ortuaren izena dugu.

Ramon de Goiria y Basterretxea Montevideon (Uruguako hiriburua) bizi izan zen abade. Horrek, 1904an, Karidadeko Ahizta Karmeldarren Institutuari Txorraburun zegoen ortu-etxe baten dohaintzaren eskritura egin zion. *Chorraburu-ondo* deitutako beste orube bat erosi zuten eta bietan egin zen karmeldarren ikastetxe berria, gaur egun San Fidel Ikastola dena.

BASERRI-IZENAK

Inguruko herrietan ez bezala, Euskal Herrian baserriei eta etxeei ere izena eman izan diegu; izan ere, etxeek Euskal Herriko historian eta euskaldunon izaeran aparteko garrantzia izan dute. Baserri eta etxeei estuki lotuta egon gara beti, etxearen izenetik sortu dira eta, hain zuzen ere, gaur egungo euskal abizen gehienak.

Baserri-izenak ikertzen dituen zientziari oikonimia esaten zaio. Zientzia hau, oster, ez da linguistikoa soilik, uztarturik ikertzen ditu etxaldearen izena, etnografia eta historia. Hiru zientzia horiek uztartuta, etxaldearen izenaren jatorria eta izan dituen aldaketak ulertu ahal ditugu.

Gernika-Lumoko oikonimiari dagokionez, aurretik azaldu dugun lez, bi gune bereizi behar ditugu: herri-toponimia (Lumokoa) eta hiri- edo kale-toponimia (Gernikakoa). Bakoi-tzak ezaugarri bereizgarriak dituztelarik.

Kalean, Gernikan hain zuzen, baziren etxeak eta etxeok izenak zituzten, baina ez zuten baserri-izenek zuten garrantzia eta ez dira behar lez dokumentatu, eta ondorioz, gorde ere ez. Hori dela-eta ondorengo lerroetan aipatuko diren oikonimo gehienak Lumo elizateari dagozkio.

Baserri-izenak gauza asko esan ahal digu etxeari, etxean burututako jarduerari, jabeari, edota inguruari buruz; horrela, baserri izenak oro har, bi eratakoak izan daitezke: izena beren-beregi baserria izendatzeko sortutakoak eta inguruko beste toponimo batez baliaturik etxea ere izendatzen dutenak.

Ondorengo lerroetan izenari erreparaturik sailkapen bat proposatzen dugu.

Etxe berba duten baserri izenak

“Etxea” izen generikoa da, hau da, izendatzen duen elementua zer den esaten duen berba da, eta nagusiki oikonimoak izendatzen ditu; nahiz eta gerora etxe-izen horietatik beste zerbait izendatzeko erabili izan diren, **Barrenetxe** mendi-malda esate baterako.

Berba konposaketan ageri da gehienetan, eta atzean zein aurrean joan ohi da. “Etxe” berba bera aurrean doanean, etxea eta bere ezaugarriak nagusitzen dira toponimoaren adieran; horrela, bada, atzean lekua adierazten duten postposizioak edota adjektiboak daude: **Etxezarra** edo **Etxezuri**.

Kokapen zehatza adierazteko aurrezki batzuekin ere joan ohi da etxe-izena, zenbaitetan nongo kasuan deklinaturik: **Barrenetxe** (barreanean, atzean dagoen etxea), **Beas-koetxe** (behean dagoen etxea), **Goxeaskoetxe** (goian dagoen etxea), **Bengoetxe** (behean dagoen etxea) besteak beste.

Zenbait kasutan beste elementu batzuek baliaturik ageri da, baina betiere etxearen ezaugarriak adierazten dira:

- Ormaetxe**: harriz egindako etxea; izan ere, garai batean etxeak zurezkoak ziren, hormak barru.
- Abadetxe**: abadea bizi den etxea.
- Andikoetxe**: beste aldean dagoen etxea.

Jabearen izenetik eratorriak

Bizkai euskararen geografiaren barruan mendebaldean batez ere erabiltzen den atzizkia da -ena. Gernika-Lumon ere baserri izenetan topatu ahal dugu, baina dokumentazioak argi erakusten digu ez dela Bizkaia mendebaldean beste erabiltzen.

Amaieran ezarri ohi den atzizkia bereziki etxe-izenetan erabiltzen da eta edutezko genitiboaren marka da, bizkai euskararen parametroetan.

XVIII. mende amaieran eta bereziki XIX. mendean joerakoa zen baserri jabearen izena, deitura, ezizena edo lanbidea eta –ena atzizkiaz eratorritako izena jartzea.

Euskal Herriko beste inguru batzuetan oso zabalduta dagoen –enea amaieraren berbera da atzizki hau.

Gernika-Lumon baditugu hainbat etxe-izen forma honekin:

Aurretik jabearen deitura dutenak:

- **Akurioena:** Akurio deitura du aurretik, baina euskal toponimian ageri denez gero euskal grafiaz idazten da oso-osorik.
- **Benturena:** Bentura deitura du aurretik.
- **Lorentena:** Lorente deitura du aurretik.

Badirudi, inguru honetan, etxe izenetan jabearen deitura jartzeko joera erdal deiturekin dagoela batez ere. Izan ere, erdal deiturak ez-ohikoak zirenez, pertsonen euren deituraz identifikatzea errazagoa zen eta ondorioz, etxe izenean ere erabiltzen zen.

Jabearen ezaugarri, lanbide edo ezizenak:

- **Alargunena:** alargunaren etxea seguru antzean.
- **Barbaena:** Barba ezizenekoren batena.
- **Ezkerrena:** Ezkerra ezizenekoren batena.
- **Garratzena (Antxokena):** Garratza ezizena zuenaren baserriaren izena.
- **Txipitena:** Txipita ezizeneko batena.
- **Barranderoena:** Barrenderoaren etxea.

Inguruko toponimoren bat erabilia ere eraiki dira izenak:

Tramena: Trama toponimoa du aurretik izen honek.

Errotak (boluak) eta olak

Gaur egun, lanean dabilen errota edo olarik ezagutzen ez dugun arren, garai batean ugariak ziren gure inguruan. Ez dugu gauza berririk esango beharbada, baina “bolu” edo “ola” berba duten etxe-izen gehienak hartuko ditugu hemen mintzagai.

Ola edo forjei erreparatuz gero, konturatuko gara “ola” berbaz gain, makinaren hainbat tresna, ingurua, eraikinaren ezaugarriak eta abar agertzen direla:

- **Olazarraga:** ola, zahar eta –aga atzizkiaz eratutako izena. Ola zaharra esan gura du, eta –aga atzizkiak ugaritasuna adierazten du, batez ere bat baino gehiago bazeuden.
- **Mendiola:** mendiko ola esan gura du, ez dakigu baina ola izan zen.

Edozelan ere, ola berbak, toponimia zaharrean bereziki, sarioa edo korta esangura zuen. Horrela, maiz ola berba fitonimo (landare izen), batez lagundurik topatzen dugu edo basoaren ezaugarri izan daitezkeen izenez:

- **Olakorta:** ola eta korta berbez konposatutako izena, izen bikoiztua da, ola eta korta esangura bereko berba biz konposatua.
- **Askola:** aska eta ola berbez konposatutako izena.

- **Lupiolaerreka:** lupi, ola eta erreka berbez eratorritako izena. Erreka ere ola lez saroia edo korta adierazteko ere erabili izan da eta oronimian, ez hidronimian, asko topatzen dugu.

Irina egiten zen errotei dagokienez, gaur egun errota berba oso zabaldurik badago ere, gutxitan ageri zaigu oikonimo zaharretan: Etxebarrikoerrota (**Etxebarrrikorta**). Jatorri euskaldunagoa izanik ere, badirudi Bizkaian ohikoagoa izan dela “bolua” berba erabiltzea, latinezko *molinum* berbatik mailegatua.

Baserri multzoak: izen bereko baserriak bereizteko sistemak

Goiko/beko, goitia/beitia, gañekoa/azpikoa, barrena/goena, beaskoa/goxeaskoa, atzekoa/aurrekoa/erdikoa bezalako taldeak ugari ditugu. Inguru bereko bi baserri bereizteko erabiltzen diren berbak dira. Goiko/goiti eta beko/beiti aldaeren artean goitia/beitia edo barrena dira formarik zaharrenak. Eta horrela ikusten dugu **Aranbarrena** eta **Arangoitia** baserri izenetan, zeina XVI. mendetik ondo dokumentatuta ikusten ditugunak.

Gernika-Lumoko toponimian badirudi gainera, bekoa edo beitia baino barrena berba sarriago erabili izan dela, horren erakusle dugu **Barrenkalebarrena** edo **Barrenengoa** bezalako toponimoak.

Dondizbekoa baserri-izena, esate baterako, 1745eko sutegetan *Dondiz beitia* formaz jaso zen, baina 1796koetan *Dondiz becoa*.

Beaskoa eta goxeaskoa ere nahiko erabiliak izan dira, XVIII. mendetik: **Arribaltzaga-beaskoa/Arribaltzagagoxeaskoa**.

Zar/etxebarria, barria etxe bikoteetan ere, baserri berria eraiki eta bata zaharra eta bestea berria dela adierazteko –zar amaiera edo barria edota etxebarria berba eransten zaio izenari: **Madurazar** eta **Maduraetxebarria** esate baterako.

Nagusia, andikoa, andikoetxe eta -txu atzizki txikigarria. 1745eko sutegetan Amillaga izeneko baserri bat baino gehiago jasotzen dira, eta baten *Amillaga andicoa* forma-ekin dokumentatzen da, hau da, batzuen arabera nagusia dela adierazi gura da eta beste batzuen aburuz harago dagoen baserria dela.

Baserri multzo batean nagusia eta bestea, normalean txikia, bereizteko Gernika-Lumon –txu atzizki txikigarria erabiltzen duten adibideak ezagunak ditugu: **Allezillatxu, Zearetatxu, Zallobietatxu**.

Exonimoak (kanpoko izenak)

Gernika-Lumoko baserri bik, erdal jatorrizko izena dute: **Billarkaio (Villarcayo)** eta **Alegria**. Biak ere baserri zaharrak dira.

Garaian garaiko modei erantzuten die kanpoko erdal izenen erabilera, bereziki gaztelerazko izenak zuten itxurazko prestigioa zela eta. Ugariak dira Bizkaiko udalerri euskaldunetako oikonimian Altamira, Peñas edota Villaverde bezalako erdal etimologiadun izen zaharrak aurkitzea.

Inguruko toponimoren bat hartu duten etxe-izenak

Jatorrian, eta baserri zaharrek batez ere, inguruko toponimoak hartu ohi dituzte izen: **Bastegieta, Amillaga, Amunaga,**

ORONIMIA: MENDI ETA BASO INGURUKO IZENAK

Oronimoak edo baso inguruko toponimoak dira oro har gehien galdu diren toponimoak. Bizitza modu aldaketek batez ere eragin dute galera hau. Baserri mundutik kalera joan dira herritarrak, eta mendi eta basoak ez dituzte ezagutzen, lursailak ez dituzte landatzen eta baserri giroa aldatu egin da zeharo.

Gainera oso informazio interesgarria ematen digute, bereziki biologiaren ikuspegitik, izan ere sarritan oronimoak fitonimoez, landare izenez, osatuak daude eta. Nahiz eta gaur egun gure mendi eta zelaia pinuz josita egon, ez dira pinuak berezko landareak eta garai batean beste zuhaitz mota batzuk ziren ohikoagoak gure lur eta inguruetan. Gernika-Lumoko toponimiak argi erakusten digu hori:

Gaztañadiak: **Amaikagastañeta, Gastañatxueta, Gastañazabal**

Haritzak: **Mendiaretxeta, Arestigartueta**

Arteak: **Arteagazelai**

Ezkiak: **Ezkileku**

Pikuak: **Ikoaga**

Intxaurreak: **Intxaurreta**

Gerizondoak: **Kerixeta**

Madariandoak: **Madariaga**

Mahastiak: **Mastegizarra**

Sagastiak: **Matusagasti**

Okaranak: **Okaranaga**

Pagoak: **Pagoaga**

Oronimo asko –eta edo –aga atzizkiez osatuak daude sarritan. Toponimiari dagokionez biek ugaritasuna zein lekua adierazten dute. Gehienetan fitonimo batez, landare-izen batez, lagundurik joan ohi dira; baina ez beti, bestelako izenekin ere lagundurik joaten dira eta.

Zenbaitetan –eta edo –aga atzizkia beranduago ageri da eta baserri-multzoetako izenei gehitzen zaie. Askok dira atzizki horiek daramatzaten baserri-izenak ere: **Bastegieta** esate baterako. Aipatutako –aga atzizkia lehenengoa baino zaharragoa da eta beraz, –aga amaieradun toponimoak oso zaharrak izaten dira oro har.

Bestalde, –tegi atzizkiak ere multzoa esan gura du eta erabili egiten dira: **Epertegi** esate baterako, eper lekua esan gura du.

KALE-IZENDEGIA

Ikerketa amaitu eta gero, kale-izen-degi osoa berrikustea erabaki du Udalak, eta 2010eko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran, Euskaltzaindiaren irizpenetan oinarrituta, euskarazko idazkera zuzena eta arautua onartu zuen kasu batzuetarako. Hona hemen, Eus-

kaltzaindiak emandako irizpideei jarraituz, aldaketak ulertzeko eta erabilera zuzena zein den argitzeko azalpen batzuk:

1- Kale edo bidearen izena toponimo zaharra denean. Toponimoaren etimologia, hau da esangura nondik datorren, historian izan duen bilakaera eta abar kontuan hartu dira, eta horietan oinarrituta idatzizko forma arautua zehaztu da. Betiere, Euskaltzaindiak emandako irizpideak errespetatuz. Horrelako askoren azalpen eta argibideak liburuxkan bertan azaltzen saiatu gara. Gehienetan, ahoz esaten diren modu berean idatzi izan dira izen horiek orain arte; beste batzuetan, ostera, guztiz desitxuratuta egon dira.

2- Bideak. Bide berba toponimoari lotuta idatziko da bidearen helmuga bakarrik adierazten dugunean, hau da bideak nora eramaten gaituen adierazten du: **Iparragirrebidea, Kosnoagabidea, Bastegietabidea, Baldatikabidea, Elorrietabidea, Metxikabidea, Errigoitibidea, Mendiolabidea, Mikienabidea, Tramabidea, Izagirrebidea.** Horrelakoa da-eta euskal tradizioa, eta horretan oinarrituta irizpide argia dauka Euskaltzaindiak.

3- Pertsona izenak. Euskal izen-deiturak euskarazko grafiarekin eman dira. Adibidez: Karmelo Etxegarai. Erdal izen-deiturak berriz, dagokien grafiarekin: Juan Calzada, Aita Luis Villasante, esate baterako.

4- Pertsona izenen ostean izen laguna ageri denean (lanbidea, etb.) "noren" kasuaren bidez lotuko zaio atzean datorren generikoari. Adb.: Eugenia Idoiaga Emaginaren kalea.

5- Kale-izendegia egokitzea erabaki zenez, hona hemen Udalbatzaren aipatu erabakia eta kasu bakoitzaren arrazoibidea:

Gaur egungo izen batzuk	Euskaltzaindiaren proposamena	Euskara Batzordearen proposamena (Udalbatzak onartua)
<i>Alhondiga kalea</i>	<i>Alondegia kalea</i>	<i>Alondegia kalea</i>
<i>Barrenkale Barrena</i>	<i>Barrenkalebarrena (-a)</i>	<i>Barrenkalebarrena (-a)</i>
<i>Betanzos gotzaia plaza</i>	<i>Betanzos Gotzainaren plaza</i>	<i>Betanzos Gotzainaren plaza</i>
<i>(1) Don Tello kalea</i>	<i>Jaun Tellu kalea</i>	<i>Don Tello kalea</i>
<i>Erreka egala</i>	<i>Errekaegala</i>	<i>Errekaegala</i>
<i>Eugenia Idoiaga "emagina" kalea</i>	<i>Eugenia Idoiaga Emaginaren kalea</i>	<i>Eugenia Idoiaga Emaginaren kalea</i>
<i>Fray Martin de Murua kalea</i>	<i>Frai Martin Murua kalea</i>	<i>Frai Martin Murua kalea</i>
<i>Loizaga kalea</i>	<i>Loitzaga kalea</i>	<i>Loitzaga kalea</i>
<i>Ocho de Enero kalea</i>	<i>Urtarrilaren Zortzia kalea</i>	<i>Ocho de Enero kalea</i>
<i>Pedro Elejalde kalea</i>	<i>Pedro Elexalde kalea</i>	<i>Pedro Elejalde kalea</i>

Euskara Batzordeak Udalbatzari aurkeztutako proposamenari buruz adierazitako argudio batzuk:

- (1) *Don Tello kalea.*- “Jaun Tellu” jartzea ez da aintzat hartzen, izenak daukan jatorria erromantzezkoa delako eta pertsonaia bera ere ez delako euskal jatorrikoa.
- *Pedro Elejalde kalea.*- “Pedro Elexalde” jartzea ez da ontzat eman, pertsonaia baten izena izanik, berak erabilitako idazkera errespetatzearren.
- *Ocho de enero kalea.*- Eztabaidatu egin da eta dagoenean uztea erabaki da, euskara-zko testuinguruan txertatuta dagoelako “ochodenero kalea” eta ez delako oztopo euskararen erabilerarako; gainera, kaleko jendearentzat “urtarrilaren zortzia kalea” jartzea arrotz egingo litzaiokeelakoan daude batzarkideak.

Beraz, indarrean dagoen kale-izendegia hauxe dugu (hurrenkera alfabetikoz):

Adolfo Urioste kalea	Errenteria auzoa
Agirre plaza	Esteban de Zabala Kalea
Agirreburu kalea	Eugenia Idoiaga Emaginaren kalea
Agirregana auzunea	Euskal Herria kalea
Aita Luis Villasante kalea	Fernando Abaunza kalea
Aldape kalea	Foru plaza
Alondogia kalea	Frai Martin Murua kalea
Allendesalazar etorbidea	Galtzada
Allendesalazar kalea	Geltoki plaza
Amaiur kalea	Gipuzkoa kalea
Amunaga industrialdea	Goienkalea
Andra Maria kalea	Goikoibarra kalea
Araba kalea	Ibarra kalea
Arana auzoa	Industria kalea
Artekalea	Iñigo Lopez de Haro kalea
Askatasuna kalea	Iparragirre kalea
Azokakalea	Iturburu kalea
Barrenkalebarrena	Ituriondo kalea
Barrenkalea	Ituriondo plaza
Bekoibarra kalea	Jose Antonio Agirre
Betanzos Gotzainaren plaza	Lehendakariaren plaza
Bizkaia Kalea	Juan Calzada kalea
Carlos Gangoiti kalea	Kalekotxu
Ciutat de Berga kalea	Karmelo Etxegarai kalea
Domingo Alegria plaza	Kortezubi bidea
Domingo Bernaola kalea	Lapurdi kalea
Don Tello kalea	Loitzaga kalea
Elai-Alai plaza	Lorategieta auzunea
Elbira Iturri kalea	Lurgorri kalea
Enrique Amurrio kalea	Maloste plaza
Eriabarrena kalea	Marijesiak plaza
Eriako lorategia	Mertzede kalea
Errekaegala	Mestikabaso kalea
Errekazarra kalea	Miguel de Unamuno kalea

Nafarroa kalea	Santa Klara kalea
Nafarroa Behera kalea	Santa Luzia parkea
Nere kabia kalea	Saraspe plaza
Ocho de enero kalea	Seber Altube auditorioa
Pablo Picasso kalea	Txaporta auzoa
Pasealekua	Txorraburu kalea
Pedro Elejalde kalea	Ubitarte kalea
Portu Kalea	Uharte kalea
Portuzarra (errekaegala...)	Urkieta kalea
San Bartolome kalea	Urrengoerrota kalea
San Jose auzunea	Zallo auzoa
San Juan Ibarra	Zearreta auzoa
San Juan kalea	Zearreta kalea
San Kristobal plaza	Zuberoa kalea
San Pedro auzoa	Zubialde kalea
San Roke kalea	Zubigorri kalea
Santa Ana auzoa	

TOPONIMIA MAPAN ZUZENDU BEHARREKOAK

2007an Euskara Sailak argitaratu zuen toponimia mapa honako liburuxka hornitzeko ere erabili dugu, atzealdeko azalari lotuta. Ordutik gaur arte ikertutako toponimo zerrendan, baina, aldaketak egon dira eta badaude izen batzuk mapan modu batean arautu eta gerora aldatu ditugunak. Hona hemen zerrenda:

2007ko toponimia mapan zelan	Toponimia liburuan zuzenduta
Aranaibarra	Aranaibarrak
Argenazpi	Arganazpi
Arotzena	Arotzaena
Done Petri Eleiza (San Pedro)	Done Petri Apostolua (San Pedro)
Etxebarria	Etxebarri
Gauria	Gauriaga
Ibaigane	Ibaigana
Madurazarra	Madurazar
Marijesiak	Marijesien parkea
Marikoerrota	Maduraerrota
Monasterio bekoa	Monasteriobekoa
Pilotalekua	Jai Alai
Sagastietxebarri (Alargunena)	Sagastietxe (Alargunena)
Tranpilloena	Tranpioena
Txorroburu	Txorraburu
Urramendiko etxetxu	Urramendikoetxetxu

**Leku-izenak
banan-banan**

A

Abadetxea (-a) (baserria, sesagertua)

Ahoz: *Abadetzie*

Auzoa: Lumo

“Abade” eta “etxea” berbez konposatutako toponimoa. Abadearen etxea esan gura du eta izen generiko lez ere erabiltzen da ahoz, abadea bizi den etxea izendatzeko.

Lumoko plazaren beheko aldean zegoen etxeari esaten zitzaion Abadetxea, desagertu egin da. Izena arrunt eta ezaguna bada ere ez da uste bezain “arrunta” gutxi baitira egitura hau duten etxe izenak, lanbidea+etxe, arrunteena Abadena modukoak baitira. Dokumentazioan erdaraz agertzen zaigu.

Dokumentazioa:

La casa cural (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Abaliz (baserria eta auzoa)

Ahoz: *Abalis*

Auzoa: Lumo

Mitxelenak Abariz edo Abalia izenak aipatzen ditu Apellidos Vascos izeneko lanean Abaliz toponimoaren azpian. Bertan Larramendiren hiztegian jasotako esangura jasotzen du, arte txikia, (*Quercus ilex*) landare izenaren sinonimoa ei da. Amaierako -iz atzizkiak esangura ugari dituen arren, badirudi hemen ugaritasuna esan gura duela, -eta edo -aga atzizkien parean.

Izen bereko auzoan dago baserria, eta dokumentazioak argi uzten digu XVII. mendekoa edo aurretik bazela bertan izen hori zuen etxea, gaur egungoa, jakina, berriztatua da.

Abaliz baserri multzoa dagoen auzuneari ere Abaliz esaten zaio.

Dokumentazioa (baserria):

Abaliz (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
 Abaliz (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
 Abaliz, otra (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
 Abaliz (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
 Abáliz (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.
 Abaliz (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
 Abaliz (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Dokumentazioa (auzoa):

Abaliz (1999) Historia de Lumo, 15.

Abalizbidea (-a) (bidea)

Ahoz: *Abalisbidie*

Auzoa: Zallo eta Lumo

“Bidea” berba generikoa daramaten hitzak, tradiziozko euskal toponimian, lehenengo elementuari lotuta idatzi dira. Lehenengo elementua maiz, bidearen norabidea markatzen duen beste toponimo bat izan ohi da.

Lumotik Abaliz baserrira doan bideak izen hori hartzen du 1923ko Bizkaiko Foru Aldundiak egindako kartografia zahar batean. Izen hau ez da ofiziala gaur egun.

Dokumentazioa:

Abaliz, C° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Abalizburua (-a) (mendia)

Ahoz: *Abalisburue*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: Amillagako tontorra (-a), Amillagako mendia (-a), Amillaga

Izen bi daude leku bera izendatzeko: Abalizburua eta Amillagako tontorra. Biak ere erabiltzen dituzte normaltasunez gernikarrek eta lumotarrek, erabat normalduak daude erabileran.

Ik. Abaliz toponimoaz esandakoa.

Zallo auzo gainean dagoen tontorra da.

Dokumentazioa:

Amillaga (1999) Historia de Lumo, 18.

Abalizburua (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Adolfo Urioste (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: Andra Mariaren aldapa, Cuesta de Santa Maria, Ospitalekale

Ahoz herritarrek Cuesta de Santa Maria edo Andra Mariaren aldapa izenaz ere ezagutzen dute gaur egun, eta dirudienez XIX. mendean Ospitalekale esaten zioten 1648az geroztik bertan zegoen ospitalea zela eta. Ospitalekale eta Ocho de Enero kaleak batu eta Adolfo Urioste izena eman zioten kale guztiari.



Adolfo Urioste eta Viterik (1838), jaio-tzez bilbotarra, negozioak zeuzkan Kaliforniako San Frantziskon. Juan Calzadaren lagun mina zen eta bien artean sortu zuten Calzada zaharren egoitza.

Allende Salazar kalean hasi eta Iparragirre eta Don Tello kaleak batzen diren bidegurutzean amaitzen da.

Forma osoa generikoarekin: Adolfo Urioste kalea.

Aduberia (-a) (basoa)

Ahoz: *Aduberixe*

Auzoa: Lumo

Izen iluna etimologiari dagokionez. Amaierako -eria atzizkia etimologia erromantzeduna dirudi, eta ondorioz ez dirudi euskal toponimoa denik.

1923ko Bizkaiko Kartografia historikoan ageri den oronimoa da. Errigoitiko mugan, Altamira baserritik gertu dago, mapa haren arabera.

Dokumentazioa:

Aduberia (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Agirre (plaza eta antzinako baserria)

Ahoz: *Agarre*

Auzoa: Gernika-Lumo

Agirre plazak antzina inguru horretan zegoen Agirre baserritik hartu zuen izena. Baserri hori 1704ko fogeraioen ostean ageri da zerrendetan.

Agirre plazaren eta Agirreburu kalearen inguruari Agirregana esaten diote. Agirre eta gana berbez konposatutako toponimoa da eta auzoa izendatzeko erabiltzen da.



Agirreburu (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Agirreburu leku-izena San Jose auzuneko atzealdea izendatzeko erabilia izan da dokumentazioan. Leku-izen horren esangura Agirre baserriaren goialdea da. Agirre baserria desagertua badago ere, gaur egun inguruko plaza eta kaleak izenak gorde dituzte.

Udalbatzak 2005eko azaroaren 29an eman zion izena kaleari.

Ik. Agirre toponimoa.



Agirregana (-a) (auzoa)

Ahoz: *Agarregane*

Auzoa: Gernika-Lumo

Agirre eta gana berbez konposatutako toponimoa da eta auzoa izendatzeko erabiltzen da. Agirre izena desagertutako baserri izenetik dator.



Ik. Agirre leku-izena.

Aguakorriente ik. Zearreta

Aita Luis Villasante (kalea)

Auzoa: Erretereria

Aita Luis Villasante Kortabitarte (Gernika, 1920 - Oñati, 2000), Arantzazuko frantziskotarra zen eta Arantzazu izan zuen bere atsedenleku eta lantegi nagusi, irakasle eta maisu lan oparoa eskainiz. Han piztu zitzaion euskararekiko maitasuna, 1952an Euskaltzain oso izatera eraman zuena.

Euskaltzaindiak, Euskaltzainburu 1970ean izendatu eta kargu horretan iraun zuen 1988ra arte. Etapa horretan burutu zituen Euskaltzaindiak lanik zailen eta oparoenak: batetik, euskararen batasunerako oinarriak finkatu eta “euskara batua” sortu, eta, bestetik, Euskaltzaindia bera eraberritzea. Eginkizun bi horietarako, aitzindari eta lemazain izan zen Aita Luis Villasante. Idazle oparoa izan zen, bai euskal gramatika eta literaturari lotutako gaietan zein erlijioaren ingurukoetan.

1992. urtean Gernika-Lumoko Udalak Seme Kuttun izendatu zuen.

Arratzutik Gernika-Lumora sartzeko bideak eramaten du Aita Luis Villasante kalera, Lora-tegieta izeneko auzunearen paretik pasatzen da, bai eta Lora-tegieta izeneko baserriaren paretik ere.

Aizerrota ik. Kosnoaga

Akurio ik. Akurioena

Akurioena (-a) (baserria)

Ahoz: Akuyo, Akuyone,

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: Akurio, Pedroena (-a)

Dokumentu zaharrenetan Akurio izenaz ageri da (XVIII. mendean), gerora -ena atzizkia gehitu zitzaion, 1923an dokumentatzen da lehenengoz. Atzizki honek jabetasuna adierazten du eta mendebaldean baserri izenetan ageri da nagusiki, gehienetan deitura baten atzetik. Kasu honetan gerora gehitu izan da, etxe izena dela adierazteko-edo. Muruetako baserria den Akurio euskal izen zaharra, Mitxelena berak 932ko dokumentu batean jaso zuen.

Gaur egun Pedrone (Pedroena) izenarekin ezagutzen da, seguru antzean jaberaren baten izenagatik.

Baliteke beste izen batekin ere ezaguna izatea, izan ere 1739 eta 1748 urteetako dokumentuetan jasota dagoen arren, ez da mende hartan egin ziren fogerazioetan ageri, ez behintzat izen horrekin.

Ahoz Akuyene esaten zaio, bokal arteko <r> kontsonantea desagertzen da eta tartean yod soinua sartu da, inguru honetako euskaraz egiten den lez.

Zallo auzoko baserria, Santa Luzia ermita inguruan zegoen.

Dokumentazioa:

Acurio (1739) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 0311/001.
 Acurio (1748) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 1111/002.
 Akuriyena (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
 Akuriyone (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
 Akiuene (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.

Akuyo (ah.) ik. Akurioena

Alargunena (-a) ik. Sagastietxe

Albiz (etxea) (etxea, desagertua)

Auzoa: Gernika-Lumo

Seguru antzean jabearen edo bizilagunen baten deituratik datorkio izena. Albiz abizenaren jatorria ez da Gernika-Lumokoa, bai, ordea, bizkaitarra, Ibarangelu eta Mendatakoa.

Arte kale kalean zegoen etxea, erdialde inguruan. Hormetan gabarrak lotzeko txingetak zituen.

Aldabe (belardia)

Ahoz: Aldabe

Auzoa: kokatu gabe.

Aldabe berbak babestutako lekua esan gura du, etxe baten ondoko landa ere. Beraz belardi hau izendatzeko berba egokia erabili da. Aldabe berba batez ere toponimian erabiltzen da.

Aldape (kalea, dorretxea eta desagertutako baserria)

Auzoa: Gernika-Lumo, baserria (Lumo)

Beste izen batzuk: Travesía de San Juan, Ibarra (-a)

Kalea

Desagertutako baserri baten izenetik datorkio izena kale honi. Aldape, “alde” eta “pe” berbez konposatutako izena da. Aldekoa edo Aldaieta bezalako toponimoetan ageri den hitz berbera, behean esan gura duen atzizkia erantsi zaiolarik. Aldatsaren azpian, herrigunearen azpian esan gura du toponimo honek.

Garai batean inguru honi guzti honi Ibarra esaten zitzaion, gerora Goiko Ibarra eta Beko Ibarra bereizi baziren ere. 60ko hamarkadan Travesía de San Juan izena ere hartu zuen.

Gaur egungo Aldape izena hur zegoen dorretxe baten izenetik datorkio. Izen bereko baserria zegoen Lumon, maiz kaleko etxeek baserriaren izena hartzen zuten, jabe berak zirenean.



Errekaren ezkerreko ertzetik doan kalea da.

Baserria

Desagertutako baserria da, Lumoko Zearreta eta Arana auzoen artean ei zegoen. XVII. mendekoa edo lehenagokoa izango zen; izan ere, 1704an dokumentatuta ageri da.

Dokumentazioa (baserria):

- Aldape (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Aldape (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Aldape (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Aldape (Arana) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Aldarra (-a) (etxea)

Ahoz: Aldarra

Auzoa: Lumo

“Aldar” berbak esangura bat baino gehiago du, baina seguru antzean etxea dagoen alda-pagatik izango du izena; izan ere, “aldar” berbak aldapan inklinaturik esangura du.

Lumoko etxea, ur-biltegiaren ondoan dago.

Alegria (-a) (baserria eta jauregia)

Ahoz: Alegri jauregixe

Auzoa: Gernika-Lumo eta Lumo

Oso ohikoa da Alegria izena oikonimian erabiltzea, eta berez izena erromantze jatorrikoa bada ere, euskaraz oso erabilia izan da etxe-izenetan. Zenbait zonaldetan izenaren ahoskeran muta cum liquida kontsonante taldea apurtu ohi da eta Aligiri bezalako ahoskerak topatzen ditugu, izan ere euskaraz <r>-dun kontsonante taldea ahoskatzea gaitza da, eta ingeles ingelesa esaten dugun lez, edo azukrea azukerea, Alegria, Aligiri esaten dugu euskaldunok.

Batetik, Lumoko baserri izena dugu Alegria; bestetik, Allendesalazar kalean zegoen jau-regi baten izena da, XVIII. mendean hondatu zena. Gaur egun Allendesalazar familiaren armaria duen eraikin bera da.

Dokumentazioa (baserria):

- Alegria (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Alegria (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Alegria (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Alegria (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Alegria (1930) Voces Toponomasticas Vascas, Euskal Esnalea, 20 (1930), 155.
- Alegria (1999) Historia de Lumo, 15.
- Alegria (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Alesille (ah.) ik. Allezilla

Alhondiga ik. Alondegia

Allendesalazar (kalea)

Ahoz: Allendesalazar

Auzoa: Gernika-Lumo

Angel Allendesalazar Lumon jai ozen 1854ko irailaren 24an. Biblioteca del Vascófilo liburu entzutetsuaren egilea izan zen, eta Gernika eta Lumo bat egiteko ekimenaren buru.

Hegoaldean Karmelo Etxegarai kalearekin eta iparraldean Pedro de Elejalde kalearekin egiten du muga.

Allespiti (ah.) ik. Allezpeiti

Allezilla (baserria)

Ahoz: Alesille

Auzoa: Gernika-Lumo

Etimoa ezezaguna da. Dagoeneko izen bereko etxea dokumentatzen da 1704ko fogera-zioetan. Ahoz Alesille esaten zaion arren, amaierako -a > -e bihurtzen da deklinatzean erabiltzen den <e> bokal epentetikoaren eraginez, beste izen batzuetan gertatzen den lez.

Toponimo iluna da, erdal itxurakoa bada ere, ez dirudi erdal etimoduna denik.

Arana auzoko etxea, Gernikara BI-635 errepidetik sartzerakoan ezkerreko aldean dago.

Dokumentazioa:

Allezilla (1704) Bizkaiko Fogera-zioak.

Ailajira (sic. Allezille) (1745) Bizkaiko Fogera-zioak.

Allazilla (1796) Bizkaiko Fogera-zioak.

Allezillatxu (baserria, desagertua)

Ahoz: Alesilletxu

Auzoa: Gernika-Lumo

Allezilla baserriaren beste eraikinen bat izango zela pentsatzen dugu, 1704 eta 1796ko sute-gietan hala dokumentatzen delako (1704, Allezilla, otra dio eta 1796koan Allazillachu dio).

Bi etheen multzoetan, bata nagusia eta bestea txikia izan ohi da, eta -txu atzizkia maiz erabiltzen da halakoetan Zallobietatxu edo Zearretatxu bezalako toponimoetan bezalaxe.

Dokumentazioa:

Allezilla, otra (1704) Bizkaiko Fogera-zioak.

Allazillachu (1796) Bizkaiko Fogera-zioak.

Allezpeiti (baserria)

Ahoz: Allespiti

Allezilla baserria dagoela gogoan hartuta, etimo bera izan dezaketela pentsa daiteke. Bestalde Elexpeiti jasotzen da dokumentazioan eta zerikusia izan dezakete. Ahoz Allespiti esaten zaio, bokal elkarketa murrizten delarik.

Baliteke Allezillatxu izenarekin dokumentatutako berbera izatea.

Alondegia (-a) (kalea)

Ahoz: Lalondiga

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: Cuesta del Matadero

Ahoz jaso den La erdarazko artikulua da. Euskara zein erdarazko forma neutroagoa da artikulua bakoa. Dirudienez, inoiz ofiziala izan ez bada ere, Cuesta del Matadero izenaz ere ezaguna da kale hau.

Alhondiga erdal izena erabilia izan bada ere, Euskaltzaindiaren irizpenei jarraiturik Udalbatzak 2010eko ekainaren 30ean euskarara egokitu zuen izendapen ofiziala, gaur egun beraz, Alondegia da izendapen ofiziala. Euskal zein erdal hitzak arabierazko al-fondaq hitzetik datoz. Alondegiak udaleran biltegiak ziren nahiz eta gaztelan batez ere garia biltzeko erabili gurean ardoa batzen zen. Garai batean ardoaren gaineko zerga zen udalaren diru iturririk garrantzitsuenak.

Izenaren jatorria kale hartan bertan zegoen ardoa, likoreak, garia eta bestelako jatekoak sal-erosteko eta biltzeko eraikina.

Juan Calzada kalean hasi eta Iparragirre kalera jaisten den kalea da.

Altamira (baserria)

Auzoa: Lumo

Altamira berba jatorri erromantzekoa bada ere, euskal toponimian oso erabilia izan da, eta etxe izenetan ere. Izenak berak adierazten duenez goitik ikusten duena esan gura du eta izen hau duten lekuetatik benetan ikuspegi onak izan ohi dira.

Garai batean ohikoa izaten zen erromantzezko izenak jartzea baserriei: Alegria, Billarkaio bezalako toponimoak horren erakusle dira.

Lumotik Errigoitirako bidean dagoen azken baserria, bidean eskumatarra.

Dokumentazioa:

Altamira (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Amaiur (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Gernika-Lumoko Udalbatzak Amaiur herriaren gainean honako erabakia hartu zuen 2008ko azaroaren 26an:

“...duela 500 urte Amaiurko gazteluan Nafarroaren independentziaren alde bere bizitza eman zutenen kemena gogoan bat egiten du 1512ko konkistaren bostehun urte bete direnean izango diren ekimenekin.”

Aipatu mozioa oinarri eta Amaiurko jazoera haiek Euskal Herriaren historian izan zuen garrantzia kontuan hartuta, kale berri bati Amaiur izena jartzea erabaki zuen.

Mertzedekaleko barrualdean hasi eta Kortezubi bideraino doa kale hau.

Amazpebekoa (-a) (baserria)

Ahoz: Amaspebekoa

Auzoa: Lumo

Amazpe eta bekoa (behekoa) berben elkarketatik sortutako izena. Goikoa goian dagoelako, goraxeago Amazpegoikoa baserria topatzen dugu. Etimo ezezaguna da edozelan ere.

Lumoko baserria, bi dira baserri multzoa osatzen duten etxeak: Amazpegoikoa eta Amazpebekoa.

Amazpegoikoa (-a) (baserria)

Ahoz: Amaspegoikoa

Auzoa: Lumo

Amazpe eta goikoa berben elkarketatik sortutako izena. Goikoa goian dagoelako, beheaxeago Amazpebekoa baserria topatzen dugu. Etimo ezezaguna da edozelan ere.

Lumoko baserria, bi dira baserri multzoa osatzen duten etxeak: Amazpegoikoa eta Amazpebekoa.

Amilla (ah.) ik. Amillaga

Amillaga (baserria)

Ahoz: Amilla

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: Amillagandikoa (-a), Amillagaerdikoa (-a)

Jatorrizko izen osoa Amillaga da, ahoz amaierako -aga atzizkia ez da ahoskatzen, Amilla esaten zaio; baina idatziz berreskuratu egin da. Amillaga Gernika-Lumoko toponimo zaharretakoa da, eta jatorrian inguru hori izendatzeko sortu zen, ondoren hartu zuen izena baserriak, garai zaharretan ohikoa zen lez.

Amillaga berbak amildegi esan gura du, ingurua bera ederto deskribatzen duen toponimoa da beraz.

Amillaga tontorra eta Done Martie (San Martin) ermitaren artean dagoen baserri zaharra. Gaur egun baserri bakarra badago ere, XVIII. mendeko fogerazioetan izen bereko baserri bat baino gehiago ageri da, hori dela eta dokumentu zaharretan “erdikoa” edo “andikoa” berbez ageri dira dokumentatuta. Baserriak bereizteko erabiliko ziren aldaerok.

Dokumentazioa:

- Amillaga (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Amillaga (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Amillaga (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Amillaga andikoa (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Amillaga erdicoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Amillaga (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Amilla (1987) Ermitas de Bizkaia, 197.
- Amillaga (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Amillaga ik. Abalizburua

Amillagaerdikoa (-a) ik. Amillaga**Amillagako errekea (-a)** ik. Sakoneta**Amillagako mendia (-a)** ik. Abalizburua**Amillagako San Martin (Done Martie)** (ermita)

Ahoz: Amillako ermittie

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: Santa Eufemia

San Martini eskainitako ermita honen euskarazko adbokazioaren forma zuzena Done Martie da, modu arruntean San Martin esaten zaion arren. Ohi lez ermitaren izena bertoko toponimo batez laguntzen da, Amillaga kasu honetan, eta Amillagako San Martin ermita lez da ezaguna.

Toursko Done Martie (Sabaria, Panonia; gaur egun Szombathely, Hungaria, 316 – Candes-Saint-Martin, Frantzia, 397) kristauen artean jaiera handienetako izan duen santuetako bat da. Esaterako

Nafarroan parrokia gehien duen santua da. Soldadu zela Amiens hiriaren sarreran bere kaparen erdia hotzak jota zegoen eskale bati eman zion, Jesu Kristo bera zela jakin gabe, eta horrela agertzen da ikonografian. Soldadutza utzi eta gero. 370ean Toursko apezpiku izendatu zuten. Hil ostean fama handia hartu zuen egindako mirariengatik.

Dirudienez ez da Done Martie izan duen adbokazio bakarra, Santa Eufemia adbokazioaz ere ezaguna izan da-eta.

Dokumentazioa:

Ermita (S. Martin) (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Amillaga (1987) Ermitas de Bizkaia, 197.

Santa Eufemia (1987) Ermitas de Bizkaia, 197.

San Martin (1987) Ermitas de Bizkaia, 197.

Amillaga (1999) Historia de Lumo, 15.

**Amillagako tontorra (-a)** ik. Abalizburua**Amillagandikoa (-a)** ik. Amillaga**Amona (ah.)** ik. Amunaga**Amonaiberre (ah.)** ik. Amunagaibarra

Amunaga (baserria, industrialdea)

Ahoz: Amona

Auzoa: Arana

Ahozko erabileran -a amaieradunari eutsi izanak -aga forma atzean dagoela adierazten du, eta dokumentazioak -aga horren berri ematen digu argi.

Amuna eta -aga ugaritasuna edo lekua adierazten duen atzizkiaz eratorritako toponimoa da. Mitxelena-ren ustez, Apellidos Vascos liburuan dioenaren arabera, “amuna” lehen elementua amaren edo aitaren ama esan gura du. Edozelan ere, amona berba ere marigorringoa izendatzeko erabili izan da, eta baliteke hortik etortzea izena, eta ondorioz esanguraren aldetik animalia horien ugaritasuna adieraztea, hau da, marigorringo asmo dagoen lekua.

Ahoz Amona esaten diote, amaierako -aga>-a sinplifikatu eta erdiko silabako bokala inguruko eraginez zabaldu egiten da.

Gernika-Lumotik Muxikarako bidean, muga dagoen baserria. Gaur egun inguruan dagoen industrialdeak hartu du baserri honen izena.

Dokumentazioa (baserria):

- Amunaga (1796) Bizkaiko Fogeraioak.
- Amúnaga (Arana) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Amona (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Amonaga (1999) Historia de Lumo, 18.
- Amunaga (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.

Amunagaerreka (erreka)

Ahoz: Amonaerrekie

Auzoa: Arana

Beste izen batzuk: Bekoerreka, Tramaerreka

Bitxia da, 1963an argitaratua, baina XX. mende hasieran Eleizalde Brenosak jasotako forma, eta Voces Toponomasticas Vascas izenburuko lanean argitaratu zuen aipua: “Tramaerreka (vulg. Tauberreka)”, hau da, vulg. laburduraren bidez herritarrek ahoz Tauberreka esaten ziotela adierazten du.

Bi izenetan ageri da baserri izena (Trama eta Amunaga) eta erreka izen generikoa. Normala da euskal hidronimian erreka pasatzen den inguruko baserri-izen bera ematea errekarri.

Muxika udalerriaren muga naturala da. Errekaren gorengo zatia Tamaerreka esaten diote eta behekoari, hain zuzen ere Amunaga baserri paretik pasatzen denari, Amunagaerreka.

Dokumentazioa:

- Amonaga, A° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Tanberreka (1963) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XIX, 3 (1963), 268.
- Trama-erreka (vulg. Tauberreka) (1963) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XIX, 3 (1963), 272.
- Amonaga (1999) Historia de Lumo, 16.
- Amunagaerreka (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Amunagaibarra (-a) (belardia)

Ahoz: Amonaiberre

Auzoa: Arana

Toponimo konposatuak elkarturik arautzen dira. Amunaga toponimoa, baserri-izena eta ibarra berbez konposatutako toponimoa da. Ibarra erreka ertzetako lekua da.

Amunagaerrekaren ondoko ibarrak dira.

Ik. Amunaga baserri izenaz esandakoa.

Amunagasolo (soroa)

Ahoz: Amonasolo

Auzoa: Lumo

Ohikoa da soro handiei eta baserri baten jabetzakoei baserriaren izena eta izen generikoa ematea.

Amunaga baserriko soroa, seguru antzean.

Ikus Amunaga baserri-izenari buruz esandakoa.

Andikoetxe (baserria)

Auzoa: Lumo (kokatu gabea)

Ermitas de Bizkaia (1987) lanean dokumentatu da izen hau. Baliteke izen honekin Madurazarra baserriari erreferentzia egitea. Deskripzioagatik Santa Luzia ermitatik hur egongo zen. Hala ez bada, Santa Luzia ermita ondoan egongo zen desagertutako baserri baten izena izango da, baina ez da izen horrekin besterik dokumentatzen,

Dokumentazioa:

Andikoetxe (1987) Ermitas de Biz-kaia, 198.

Andra Maria (eliza)

Ahoz: Andramarixe

Auzoa: Gernika-Lumo

Ohi lez, gehien dokumentatzen dena gazteleradun forma bada ere, herritarrek euskal formaz izendatzen dute, Andra Mari(x)e, Andra Maria alegia. Adbokazioaren izen osoa Andra Mariaren Zeruratzea da, erdaraz La Asunción de Nuestra Señora.

1418an hasi ziren eraikitzen, eta ordutik hainbat konponketa eta moldaketa izan ditu eliza honek.

Dokumentazioa:

Nuestra Señora de Guernica (1581) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 0152/107.

Iglesia de N^a S^a de Guernica (1717) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 0507/015.

Iglesia de N^a S^a de Guernica (1718) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 0507/016.

Andra Maria (La Asunción de Nuestra Señora) (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Andra Maria (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: Zearkalea (-a)

Andra Maria, Gernikako elizaren adbokazioari egiten dio erreferentzia. Kale honek gainerako beste kale batzuk zeharkatzen ditu hirigunean, eta hori dela-eta garai zaharretan Travesera gisa dokumentatzen da, hainbatean euskaldunek Zearkalea deituko zioten, inguru honetako beste hiri batzuetan erabili izan den lez.

Alde zaharrean Artelake eta Ocho de Enero kaleen perpendikular doan kalea da.

Andra Maria Sortzez Garbia ik. Santu Txireneak**Andra Mariaren aldapa** ik. Adolfo urioste**Antiguako Andra Maria** (ermita)

Auzoa: Lumo

Garai batean Antiguako Andra Maria izenaz ezaguna zen ermitan, 1832. urtera arte, udalletxerik ez zegoenez, Lumoko Elizateko bilerak egiten ziren eta batzar nagusiak ere. Gaur egun Juntetxeko eraikin multzoaren barruan dago ermita hau.

Andra Mariarekiko jaiera edo debozioa oso zaharra da Euskal Herrian eta, agian, Marirekin lotu behar dugu; ohikoa izan zen kristautasuna hedatzean lehenagoko sinesmen eta leku sakratuez baliatzea. Andra Maria Jesusen ama izateagatik kristaudentzat berebiziko garrantzia duen pertsonaia izan da hasieratik eta beregana jo da laguntza eske. Gainerako gizakiak ez bezala, ez zen hil, Zerura jaso baizik.

Sarritan, debozioa handitzean, populazioa lekuz aldatzean edo jendearengana hurbiltzeko asmoz, Andra Mariari eskainitako elizak lekuz aldatu ziren eta hori dela eta arrunta da Antzinako Andra Mari izeneko elizak aurkitzea Urduñatik Zumarragara, esaterako.

Euskaldunok Andra Maria erabili izan dugu eta horrela ageri da ezagutzen dugun lehengo euskal hitzen zerrendan XII. mendean: Deum uocant Urcia, Dei genitricem Andrea Maria (Jainkoa Urtzi deitzen dute eta jainkoaren ama Andrea Maria). Hain izan da izen ezagun eta erabilia eze Euskal Herriko hainbat lekutan ohikoa den erdaraz ere horrela deitzea, baina azken mendean erdarazko Santa Maria hasi da zabaltzen gurean ere.

Dokumentazioa:

Santa M^a de la Antigua (1717) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 0705/011.

Antigua (La) (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Nuestra Señora de la Antigua (1999) Historia de Lumo, 16.

Antxoka ik. Antxokena**Antxokena (-a)** (baserria)

Ahoz: Antxoka

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: Antxoka, Garratzena (-a), Garbatzene.

Antxoka pertsona-izena eta -ena jabetza atzizkiak eratorritako izena. Gaur egun Antxoka pertsona-izena ezaguna bada ere, etxe honen berri ematen diguten dokumentu zaharrek erakusten digute erabilia zela euskal izen hau dagoeneko XIX. mende amaieran gutxienez.

Euskal antroponimiaren (pertsona-izenak) berri maiz oikonimoei esker izaten dugu.

Baserri hau Garratzena izenaz ere eza-guna izan da. Besteak beste Garbatzene, Garratzene eta Garratzena izenak ere hartu ditu, bertan bizi zen Garratza ezizeneko jabearengatik.

Dokumentazioa:

Anchoqueta (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Antxokene (1922) Voces Toponomásticas Vascas, RIEV, XIII (1922), 422.

Garratzena (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Garratzena (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Araba (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

2006ko ekainaren 21ean Gernika-Lumoko Udalak Arana auzoko zenbait kaleri Euskal Herriko 7 probintzietako izenak ematea erabaki zuen etxebizitza sozialak egingo ziren gunean; horrela, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa kaleak ditugu inguru horretan. Euskaraz laua hitzetik Alaua sortu zen eta handik Alaba, erdaraz “geratu” zen izendapena. Geroago euskaraz Araba bihurtu zen eta XVI. mendeko Juan de Vitoriak hauxe dio bere idazki batean: Llananla los naturales Araba. Izenak, argi erakusten duenez, egungo Lautada bera izendatzen du.



Arana (-a) (biztanle entitate ofiziala eta baserria)

Ahoz: Arane

Auzoa: Lumo

Elleizalde Brenosak Voces Toponomásticas Vascas lanean, XX. mendean egindako bilketa-
ren emaitzan jaso zituen eta bertan Aane formaz dio: “forma vulgar de Arane; véase esta voz [Id. [caserío] de Luno (Bizk.)]”. Hau da, herritarrek Arane edo Aane esaten ziotela ahoz.

Edozelan ere, Arana da jatorrizko idatzizko forma zuzena. Gaur egun amaieran <a> boka-
laren orde <e> ahoskatzen da, baina, idazteko, ez da zuzena. Ahoskera horren jatorrian
deklinatzerakoan erabiltzen den <e> bokal epentetikoaren eragina dago eta ondorioz de-
klinabide sistemaren kaltetzearen eraginezko forma da. Amaieran <e> duten formak lehe-
nengo XIX. mende oso amaieran eta XX. mendean dokumentatzen dira batez ere.

<e> paragogiko deituriko fenomeno hau oso zabalduta dago Bizkaia mendebaldean, eta
Gernikatik ekialdera joz gero, orduan eta urriagoak dira kasuak, Lea-Artibain esate bate-
rako, euskara bizi-bizirik izan den inguru honetan, deklinabide kaltetzea ez da hain age-
rikoa izan eta hori dela eta fenomeno hau ez da ageri bertako toponimian.

Ohikoa da mendebaldeko euskalkian kontsonante + artikulua amaieradun toponimoetan amaierako a>e aldaketa. Aldaketa honen jatorria, deklinatze oker batetatik dator, izan ere amaierako -a artikulua izanik tokia adierazten duten deklinabide kasu markekin desagertu eta <e> bokale epentetikoa eraman ohi du: Araneko, Aranera, Aranetik. Horren ondorioz, Arane forma nominalizat hartu zuten hiztunek. Aldaketa hau zenbat eta Bizkai mendebaldeko, orduan eta sistematikoagoa da, hau da, euskara lehenago eta arinago galdu den eremuetan sarriago topatzen dugun fenomeno da.

Hortaz, gaur egungo ahoskera Arane (zenbaitetan Arene, asimilazioaren ondorioz) bada ere, forma idatzi zuzena Arana izan behar du. Edozelan ere, gogortu beharra dugu ablatibo kasuan, hau da non kasuan, hauxe dela deklinabide egokia: Aranean, eta ez Aranen.

Arana berbak bi mendi edo tontorren artean dagoen sakonunea esan gura du. Arana izen bereko auzoko baserri zaharra, 1704ko fogeraioetan dagoeneko dokumentatua.

Zornotzara eta Muxikara doan bidearen parean dago, muga. Azken auzoa da beraz. Arana izen bereko baserri izenetik datorkio izena.

Dokumentazioa (baserria):

- Arana (1704) Bizkaiko Fogeraioak.
- Arana (1745) Bizkaiko Fogeraioak.
- Arana (1796) Bizkaiko Fogeraioak.
- Arane (1922) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIII (1922), 426.
- Aane (1922) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIII (1922), 115.
- Arana (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Dokumentazioa (auzoa):

- Arana (1858) Bizkaiko Izendegia.
- Arana (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Arana (1922) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIII (1922), 426.
- Arana (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Arana (1960) Bizkaiko Izendegia.
- Arana (1999) Historia de Lumo, 15.
- Arana (1999) Historia de Lumo, 15.

Aranaerdikoa (-a) (baserria, desagertua)

Ahoz: Aranerdikoa

Auzoa: Arana

Arana baserri izena eta erdikoa, lekua adierazten duen postposizioaz konposatutako baserri-izena.

Aranaerdikoa izeneko baserria behin baino ez dugu dokumentatu, 1923ko Bizkaiko Foru Aldundiaren kartografia batean. Ez dakigu zehaztasunez zein izango ote zen, baliteke Aranbarrena izatea, edo Aranandi baserria, ez dakigu baina.

Ik. Arana leku-izena.

Dokumentazioa:

- Arane-erdikoa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Aranaetxebarri ik. Etxebarri

Aranaibarrak (-ak) (belardia)

Ahoz: Areniberrak

Auzoa: Arana

Arana eta ibarra (bega) berbez konposatutako toponimoa da. Jakina ibarra erbak ondoan duen Mikieneko erreka ureztatzen dituen lursailei egiten die erreferentzia. Arana baserri inguruko lursailei esaten zaie horrela, hain zuzen ere Mikieneko erreka urek ureztatzen duten lursailari.



Ik. Arana leku-izena.

Dokumentazioa:

Terreros Arana (1746) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 3466/003.

Terreros Arana (1746) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 1117/023.

Terreros Arana (1746) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 1460/006.

Aranandi (baserria)

Ahoz: Arandi

Auzoa: Arana

“Aran” (harana) eta “handi” berbez konposatutako etxe-izena. Ahoz Arandi ahoskatzen da, ohikoa da-eta jarraian dauden bi silaba berdin daudenean bat desagertzea.

Aranbarrena (-a) (baserria)

Ahoz: Arenbarrene

Auzoa: Arana

Arana eta barrena berbez osatutako baserri-izena da, hau da, Arana baino barrurago edo beherago zegoela adierazten du izenak, hain zuzen ere bidean aurrerago dago eta. Barrena postposizioa beste hainbat toponimotan topatzen dugu, Barrenkalebarrena kale-izenean esate baterako.



Arana auzo izen bereko baserri multzoko baserria da. Bi dira baserriak Aranbarrena eta Arangoitia, hain zuzen ere bikote dira goitia/barrena formak, goikoa/bekoa bikotearen sinonimoak.

Ik. Arana baserri-izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Aranbarrena (1704) Bizkaiko Fogeraioak.

Aran[a] barrena (1745) Bizkaiko Fogeraioak.

Aranbarrena (1796) Bizkaiko Fogeraioak.

Aranbarrene (1922) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIII (1922), 426.

Aranbarrena (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Arandi (ah.) ik. Aranandi

Arane (ah.) ik. Arana

Araneko iturria (-a) (iturria)

Ahoz: Araneko iturrixe

Auzoa: Arana

Arana auzoko iturria, Arana izen bereko baserriaren aurrean dago.

Ikus Arana izenaz esandakoa.

Arangoitia (-a) (baserria)

Ahoz: Arangoitti

Auzoa: Arana

Izenaren elementuak Aran(a), baserri eta auzo izena, amaierako artikulua galduta eta goitia lekua adierazten duen postposizioak ditugu. Hain zuzen ere, Arana baserria baino goratxoago dago eta.

Baserria zaharra delako testigantza izenak berak ematen digu, izan ere “goitia” aldaera, gerora “goiko” erabili izan dena, da forma zaharrena eta XV-XVI. mendeko baserrietan dokumentatzen da bereziki. Gainera, 1704ko baserrien erroldan (fogerazioetan) dokumentatzen da, eta beraz baserri zaharra dugu.

Dokumentazioa:

Arangoitia (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Aran[a] goitia (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Arangoitia (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Arangoiti (1922) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIII (1922), 427.

Arangoiti (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Arangoiti (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Arano (etxea)

Ahoz: Arrano etzie

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: Arrano etxea (-a)

Ahoz ere Arrano etxea esaten diote, hain zuzen ere bertan delako Arrano Elkartearen egoitza. Arano euskal abizen ezaguna da, Nafarroako herriaz gain izen hau duten etxeak Zestoan eta Getarian izan dira.

Arano etxea Juan Calzada kalean dago.

Arbesiena (-a) (baserria)

Ahoz: Arbesiene

Auzoa: Gernika-Lumo

Arbesi deitura eta -ena atzizkiaz eratorritako etxe-izena. -ena atzizkiak jabetza adierazten du eta etxe izenetan erabiltzen da, hau da, Arbesi deituriko baten jabetzako etxea. Ahoz -ena amaierak -ne edo -ene ahoskatzen dira, baina idatziz -ena behar dute.

Gernikatik Busturia eta Forurako bidean dagoen etxea.

Ardaoedateleku (mendi malda)

Ahoz: Ardauedateleku

Auzoa: Lumo

Mota honetako toponimoei Sutznamen deritze, hain zuzen ere konprimitutako esaldiak direlako. Ez dira ugariak mota honetako toponimoak, halere egon badaude euskaraz eta benetan bitxiak dira, berba bakar batean esaldi oso bat biltzen dute eta. Toponimo honen atzean ardoa edaten den lekua esaldia dago.

Arenbarrene (ah.) ik. Aranbarrena**Aretxigartueta** (basoa)

Auzoa: kokatu gabea

1780ko iskribu batean dokumentatutako baso-izena da. Hiru elementuz konposatutako izena da: haritz, igartu eta -eta atzizkia. Haritz ihartuak, sikuak, zeuden lekua esan gura du. Haritz berba maiz ageri zaigu toponimoetan, garai batean ugariak zirelako zuhaitz horiek gure basoetan. Mendebaldeko euskaraz “haretx” esaten zaio, eta toponimian <h> grafia-rik idazten ez denez gure inguruan ahoskatzen ez delako, ba “aretx” idazten da.

Polita da oronimoek, eta bereziki baso-izenek eman diezaguketen informazioa, bereziki garai batean zeuden zuhaitz-izenei buruzkoa. Gaur egun baso gehienak pinudiz josita daude, baina garai batean pinurik ez zegoenean, beste zuhaitz eta landara mota batzuk ziren ugariak Euskal Herriko basoetan, toponimo honek erakusten digun lez, haritzak besteak beste.

Ik. Sarreran baso-izenei buruz esandakoa.

Dokumentazioa:

Arecygartueta (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Arganaetxebarri (baserria)

Ahoz: Arganaetzebarri

Auzoa: Lumo

Argana (arri eta gana) eta etxe barri(a) izen sintagmez konposatutako etxe-izena.

Arganazpi basoa Gañaga tontorraren azpian dago, eta pentsa daiteke Argana Gañaga tontorra bera izatea.

Ik. Arganazpi toponimoa.

Arganazpi (basoa)

Ahoz: Arganaspi

Auzoa: Lumo

Argana toponimoa eta azpi postposizioaz eratutako izena. Lekuari begiratuta Argana (arri eta gana) Gañaga tontorra izatea pentsa daiteke. Gañaga tontorraren azpiko basoa da.

Arganondo (baserria eta soroa)

Ahoz: Argondo

Auzoa: Lumo

Argana toponimoa atzean dagoela argi dago. <ao> bokal elkarketa ahoskatu lez arautu da, <o> alegia.

Arganaetxebarri baserria ere badago eta izen bereko baserriaren soroak ere Arganondo izena du.

Ik. Arganaetxebarri.

Argondo (ah.) ik. Arganondo**Aristieta** (baserria)

Ahoz: Aristieta

Aresti eta -eta atzizkiak eratorritako etxe-izena. Aresti ugari dagoen tokia esan gura du.

Arlourdinak (-ak) (basoa)

Ahoz: Arlourdiñek

Auzoa: Lumo

Arlo berba Gernikaldeko toponimian sarritan ageri da, lursaila esan gura du. Urdina kolorea adierazten du. Urdina azula esanguraz gain, zuria ere esan gura du. Lursail zuritua esan gura du beraz. Hau da garbia dela, belarrak eta landatu gabea.

Ahoz jaso da toponimo hau eta pluralak erabiltzen dute hiztunek batez ere.

Arostegi (baserria)

Ahoz: Arosti

Auzoa: Arana

Arotz eta -tegi atzizkiak eratorritako izena. Eratorpenean Arotz berbak leherkari <t>aren aurretik neutralizatu egiten da eta <s> bihurtzen da Aresti bezalako toponimoetan gertatzen den lez.

Ahoz Arosti esaten diote, normala denez bokal arteko <g> kontsonantea ez da ahoskatzen, beste berba askotan gertatzen den lez, eta ondorioz -tegi>-tei>-ti ahoskatzen da.



Arana baserri multzoan dagoen baserria. 1704ko fogerazioetan dokumentatu zen izena, eta beraz baserri zaharra dugu.

Dokumentazioa:

- Arostegui (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Arostegui (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Arostegui (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Aroztegi (1922) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIII (1922), 435.
- Arostegui (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Arostegi (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Arostegikantale ik. Azokakalea

Arosti (ah.) ik. Arostegi

Arotzaena (-a) (baserria)

Ahoz: Arotzena

Auzoa: Arana

Arana auzoko etxea. Arotza eta -ena jabetza adierazten duen genitibo atzizkia dira elementuak. Arotzaren etxea esan gura du, zaharragoa den Arostegi bezala.

Arrandieta (baserria)

Ahoz: Arrandieta

Arri, handi eta -eta ugaritasun eta leku atzizkiaz eratutako toponimoa.

Arratzuko erreka ik. Golako erreka

Arribaltza (ah.) ik. Arribaltzaga

Arribaltzaga (baserria)

Ahoz: Arribaltza

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: Arribaltzagabeaskoa (-a) eta Arribaltzagagoxeaskoa (-a)

Arri (harria), baltza adjektiboa eta amaierako -aga ugaritasuna adierazten duen atzizkia da.

1922an Arribaltza dokumentatzen da amaierako -aga -a ahoskatzen zela orduan erakutsita. Gaur egun ere hala ahoskatzen da.



XVIII. mendeko sutegietan bi agertzen ziren Arribaltzagabeaskoa eta Arribaltzagagoxeaskoa, gaur egun osterak bakarra dago.

Dokumentazioa:

Arribalzaga (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
Arribalzaga (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
Arribalzaga (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
Arribalzaga beazcoa (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
Arribalzaga gojeazcoa (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
Arribalzaga goxeascoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
Arribalzaga beazcoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
Arribáizaga (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.
Arribaltza (1922) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIII (1922), 497.
Arribaltza (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
Arribaltza (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.
Arribaltza (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Arribaltzagabeaskoa (-a) ik. Arribaltzaga

Arribaltzagagoxeaskoa (-a) ik. Arribaltzaga

Arrietagana (-a) (basoa)

Ahoz: Arrietagane

Arrieta (harri + -eta) eta gana berbez konposatutako toponimoa. Ahoz amaierako -a > -e ahoskatzen da <e> bokal paragogikoaren eraginez. deklinatzerakoan Arrietaganera edo Arrietaganetik bezalako formak erabiltzeak, nominatiboa Arrietagane bihurtu du, baina oker dago.

Arrizurieta (mortua)

Auzoa: kokatu gabea

Arri, zuri eta -eta ugaritasun atzizkiaz eratutako toponimoa, arri zuriak dauden lekua alegia.

Dokumentazioa:

Arrizurieta (1922) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIII (1922), 499.

Artatzueta (soroa)

Ahoz: Artatzueta

Auzoa: Lumo

Artea zuhaitz izena, -txu atzizki txikigarria eta -eta lekua adierazten duen atzizkia daude leku-izen honetan.

Arteagana (-a) (basoa)

Ahoz: Artiagane

Auzoa: Zallo

Artea zuhaitz-izena eta gana berbaz konposatutako baso-izena da. 1923ko kartografia zahar batean ageri da Artiagane formaz. Amaierako -e Arana (Arane) toponimoarekin gertatzen den lez, deklinabide kaltetu baten ondoriozko eragina da, baina jatorrizko forma -a amaieraduna da. Beste dokumentaziorik izan ezean ezin zehaztu dezakegu, baina baliteke Artea barik Arteaga izatea lehenengo zatia, izan ere “arte” da berba eta amaierako -a artikulua izanik, hitz konposaketetan galdu ohi da, eta jasotako forman Artiagana ageri da; horrek adieraz lezake Arteaga dela lehendabiziko elementua. Arteaga artea zuhaitz izena eta -aga ugaritasuna adierazten duen atzizkiaz eratutako toponimoa da, eta forma ohikoa goa da baso-izenetan erabiltzeko. Arteaga (arte zuhaitzen basoa) izeneko basoaren gaineko baso edo mendia esan gura du beraz.

1923ko Bizkaiko Foru Aldundiko kartografia zahar batean ageri da, hain zuzen ere Mikieneko errekaaren goiko aldean, Errigoitirekin muga egiten duen zatian.

Dokumentazioa:

Artiagane (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Arteaganabidea (-a) (bidea)

Ahoz: Artiaganebidie

Auzoa: Zallo

Arteagana basora doan bidea, gaur egun izen hau ez da erabiltzen.

Ik. Arteagana toponimoa.

Dokumentazioa:

Artiagane, Cº de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Arteagazelai (basoa)

Auzoa: Zallo

Artea zuhaitz izena eta -aga ugaritasuna adierazten duen atzizkia eta zelai izenaz konposatutako toponimoa da. 1780ko dokumentu zahar batean baino ez da jaso, baso-izenak jasotzen dituen dokumentu zaharrear.

Arteagagana basoa Billarkaio mendi maldan dago, Errigoitiko muga ondoan, Mikiena baserri ondoan. Baliteke toponimo horrekin lotura izatea.

Dokumentazioa:

Arteagacelay (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Artekale (kalea)

Ahoz: Artekale

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: Erdikokale

Artekale kale-izena, euskal hiri-toponimian zabalkunde handikoa da, Barrenkale eta Goienkale bezalako kale-izenak. Artean, erdian, dagoen kalea esan gura du. Beste zenbait udalerritan Erdikokale ere esan izan zaio tradizioz, Markina-Xemeinen esate baterako.

Erreferentziazko izena, kale-izenaren atala denez eta lotuta doanez, beste generikorik ez gehitzea gomendatzen du Euskaltzaindiak. Hau da, ez dadin erabili Artekale kalea beza-lako forma erredundanteak.

Hirigune zaharreko erdiko kalea, kale nagusia, gaur egun merkataritza gune garrantzitsuena da. Hala ere, ez dirudi kale zaharrenen artean sartu daitekeenik, eta lehenengoz 1745eko fogerazioetan (baserri- eta etxe-errodan) jasotzen da erdarazko itzulpenaz calle de en medio.

Historialarien ustez kale hau garai batean urez estalita zegoen eta horren erakusle da agiri zaharretan dokumentatzen den gurpila edo errota izenak.

Askatasun kalea (-a) (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Kalea izenaren zatia da, hortaz kalea izen erreferentziala ezin kendu daiteke. Izen arruntekin elkartzerakoan (Askatasuna) jazo ohi da hori. Erdarazko bertsioa ematekotan osorik itzuli behar da. Izen ofizial osoa Askatasuna kalea da, baina euskaraz egokiagoa da artikulatu barik idaztea, Askatasun kalea; gaztelaniaz Calle Askatasuna.

Juan Calzadatik Iparragirre kalera jaisten den kalea.



Asketa (baserria)

Ahoz: Asketa

Auzoa: Arana

Aska eta -eta berbez eratorritako toponimoa da. Aska berbak esangura bi dauzka: lubakia eta abereak edateko lekua. Lubaki edo aska ugari dauden lekua izan daiteke toponimo honen etimoaren esangura.

Dokumentazioa:

Azqueta echebarria (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Azketa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Azketa (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 131.

Asketa (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.

Askola (basoa)

Ahoz: Askola

Auzoa: Lumo

Aska eta ola berbez eratutako toponimoa. Aska berbak esangura bi dauzka, lubakia eta abereak edateko lekua, eta ola, nahiz eta gaur egun burdina lantzeko etxea esanahia izan; toponimian maiz ageri da lursail biribil edo kortabaso esanguraz. Beraz, Askola leku-izenak askako kortabaso esangura duela dirudi.

Dokumentazioa:

Ascola (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Askola (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Atxinerreka (erreka)

Ahoz: Atxinerreka,

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: Ik. Atxinerreka, Pagoko errekea (-a), Etxandiko errekea (-a)

Olazarragako erreka izenaz ere ezaguna da, ondoan dagoen Olazarraga baserriagatik hartzen du izen hori.

Errigoitin jaio, baina ibilbide osoa, Oka ibaira heldu arte, Gernika-Lumotik egiten du erreka honek. Ibilbidean zehar izen ezberdinak jasotzen ditu: Atxinerreka, Barrenetxeko errekea, Pagoko errekea eta azkenik Santa Luzia inguruan Lumotik datozen beste errekekin bat eginik Etxandiko errekea sortu eta Oka ibaian isurtzen ditu urak.

Dokumentazioa:

Olazarre, A° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

**Atxirika** (etxea) desagertua

Auzoa: Gernika-Lumo

Atxirika etxea Artekalean zegoen, eta bonbardaketaren aurretik horman Santa Barbararen irudi bat zeukan, gerora berriro ezarri zena. Gaur egun bertan dagoen etxe berriak ez dauka irudirik.

Ez dakigu zein izan daitekeen izen honen etimologia, baina baliteke atxira eta -ika atzizkiak eratutako izena izatea. Atxira haitzaren gainean hazten den ira da, eta -ika inguru honetako toponimia zaharrean maiz ageri den atzizkia da (Muxika, Ordorika...). Atxirika Busturiko deitura da.

Axpuru (erreka)

Ahoz: Aspuru

Auzoa: Lumo

Atx (haitz) eta buru berbez konposatutako toponimoa, baliteke Gañaga izeneko tontor inguruko lekuren baten izena izatea, bertan jaio da-eta erreka.

Gañagan jaio eta Goikoerrota baserri-errota ondotik pasatzen da Forua bidean.

Azoka plaza (plaza)

Ahoz: Asokaplasa, Merkatu plaza

Auzoa: Gernika-Lumo

Izen hau ez da ofiziala baina ahoz erabiltzen da astelehenetako azoka egunean barazkiak saltzen datozen baserritarrak biltzen diren plazari esaten zaio. Azoka hitzak arabierazko etimoa dauko, euskaraz dugun bakanetako bat.



Azokakalea (-a) (kalea)

Ahoz: Asokakalie,

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: Arostegikantale, Frantseskale

Azoka, merkatua, eta kalea berbez konposatutako izena da, hain zuzen ere kale honetan egiten zen-eta garai batean merkatua. Azoka berbaren etimok erromantzetik jasotako azoque arabismoan du jatorria. Dirudienez hiri-agirian, 1366an agertzen da Azoque forma lehenengoz.


Errotulatur gero, ez da generikorik gehitu behar ez euskaraz ez erdaraz, berezkoa du kale berba eta Euskaltzaindiaren irizpideei jarraituta desegokia da AzokakalAe kalea bezalako formak erabiltzea.

Dirudienez garai batean Frantseskale esaten zioten, Frantziako Konbentzio Gudaren ostean, bertan frantses asko bizi zen eta.

Arte kale kalearen paralelo, Adolfo Uriosten hasi eta San Juan kalean amaitzen du.

Dokumentazioa:

Calle de Azoque (1745) Bizkaiko Fogeraioak.
Azoquecalle (1796) Bizkaiko Fogeraioak.



B

Baldatikaerrekea (-a) (erreka)

Ahoz: *Baldatikerrekie*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Oletako erreka**, **Metxikako erreka**

Baldatika Foruko auzo bat da eta bertan hasten da erreka hau. Genitibodun gabeko forma hobetsi da. Artikuludun forma denez erreka berbak bizkaieraren ezaugarri den -ea amaiera hartu du, eta hala jasotzen da ahoz.

Oletako erreka eta Metxikako erreka izenekin ere ezaguna da erreka hau.

Dokumentazioa:

Baldatika, A° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Oleta (1999) Historia de Lumo, 16.

Baldatikaerrekea (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Barbarena (-a) (baserria)

Ahoz: *Barbane*

Auzoa: Gernika-Lumo

Barbara hitza, jabearen edo bizilagunaren izena, eta -ena jabetza atzizkiaz eratorritako etxe-izena. Lehenengo elementua, -ena atzizkiaz lagundurik doa eta halakoetan deitura, izena edo ezizena izan ohi da. Ahoz, arrunta den bezala, lehenengo testigantzetan ageri den bokal arteko -n- desagertu egin da. Ez da hain arraroa emakume izenak etxeak izendatzea eta izen hau bera, ekialdeko erara, Barbararena, dugu Berriobeiti eta Lizasoaienen nafarroan.

Nahiz eta biztanle-entitate ofiziala Gernika-Lumo izan, Lumoko baserria da. Santa Luzia ermita inguruan dago, Arana auzoan bete-betean.

Dokumentazioa:

Barbarene (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Barbarene (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 137.

Barbaena (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Barbasolo (belardia)

Auzoa: Lumo (kokatu gabea)

Seguru antzean Barbarena baserri-izenarekin lotura izan dezake, Barbara lehen elementua jabearen izena izan daiteke eta bi toponimoetan ageri dena. Barbarena baserriaren soroa izan daiteke.

Dokumentazioa:

Barbasolo (-ra)-?) (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 137.

Barrantze (ah.) ik. **Barrenetxea**

Barrenderoena (-a) ik. **Monasteriobekoa**

Barrenengoa (-a) (baserria)

Auzoa: Erreterria eta Arana

Barrenengoa izenak barrenean dagoen etxea esan gura du. Barren berba oso erabilia da Gernikako etxe-izenetan eta gehienetan atzean dagoena esan gura du. Barrenengoa izenak atzekoa esan gura du. Bi dira izen hau duten etxean Gernika-Lumon, bata Erreterria auzoan eta bestea Amunagan.

Barrenetxea (-a) (malda)

Ahoz: *Barrentze*

Auzoa: Zallo

Barrentze esaten zaion arren, Barrenetxe da idatzizko izen osoa. Ez dugu Barrenetxe izeneko etxerik dokumentatu, baina litekeena da Barrenetxe baserri-izenetik eratorria izatea izena.



Barrenetxeko errekea (-a) ik. **Atxinerreka**

Barrenkale (kalea)


Ahoz: *Barrenkale*

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: **Isidoro Leon**, **Yausaondoko errebala**, **Tercera**

Esanguraren aldetik beheko kalea esan gura du, eta barrera eta kale berbez eraturik dago. Erdarazko dokumentu zaharretan *calle yusera* lez itzultzen dute, yuso, erdara zaharrean, behea baitzen. Euskarazko lehehengo hitzak dituen Erroixako monasterioak Suso eta Yuso dira.

Dirudienez, 1511ko dokumentu batean jasotzen den lez, *Yausaondoko errebala* izena zeukan kale honek. 1704an *Tercera* izenarekin ageri da.



1920ko hamarkadan Isidoro Leon izen patronimikoa eman zioten, antzinako Gernikako alkatearen izena.

Alde zaharreko kale zaharra, Artekalearen paralelo.

Barrenkalebarrena (-a) (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Barrenkale eta barrena berbez konposatutako izena, Barrenkale kalea baino beherago dagoena esan gura duena. Hiri-toponimian maiz ageri den kale-izen dugu, izen bereko kalea du Bilboko Alde Zaharrak eta berori osatzen dute 7 kaleetako bat dugu.



Barrenkalebarrena (-a) ik. Ocho de Enero

Bastegieta (auzoa, erreka eta baserria)

Ahoz: *Bastegieta*

Auzoa: Lumo

Bastegieta izenaren atzean baliteke “bastategi” izena egotea, bastak egiten diren lekua. Bastak zaldi gainean ibiltzeko jarlekuak dira. Bastategi izenean bi antzeko silaba daude bata bestearen ondotik <tate> eta halakoetan sarri bat galdu egiten da.



Ahozko erabileran <z> soinuak jaso izana akatsa dela esan daiteke; bizkaieraren erabileraren aurkako jokaera izateaz gain fogera-zioetan eta beste dokumentazioan <s> grafiaz dokumentatzen da eta.

Bastegieta baserri-multzo inguruan jaiotzen den erreka laburra da, Zarratuko errekan isurtzen ditu urak. Berriatuan eta Mallabiko Gereaa auzoan ere Bastegieta izeneko etxeak egon dira.

Dokumentazioa (baserria):

- Basteguieta (1704) Bizkaiko Fogera-zioak.
- Basteguieta a[t]zecoia (1745) Bizkaiko Fogera-zioak.
- Basteguieta goicoa (1796) Bizkaiko Fogera-zioak.
- Basteguieta (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Bastieta (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Bastegieta (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 142.
- Bastegieta (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.
- Dokumentazioa (auzoa):
- Bastegieta (1999) Historia de Lumo, 15.
- Basteguieta (1999) Historia de Lumo, 15.



Bastegietabidea (-a) (bidea)

Ahoz: *Bastegietabidie*

Auzoa: Lumo

Bastegieta baserrira doan bidea. Gaur egun ez da ofiziala.

Ik. Bastegieta baserri-izena.

Dokumentazioa:

Bastietia, C de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Bastegietaburu (basoa)

Ahoz: *Bastegietaburu*

Auzoa: Lumo

Bastegieta baserriaren gaineko basoa, Bastegieta baserri-izena eta buru (goia) berbez konposatua.

Ik. Bastegieta baserri-izena.

Bastegietaerdikoa (-a) (baserria)

Ahoz: *Bastegietaerdikoa*

Auzoa: Lumo

Artikulua gordetzen du ahozkoan ere. Bastegieta baserri multzoko erdiko baserria.

Ik. Bastegieta baserri-izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Basteguieta, otra (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Bastegieta de medio (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Basteguieta erdicoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Bastegietaerdikoa (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Bastegietaetxebarria (-a) (baserria)

Ahoz: *Etzebarri*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Etzebarri**

Bastegieta etxe-multzoko baserririk berriena esan gura du. Ahozko erabileran artikulurik gabeko forma nagusia bada ere, galera nahiko berria denez berreskuratu egin da.

Ik. Bastegieta baserri-izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Bastegieta echabarria (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Bastegieta echabarria (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Bastegieta echebarria (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Bastaieta-Echevarri (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Bastegietaetxebarria (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Bastegietako iturria (-a) (iturria)

Ahoz: *Bastegietako itturixe*

Auzoa: Lumo

Ik. Bastegieta baserri-izenaz esandakoa.

Batzar Etxea (-a) (juntetxea)

Ahoz: *Juntetzie*

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: ***Juntetxea (-a)***

Batzar Nagusiak biltzen diren tokia, Gernikako hau da ezagunena Euskal Herrian. Bertan hartzen du kargua Lehendakariak eta bertan dago Gernikako Arbola.

**Baztarrarlo** (belardia)

Auzoa: Lumo

Bazterreko arloa edo lursaila esan gura du. Arlo berba oso erabilia da inguru honetan lursaila izendatzeko. Bazter berba bizkai euskaraz baztar ahoskatzen denez horrela utzi da, berri eta barri berbeekin gertatzen den lez.

Dokumentazioa:

Baztarrarlo (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 143.

Beaskoetxea (-a) (baserria)

Ahoz: *Biskotze*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: ***Lumobeaskoetxea (-a)***

Zenbait iturritan aurretik auzo-izena duela ageri da: Lumobeaskoetxea alegia. Baina, erabilera hori bestelako Beaskoetxea etxeetatik bereizteko baino ez da, oso izen zabalduta da eta. Jatorrizko forma osoa artikuluduna da. Esangura beheko etxea da.

Ahoz bokal elkarketak batu eta *Biskotze* esaten diote.

Lumoko baserri zaharra, gorago dagoen Goikoetxea baserriaren izenaren bikotea dena.

Dokumentazioa:

Luno beascoechea (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

[Lumo] beazcoechea (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Beazcoechea (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Biskotze (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 446.

Bekoerreka ik. **Amunagaerreka**

Bekoibarra (-a) (kalea eta ibarra)

Auzoa: Gernika-Lumo

Erreka ondoko inguru lauaren goialdea adierazi gura du, laborantzarako lur gozua duena. Errekaren inguruko eremu gehienak lehortu zirenean, ibar emankorra agertu zen hiriaren sartaldean. Eremu hau hain zabala zenez, izen ezberdin ugari hartu ditu tokian-tokian: Saraspe ibarra, Santana ibarra, San Juan Ibarra... Gaur egun Giokoibarra, Ibarra eta Bekoibarra kaleak desberdintzen dira eta bertan dago Gernika-Lumoko Industrialdea.

Ik. Goikoibarra eta Ibarra leku-izenak.

Dokumentazioa:

Beko-Ibarra (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.



Bengoetxea (-a) (baserria)

Ahoz: *Bengotze*

Auzoa: Zallo

Bengoetxe oikonimo edo etxe izenak behean dagoen etxea esan gura du, beheengo etxea. Ahozko erabileran artikulua gabe ahoskatzen bada ere, *Bengotze*, dokumentazioak argi erakusten du lehenengo dokumentuetatik (1704ko lehendabiziko sutegien erroldan jaso zen) duela gutxi arte Bengoetxea izan dela erabilitako forma.

Edozelan ere, ohikoa da toponimoen amaierako -a artikulua desagertzen joatea; izan ere, artikulua gabeko formek izen berezi itxura handiagoa ematen diote leku-izenari.

San Luzia ermitaren inguruan dago, Zallo auzoan.

Dokumentazioa:

Beingoechea (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Bengoetxea (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Bengoetxea (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Bengoetxea (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Bengotze (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 319.

Bengotxe (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.

Bengoetxea (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Bengotze (ah.) ik. Bengoetxea

Benturena (-a) (baserria)

Ahoz: *Benturene*

Auzoa: Arana

Beste izen batzuk: **Lapikotxuena (-a)**, **Maritxuena (-a)**

Baserri honen jatorrizko izena Benturena da, Bentura erdal abizena eta -ena jabetza atzizkiaz eratorritako toponimoa da, hau da, Bentura abizeneko jabearen edo bizilagunaren etxea.



Amaierako -ena atzizkia -ene ahoskatzen dute bertako hiztunek, Bizkaia mendebaldeko hiztunek egin duten lez, amaierako -a artikulua -e bihurtuta, deklinabidearen eraginez. Deklinatzean Benturenera edo Bentureneko esaten da, eta ondorioz, *Benturene* dela izena uste izan da. Baina non kasuan Benturenan izan behar du, ez Benturenen.

Baserri honek, bestalde, baditu beste izen batzuk: Maritxuena edota Lapikotxuena. Bi izen horiek ere gaur egungo jabeari egiten diote erreferentzia, Maritxu izeneko andrea, ezizenez Lapikotxu esaten diote.

Dokumentazioa:

Benturena (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Lapikotxuena (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Berezia (-a) (basoa)

Ahoz: *Bereziye*

Auzoa: Arana

Berezi berbak lursail berezia esan gura du, zatitua eta hesia duena. Bizkaiko toponimian sarri erabiltzen da berba hau baso-izenetan, izen generikoa da eta antzinako beste egoera baten lekukoa, baso geihena hesi gabe zegoeneko.

Bereziondo (basoa)

Ahoz: *Berezondo*

Auzoa: Arana

Berezi eta ondo berbez konposatutako baso-izena da. Berezi berbak baso zarratua esan gura du.

Ik. Berezia toponimoa.

Dokumentazioa:

Berasondo (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Bereziondo (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Betanzos Gotzainaren plaza (plaza)

Auzoa: Lumo

Aita Jose M^a Betanzos Omaetxebarria (1863-1949) jaunaren omenezko izena du. Lumoko semea eta frantziskotar misiolaria. Aita izena Betanzos ezizenaren atzetik eta letra xeheaz idatzi behar da. Betanzos aita lez ezaguna izan bada ere, berriki Udalak izena egokitu dio eta Betanzos Gotzainaren plaza izena ipini dio Lumoko plaza honi.



Bidaguren ik. Bidagurenaurrekoa

Bidagurenatze ik. Bidagurenatzekoa

Bidagurenatzekoa (-a) (baserria)

Ahoz: *Bideunatze*

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: ***Bidagurenbeaskoa (-a), Bidagurenatze***

Bidagurenatzekoa eta Bidagurenaurrekoa dira ahoz *Bideun* edo *Bideune* formaz ezagutzen ditugun baserrien izen arautu osoak, *Bideunatze* edo *Bideurre*, hain zuzen ere. Bidaguren izenak bide bazterreko etxea esan gura du, bide eta guren, bazterra, osagaiez eratutako toponimo elkartua da.

XVIII. mendeko sutegei erroldetan, hau da, garai horretan egindako etxeen zerrendetan -hiru egin ziren, 1704, 1745 eta 1796an-, lehendabizikoetan atze eta aurre postposizioen ordezt, beaskoa eta goxeaskoa forma zaharrak dokumentatu dira.

Ahoz, esan bezala, *Bideune* edo *Bideun* esaten zaie. Hain zuzen ere, bokal arteko <r> eta <g> kontsonanteak ahoskeran galdu egiten dira, eta gertatzen den bokal elkarketa <aue> <e> soila bihurtzen da. Gainera, deklinabide oker baten ondorioz, Bizkai mendebaldean ohikoa da kontsonantez amaitutako zenbait toponimoetan amaieran -e paragogiko bat ezartzea, Bidaguren izena Bidagureneko edo Bidagurenera edo Bidagurenen deklinatzen denez, ondorioz, analogiaz edo, *Bideune* esaten diote zenbaitek.

Zallo auzoko baserri zaharra. Bidaguren baserriak bi dira, Bidagurenatzekoa eta Bidagurenaurrekoa. Baserri zaharrak dira eta 1704ko sutegien erroldan jaso ziren, beraz pentsatzekoa da XVII. mendekoak edo lehenagokoak direla. Gaur egungo eraikinaz ez gara ari ordea, mendeetan eraikinean aldaketak eta baserria bera lekuz aldatu ahal delako, baina izen bereko baserria zen garai haietan duda barik.



Dokumentazioa:

Bidaguren beascoa (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
 Bidaguren azecoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
 Bideunatze (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.
 Bidaguren atzekoa (1999) Historia de Lumo, 17.
 Bidagurenatze (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Bidagurenaurre ik. Bidagurenaurrekoa**Bidagurenaurrekoa (-a)** (baserria)

Ahoz: *Bideun, Bideune*

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: ***Bidagurengoxeaskoa (-a), Bidaguren, Bidagurenaurre***

Bidaguren baserri-multzoko etxea, aurrekoa esan gura du.

Ik. Bidaguren toponimoaz esandakoa.

**Dokumentazioa:**

Bidaguren goxeascoa (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
 Bidaguren (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
 Bidaguren aurrecoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
 Bidaguren-aurrecoa (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.
 Bidaguren (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
 Bideune (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.
 Bidagurenaurrekoa (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Bidagurenbeaskoa (-a) ik. Bidagurenatzekoa**Bidagurenbidea (-a)** (bidea)

Ahoz: *Bideunebidie*

Bidaguren baserrira doan bidea.

Ik. Bidaguren baserri-izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Bidaguren, C° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Bidagurengoxeaskoa (-a) ik. Bidagurenaurrekoa**Bideun (ah.) ik. Bidagurenaurrekoa****Bideunatze (ah.) ik. Bidagurenatzekoa**

Bilikariyo (ah.) ik. **Billarkaio**

Billarkaio (baserria, mendia eta basoa)

Ahoz: *Bilikariyo*

Auzoa: Zallo

Burgos probintziako udalerria da Villarcayo. Garai batean ohikoa zen izen erromantze arrotzak erabiltzea etxe-izenetarako. Villarcayo izena erromantzekoa bada ere, euskarak mailagatu egin zuen eta bertako ebakeraz ahoskatzen dute ingurukoek, hori dela eta euskara-zko grafiaz ematen da Euskaltzaindiak emaniko irizpideei jarraiki. Gaur egun mendi-izena dago bizirik eta ingurukoek *Bilakariyo* esaten diote.

Baserria desagertua dago, baina toponimoa nahiko ezaguna da Gernika-Lumon, Muxika eta Gernika-Lumoko mugetan dagoen mendia izendatzeko erabiltzen delako.

Zallo auzoko mendia, Muxika udalerriarekin muga egiten du.

Dokumentazioa (baserria):

Villarcayo (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Villarcao (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Villarcayo (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Dokumentazioa (mendia):

Villarcayo (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Bilikario (1999) Historia de Lumo, 16.

Billarkaibidea (-a) (bidea)

Ahoz: *Bilikariyobidie*

Auzoa: Zallo

Billarkaio baserri, baso eta mendira doan bidea.

Ik. Billarkaio izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Billakayo, C° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Biskotze (ah.) ik. **Beaskoetxea**

Bizkaia (kalea)

Auzoa: Arana

2006ko ekainaren 21ean Gernika-Lumoko Udalak Arana auzoko zenbait kaleri Euskal Herriko 7 probintzietako izenak ematea erabaki zuen etxebizitza sozialak egingo ziren gunean; horrela, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa kaleak ditugu inguru horretan.

Bizkai hitzak mendia esan nahi du eta nahiko arrunta da Euskal Herri osoan. Litekeena da probintziari izena ematen dion lekua gorago dagoen Bizkaigana izatea.

Bollegi (baserria)Ahoz: *Bollegi*

Auzoa: Lumo

Ez dakigu zehaztasunez zein den Bollegi izenaren etimologia, bigarren elementua hegia da, baina lehenaz ezin da gauza argirik esan. Badirudi Bollain bezalako izenekin lotura duela, eta esan liteke latineko *molinum* euskaraz bolua berbarekin lotura izan dezakeela, baina ez dago argi.



Bollegi izenak, Gernikan-Lumon zein Busturian du jatorria, eta gaur egun abizen zabaldua da.

Lumoko baserri zaharra, XVIII. mendeko fogeraioetan 1796koetan dokumentatzen da lehenengoz.

Dokumentazioa:

Bollegui (1796) Bizkaiko Fogeraioak.

Bollegi (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 447.

Bustergaña (baserria, desagertua)

Auzoa: Gernika-Lumo

Bustergañena baserri-izena zen eta Piñu ere esaten zioten. Gaur egun, bizirik dirau Piñu leku-izenak, bertan dagoen piñua eta ondoko iturria lekuko (Piñuko iturria).

Uztarriak (bizkaieraz buztarriak) egiten zituenaren (buztargina, uztargina) etxea.

Dokumentazioa:

Bustergaña (1999) Historia de Lumo, 15.

C

Calzada Egoitza (-a) (egoitza)

Auzoa: Gernika-Lumo

Zaharren egoitza hau Juan Calzada eta Adolfo Uriosteri esker eratu zen 1892an.

Juan Calzadak, San Frantziskon hil zorian zegoela, testamentua egin zuen Adolfo Urioste bere lagun minaren alde eta honek hauxe agindu zion: testamentuan hartutako diru guztia Gernikako biztanleen ongintzarako erabiliko zuela. Hargatik, bien artean erabaki zuten Gernika-Lumon ospitale bat eraikitzea.

Dokumentazioa:

Asilo Calzada (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Carlos Gangoiti (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Carlos Gangoiti gernikarraren omenezko kalea, Kaltzada Egoitzari Argentinan zituen ondasunen bosten bat utzi zion testamentuan hil zenean.

Artekaleren jarraipena da hegoaldetik.

Casa de las pinturas ik. **Mezeta**

Casa de los muñecos ik. **Mezeta**

Ciutat de Berga (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Berga Kataluniako hiri bat da, Gernika-Lumorekin Anaitasun Akordioa duena 1986tik.

Iparragirre eta Pablo Picasso kaleak perpendikularki batzen dituen kaleska da.

Cuatrovientos (etxea)

Ahoz: *Kuatrobientos*

Auzoa: Arana

Erdal toponimo berria. Batuta idatziko da. Leku horretan eraikin berria dago, baina lekuari Cuatrovientos deitzen zaio, hor zegoen etxeak zuen forma bereziagatik (gurutze forma, lau luzapenekoa, eta haize guztiak jasotzen zituena).

Cuesta de Santa Maria ik. **Adolfo Urioste**

Cuesta del Matadero ik. **Alondegia**

D

Domingo Alegria (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

XIX. mendeko Gernikako medikua, osasun-metodo berriak zabaldu zituen. Demokrata eta ideologia liberalekoa, alkate izan zen 1900-1901 artean.

Domingo Bernaola, Merkatu plaza eta San Roke kaleen artean dago.

Domingo Bernaola (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Itsas armadako marinela zen Domingo Bernaola (Bermeo, 1625-1685) eta hainbat gudan hartu zuen parte. Ama gernikarra zuen, Ana Urizar Enderika.

Merkatu plaza inguratzen duen kaleetako bat da.

Dondiz ik. Dondizbekoa

Dondizbekoa (-a) (baserria)

Ahoz: *Dondisbeko*

Auzoa: Lumo

Ahoz artikulurik gabeko forma da erabilia, *Dondisbeko*. Baina dokumentazioak argi erakusten du artikularen galera berria dela. Bi dira Dondiz baserriak: Dondizbekoa eta Dondizgoikoa. Erdarazko dokumentazioaz gain, beitia formaz ere dokumentatu zen 1745ean, hain zuzen ere, beitia bekoa edo beaskoa formen parekoa da, baina zaharragoa.

Etimologia oso argia ez duen arren Dondiz toponimoa beste hainbat euskal toponimoetan ageri den amaierako -iz atzizkia du (Ondiz Leioan). Atzizki horrek esangura eta interpretazio ugari izan dituen arren, jentilizioetan edo erabilia zela pentsa liteke eta gehienetan pertsona izenez lagundurik ageri izan da.

Landaberde auzoko baserria, Foruko udalerriko mugetan. Baserri zaharrak dira Dondizbekoa eta Dondizgoikoa baserriak, 1704ko sutegetan dokumentatu egin ziren lehenengoz.



Dokumentazioa:

Dondiz de yuso (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
 Dondiz beitia (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
 Dondiz becoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
 Dondisbecoa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
 Dondiz de Yuso (1999) Historia de Lumo, 17.
 Dondizbeko (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Dondizburu (basoa)

Ahoz: *Dondisburu*

Auzoa: Lumo

Dondiz toponimoa eta buru berbaz eratutako toponimoa. Dondiz auzoaren edo baserri-multzoaren gaineko basoa. Buru berba maiz erabiltzen da baserri edo auzo izenei lotuta baso-izenak eratzeko. Basoaren kokapenari egiten dio erreferentzia.

Ik. Dondizbekoa izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Dondiz buru (1564) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 0893/174.

Dondizburugoikoa (-a) ik. Dondizgoikoa**Dondizgoikoa (-a)** (baserria)

Ahoz: *Dondisgoikoa*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Dondizburugoikoa (-a), Dondiz**

Ahoz artikulurik gabeko forma da erabili-
 lia, *Dondisgoiko*. Baina dokumentazioak
 argi erakusten du artikulua galera
 berria dela. Bi dira Dondiz baserriak:
 Dondizbekoa eta Dondizgoikoa. Don-
 dizbeitia dokumentatzen bada ere, ez
 da Dondizgoitia formarik dokumentatu,
 baina seguru antzean hori izango zen garai
 batean erabiliko zen forma zaharra.

Ik. Dondizbekoa toponimoaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Dondiz de suso (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
 Gondiz goicoa (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
 Dondiz goicoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
 Dondizburugoicoa (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.
 Dondiz (1860) Bizkaiko Izendegia.
 Dondisgoicoa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
 Dondiz (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 560.
 Dondiz de Suso (1999) Historia de Lumo, 17.
 Dondizgoiko (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Done Petri Apostolua (-a) (San Pedro) (eliza)

Ahoz: *San Pedro*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: ***San Pedro, Antiguako Andra Maria (-a)***

Lumoko eliza, San Pedro Apostoluari eskainitakoa da. Euskara arautuan Done Petri Apostolua izena du adbokazioak. Antzina euskaraz *Done* erabiltzen zen santuak izendatzeko, baina Trentoko kontzilioaren ostean hitz honen erabilera gutxituz joan zen, batik bat Hegoaldean, eta sarritan toponimian baino ez da gorde. Horrela Arragirriagako Abrisketako San Pedro baselizaren aurrean dagoen *Doneperi*. Era berean Deustuko San Pedron zegoen dorreak Doneperiaga izena zuen.



Eliza honen lehenengo aipamena 1051n agertzen da, Donemiliagako Kukulako kartularioan.

Erromako Eliza Katolikoarentzat santurik garrantzitsuenetako bat da done Petri. Jesu Kristok berak ezan zion Eliza eraikitzeko “haitza” izango zela eta handik datorkio izena jatorrizko Simon-en ordezkari Khepas (haitza) izendatu baitzuen, latinez *Petrus*. Erromako lehenengo apezpikua izan zen eta bertan martiritatu zuten. Ikonografian zeruko giltzak eskuan dituela ageri da.

Dokumentazioa:

San Pedro (1829) Bizkaiko Foru Agiritegia, TB 0009/019.

San Pedro (1858) Bizkaiko Izendegia.

San Pedro de Luno (1860) Bizkaiko Izendegia.

San Pedro (1960) Bizkaiko Izendegia.

San Pedro Apóstol (1987) Ermitas de Bizkaia, 197.

San Pedro (1999) Historia de Lumo, 15.

San Pedro (1999) Historia de Lumo, 15.

San Pedro, Barrio de (1999) Historia de Lumo, 15.

San Pedro Apostol y San Francisco de Asis (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

E

Elai Alai (plaza)

Auzoa: Gernika-Lumo

Leku horri Elai Alai parkea deitzen zaio gaur egun, udalerriko dantza taldearen omenez. Sasoi batean bertako eraikin batean eduki zuen dantza-taldearen sortzailea izan zen Segundo Olaetak bere akademia. Parkepean Elai Alai Areatoa daukagu.



Elbira Iturri (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: **Pedro Aboitiz**

Kale honi izena ematen dion emakume hau, Abertzale Batza eta Eusko Ikastola Batzako partaidea izateaz gain, 1934 urtean Gernika-Lumoko lehenengo ikastolako zuzendaria izan zen. Bere sasoirako aitzindaria izan zen emakumea.

Lehen Pedro Aboitiz izena zuen kale honek.

Elخالdea (-a) ik. Lumo

Elordi ik. Elorrieta

Elorrieta (baserria)

Ahoz: *Elorta*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Elordi**

Fogerazioetan Elorrieta dokumentatzen da, eta beraz murriztutako diptongoa berreskuratzen da, ahoz *Elorta* esaten zaion arren, Elorrieta idatziko dugu.

Elorri zuhaitz izena eta -eta ugaritasun atzizkiaz eratorritako toponimoa. Amaierako -eta atzizkia aurretik maiz fitonimo batez lagundurik joan ohi da, toponimo honetan lez.

Dokumentazioa:

Elorrieta (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Elorreta (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Elorreta (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 570.

Elorreta (1987) Ermitas de Bizkaia, 197.

Elorrieta (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Elorrietalanda (baserria)

Ahoz: *Elortalanda*,

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: ***Txutxillena (-a)***

Elorrieta toponimoa eta landa berbaz konposatutako leku-izena. Baserri honek Txutxillena izena ere hartzen du. Txutxilla ezizeneko jabeagatik-edo.

Ik. Elorrieta.

Dokumentazioa:

Elorreta-landa (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Elorretalanda (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Elorrietalanda (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Elorta (ah.) ik. **Elorrieta**

Elortalanda (ah.) ik. **Elorrietalanda**

Enrique Amurrio (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Buruzagi karlista garrantzitsua izan zen Enrique Amurrio eta Lumoko alkate izan zen bi agintalditan.

Enrique Amurrio Muga, Zugaztieta/Arboledan jaioa, buruzagi karlista garrantzitsua izan zen 1931ra arte. Gernika-Lumoko alkate izan zen birritan (Errepublikarekin eta FET-JONS Movimiento Nacionalarekin geroxeago). II. Errepublikaren sasoian Comunion Tradicionalista alderdiaren buruzagi eta Autonomia Estatutuaren aldeko Udalen batzordearen kidea izan zen.

Karmelo Etxegarai kalearekin egiten du muga.

Epertegi (basoa)

Ahoz: *Eperti*

Auzoa: Arana

Epertegi berbak eper txori-izena eta -tegi atzizkia batzen ditu. Amaierako -tegi atzizkiak inguru honetan ugaritakuna, andana esan gura du. Beraz eper asko dagoen lekua da baso-izen honen etimologia.



Eperti (ah.) ik. **Epertegi**

Erdiko arloa (-a) (belardia)

Ahoz: *Erdikoarloa*

Auzoa: Arana

Erdiko lursaila esan nahi du. Arlo hitzak Gernikaldean lursaila esan gura du eta sarri ageri da oronimoetan.

Erdikokale ik. **Artekale**

Eriabarrena (-a) (parkea)

Ahoz: *Eriexabarrena*

Auzoa: Gernika-Lumo

Inguru honetan zegoen 1937ko apirilaren 26ko bonbardaketaren aurreko eria-lekua.

Eria-lekuko behealdean dagoen kalea esan gura du. Eriak hegoaldetik Ibarbe baserriko etxeko lurrak zituen mugarri eta Asilo Calzada kaletik Pablo Picassoraino heltzen zen.

1912an Olazabal anaiek baserria doan eman zioten udalari, kale berri bat zabaltzeko eta Fernando Katolikoa kaleak (Pablo Picasso) lotura eduki zezan Asilo Calzadarekin (Juan Calzada kalea). Kale hori egungo Eriabarrena kalea da.

Esan bezala, Juan Calzada kaletik Pablo Picasso kalerara doa.



Eriako lorategiak (-ak) (parkea)

Ahoz: *Erieko lorategi xe*

Auzoa: Gernika-Lumo

Eria inguruan dagoen parkea da.



Eriexabarrena (ah.) ik. **Eriabarrena**

Errebatxa (-a) (malda)

Ahoz: *Errebatxe*

Auzoa: Lumo

Toponimo iluna da. Bigarren elementua atx(a) da ,batuaz haitza. Lehenengoa, ostea, ez dago zehazterik. ik. **Lamiñaga**

Lumoko mendi-malda.

Errebatxe ik. Lamiñaga

Errekaegala (-a) (ingurua)

Ahoz: *Errixoeskinie*

Auzoa: Gernika-Lumo

Generikoa da, eta erreka ertza esan gura du. Udalak berriki kale-izendegia arautu du eta Euskaltzaindiaren irizpideei jarraituz lotuta idatzitako forma hartu du ofizialtzat hori baita euskarazko ohitura. Nahiz eta hitz arautua itsasadarra izan, kostaldean oso arrunta da erria ibaia eta itsasoa elkartzen diren urak izendatzeko.



Foru eta Muruetarainoko bidegorriraino heltzen den ibilbidea.

Errekazarra (-a) (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Erreka zaharrak jarraitzen zuen ubidea betetzen duelako ipini zaio kale honi Errekazarra izena. Kanalizazio berria egiteko proiektua oso antzinakoa bazen ere, azkenean, XX. mende hasieran amaitu zen.

Uharte eta Zubialde kale artean dago.



Errenteria (biztanle entitate ofiziala)

Ahoz: *Errenterixe*

Auzoa: Gernika-Lumo

Errenteria berbak aduana esan gura du, errenta ordaintzeko lekua. Gaztelerazko *Renteria* hitzetik dator, eta euskal hizkuntzaz mailegatua jakina, horregatik ahoskeran hasierako r-kontsonantearen aurrean <e> protetikoa erabiltzen dugu. Auzoaren izena Ajangizko izen bereko baserritik dator.

Amaierako -a berezkoa du, organikoa da alegia. Hortaz, deklinatzerakoan ere ez dugu kendu behar, eta *Errenterian bizi naiz* eta *Errenteriakoa da*, edota *Errenteriara noa* esan behar dugu.

Oka ibaiaren bestaldean dagoen gunea da Errenteria. Lur eremu hau historian Ajangizko udalerrinari izan da, eta honek desanexioa lortu zuenean, Errenteriako biztanleek erreferendum baten bidez Gernika-Lumori loturik jarraitzea erabaki zuten.

Historian hainbat errenteria etxe egon izan dira Lumo elizatean eta Gernika hiribilduan, Mezetarrek tokiz aldatzen zituztelako errekonodoak lohiz betetzen ziren bakoitzean. 1596tik aurrera Ajangizen jabetzapeko lurretan kokatu zen errenteria etxea.

Dokumentazioa:

Renteria (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Renteria (1960) Bizkaiko Izendegia.
Errenteria (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Errenteriako zubia (-a) (zubia)

Ahoz: *Errenteriko subixe*

Auzoa: Errenteria

Beste izen batzuk: **Zubia (-a)**

Garai batean, antza, Zubia izenaz zen ezaguna zubi hau, eta ondoan izen bereko baserria zegoen Zubia edo Zubikoa izenaz ezaguna. (Ik. Zubikoa baserria)

Errenteria auzo-izena erdal jatorriko *Renteria* berbatik dator, eta amaierako -a beraz organikoa du hitzak, eta hortaz, deklinatzerakoan bere horretan utzi behar dugu. Euskal hitzunek, ordea, sarri kendu egiten dute artikulua delakoan eta *Errenteriko zubia* esaten badiote ere, Errenteriako zubia da forma egokia.



Errenteria auzoko zubia. Auzo honetan zegoen garai batean Gernikako portua eta ibaiak batzen diren lekua izanik, hainbat zubi dauden lekua da. Hau zubi hauxe ei zen Legion Condor alemaniarrek bonbardaketarekin hondatu gura zuen puntu estrategikoa edo sarraskirako aitzakia.

Errigoitibidea (-a) (bidea)

Ahoz:

Auzoa: Lumo eta Zallo

Errigoitira doan bidea.

Dokumentazioa:

Rigoitia, C° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Errigoitioleabidea (-a) (bidea)

Ahoz: *Errigoittibidie*

Errigoitiolea izeneko tokira doan bidea.

Dokumentazioa:

Rigoitiole, C de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Errixoeskinie (ah.) ik. **Errekaegala**

Esperantzagana (-a) (mendia)

Ahoz: *Esperantzagane*

Auzoa: Zallo

Esperantza izena eta gana (mendi tontorra) berbez konposatutako izena da. Zalloko tontortxoari esaten zaio.

Dokumentazioa:

Esperanza (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Esteban Zabala (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Gernikar honek medikuntza ikasi zuen Alkalako Unibertsitatean eta erregearen zerbitzupean aritu zen zirujau gisa lanean XVI. mendean zehar.

Gurutze Gorriaren egoitzaren parean, Juan Calzada kaletik gora doan kalea.

Etxabea (-a) (belardia)

Ahoz: *Etxabie*

Auzoa: Arana

Etxearen azpian dagoen belardi edo lursaila. Baserri askotan dagoen izena da, baserriri lotutako lursailetakoa bat izendatzeko erabilia, beste hainbat izen lez: Etxaurre, Etxoste, Etxatze, Etxondo... Hain zuzen ere etxearen inguruko eta kokapena adierazteko erabiltzen diren izenak dira.

Etxandi (baserria)

Ahoz: *Etxandi*

Auzoa: Arana

Beste izen batzuk: **Etxandibarri**

Etxe eta (h)andi berbez konposatutako etxe-izena da, hau da, etxe handia. Etxandi, Etxandia zein Etxeandia izenak, deitura zabaldua, Euskal Herrian zehar zabaldutako etxe-izena da. XVIII. mendeko aipuetan artikuluz lagunduta eta osoago ageri arren, Etxeandia izenak aspaldian galdu zuen artikulua eta ea>a aldaketa gauzatu eta horregatik hobetsi da Etxeandia era.

Arana auzoko baserria.

Dokumentazioa:

Echeandia (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Echeandia (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Echeandia (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Etxe-andi (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Etzeandi (1928) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIX (1928), 389.

Etxeandi (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Etxandibarri ik. **Etxandi**

Etxandiko errekea (-a) ik. **Atxinerreka**

Etxanerreka (erreka)

Auzoa: Zallo

Etxanerreta formaz dokumentatzen bada ere, Etxanerreka izena izan daiteke forma zuzena. Ez dago hala ere datu nahikorik. Etxano eta erreka berbez konposatua dagoela ematen du. Etxano berbak etxe txikia esan gura du. Toponimo ezaguna da gaur egungo Zornotza osatzen duten bi elizateetako bat delako.

Zallon Oarko erreka osatzen duten errekaetoetako bat da.

Dokumentazioa:

Etxanerreta, A^o de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Etxapea (-a) (belardia)

Ahoz: *Etxapie*

Auzoa: Lumo

Etxabea izenaren beste forma bat. Dirudienez, eta bertako toponimiak erakusten digunez, -pe zein -be atzizkiak biak erabiltzen dira inguru honetan behean dagoena adierazteko.

Etxearen azpian dagoen belardi edo lursaila.

Ik. Etxabea izenaz esandakoa.

Etxebarri (baserria)

Ahoz: *Etzebarri*

Auzoa: Arana

Beste izen batzuk: **Aranaetxebarri**

Ahoz *Etzebarri* esaten bazaio ere, 1923ko Bizkaiko Foru Aldundiko kartografia historikoan *Arane-echevarri* lez ageri da. Normala da Etxebarri moduko izen orokorrak dituzten baserriak, sarritan udalerri berean etxe batean baino gehiagotan ageri direnak, auzo-izenaz lagundurik dokumentatzea. Hain zuzen ere, izen bereko baserriak bereizteko egiten zen hori. Edozelan ere, ahoz herritarrek Etxebarri esaten diote. XVIII. mendeko aipuetan Etxebarri moduan ageri da euskal fonetikak konposatueta etxe>etxa aldaketa eragiten baitu, baina hain izen gardena izanik Etxebarri aldaera nagusitu da.

Dokumentazioa:

Etxabarria (1704) Bizkaiko Fogeraioak.

Etxabarria (1745) Bizkaiko Fogeraioak.

Arane-echevarri (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Etxebarri (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.

Etxebarri (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Etxebarri ik. **Bastegietaetxebarria****Etxebarria (-a)** (baserria)

Ahoz: *Etzebarri*

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: **Maduraetxebarri**, **Zalloetxebarria (-a)**

Ahoz hitzunez Etxebarri izenaz ezagutzen badute ere, Madura baserri multzoko etxea da eta zenbait dokumentu zaharretan Maduraetxebarri edo Zalloetxebarria izenarekin jaso da. Seguru antzean izenak berak adierazten duen lez Madura baserri multzoaren etxerik berriena izango zen garai batean. Ikus aurreko sarreraren esaten dena.

Mendiolabidean Mendiola baserrira heldu aurretik eskumatara dagoen baserria.

Dokumentazioa:

- Echabarria (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Echabarria (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Zallo etxebarria (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Madure-Echevarri (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Etxebarrierota ik. **Etxebarrikoerrota**

Etxebarrikoerrota (errota)

Ahoz: *Etxebarrikorta*

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: **Etxebarrierota**

Ahoz *Etxebarrikorta* esaten badiote ere, Etxebarrikoerrota da baserri izen honen forma osoa. Arau fonetikoek eraginda bokal batuketa sinpletu eta hitzunez egindako herri-etimologiaren ondorioz, *Etxebarrikorta* esaten zaio, bigarren elementua korta delakoan.

Zalloko baserria da. XVIII. mendeko azken sutegietan jaso zen lehenengoz, 1796koan hain zuzen ere. Orduz gozotik oso dokumentatua izan da.

Dokumentazioa:

- Etxebarriko errota (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Echévarri-errota (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Etxebarrikoerrota (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Etxebarri-korta (1928) Voces Toponomásticas Vascas, RIEV, XIX (1928), 385.
- Etxebarrikoerrota (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.
- Etxebarrikoerrota (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Etxeondo (soroa)

Ahoz: *Etxeondo*

Auzoa: Lumo

Etxearen ondoko lursail edo belardia.

Ik. Etxabe izenaz esandakoa.

Etxetxu (baserria)

Ahoz: *Etxetxu*

Auzoa: Lumo

Lumo auzoko etxea. Etxetxu izenak etxe txikia esan gura du. Etxetxu baserri izena oso zabaldua dago mendebaldean eta gehienetan beste etxe nagusiago bati lotuta sortzen da; gerora, denboraz autonomia lortzen duelarik.

Eugenia Idoiaga emaginaren kalea (-a) (kalea)

Auzoa: Arana

Eugenia Idoiaga (1895-1989) emakumearen omenez ipinitako kale-izena dugu. Domingo Alegria medikuari laguntzen hasi zen emagin lanetan eta horretan jardun zuen XX. ia mendean. La Partera ezizenarekin ezagutua izan zen Gernika osoan.

Euskal Herria (-a) (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Berriki hil den Jose Antonio Arana euskaltzain gernikarrak proposatu zion Udalari Euskal Herria kalea izena jartzea kale horri, inguru horrek dituen ezaugarri sinbolikoak kontuan hartuta (Junta Etxea eta Arbolaren ingurua). Kultura Batzordeak ontzat hartu eta Udalbatzak hala erabaki zuen. Euskaltzaindiak 139. arauan bildu zuen Euskal Herria izenaren erabilerari buruzko oharra.



Izen honen lehenengo aipuak XVI. mendekoak dira. Mende horretan Lazarragak Barrundian idatzitako liburuan eta Leizarragak Zuberoan idatzitako Itun Berriaren itzulpenean ageri da. Horrez geroztik, ugariak dira bere aipuak.

Karmelo Etxegarai eta Fray Martin de Murua kaleen artean sortu zen kale berriaren izena da.

Ezkerrena (-a) (baserria)

Ahoz: *Eskerrene*

Ezkerra izena eta -ena jabetza atzizkiaz eratorritako etxe-izena. Ezkerra, seguru antzean, jabearen ezizena da. Ahoz *Ezkerrene* esaten zaio, amaierako -ena -ene ahoskatzen da eta deklinabide kaltetu baten ondorioz. Ezkerreneko edo Ezkerrenera bezalako forma deklinatuaren eraginezko forma nominal okerra da beraz.

Antza denez, desagertua da eta ezinezkoa dugu kokatzea.

F

Fernando Abaunza (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Fernando Abaunzak (Gernika 1924-1976), kulturaren eta gizarte arloan lan handia egin zuen udalerrian eta bere omenez ipini zitzaion izena kale honi.

Foru plaza (plaza)

Ahoz: *Udaletxeko plazie*

Auzoa: Gernika-Lumo

Euskal foruen omenezko plaza da, Udaletxe aurrean kokatua.



Frai Martin Murua (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Martin Murua (1580-1651) Gernikako semea Mertzedekeko ordenako fraidea izan zen. *Historia de los Incas del Perú* izenburuko liburua idatzi zuen eta handik misiolari ibilitako garaiko esperientziak jaso zituen.

Saraspe plazan hasi eta Errigoitiko errepidetik jarraitzen du.



Frantseskale ik. **Azokakalea**

G

Galtzada (kalea)

Auzoa: Santa Ana

Antzinako Camino Real izeneko bidearen euskarazko itzulpena da. Bilbotik Bermeora doan bide zaharra da.

Gansabale (ah.) ik. **Ganzabal**

Ganzabal (mendia)

Ahoz: *Gansabale*

Ez dago jakiterik Ganzabal edo Ganzabala dan. Ahoz baino ez da jaso eta ez dago dokumentaziorik hori egiaztatzeko. Gan(a) zabala esangura du.

Gañaga (mendia)

Ahoz: *Gañamendi*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: ***Gañagamendi***

Mendi izen generikorik gabeko forma nagusitzen da, eta beraz berori hobetsi da, Ahoz sarri mendi berba gehitzen bazaio ere. Gañaga izenaren amaierako -aga ohi legez -a soila ahoskatzen da, baina dokumentazioak forma osoaren berri eman digu.

Dokumentazioa:

Gañaga (1999) Historia de Lumo, 18.

Gañaga (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Gañagamendi ik. **Gañaga**

Gañamendi (ah.) ik. **Gañaga**

Garratzena (-a) (baserria / desagertua)

Ahoz: *Garratzene*

Auzoa: Gernika-Lumo

Ez da Santa Ana auzoan dagoen baserria, beste mapa batean ageri da eta.

Dokumentazioa:

Garratzene (1929) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XX (1929), 25.

Garratzena (-a) ik. Antxokena

Garratzuetxebarri ik. Txokillo

Gauriaga (-a) (baserria)

Ahoz: *Geurixa*

Auzoa: Lumo

2004ko Gida Kartografikoan *Geuriaga* dakarren arren, fogerazioetan ez da -aga atzizkia dokumentatzen. Edozelan ere ahozko erabilerak -aga duen formaren aldeko ezaugarriak erakusten dituela, izan ere -aga egon ezean, ahozko erabileran *geurie* forma genuke. Gainera ahozko bilketan forma osatu asko bildu dira eta hori errotulazio zehatz bategatik izan daiteke.

Amillaga baserriaren ondoko baserria, San Martin ermitara heldu aurretiko baserria.

Dokumentazioa:

- Gauria (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Gauria (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Gauria (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Geuriyaga (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Geurija (1987) Ermitas de Bizkaia, 197.
- Geuriaga (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Gauriagako senada (soroa)

Auzoa: Lumo

Senada bigarren elementua ezezaguna da, baliteke gaztelaniazko ensenada izenarekin lotura izatea baina esangurari begiratuta ez dirudi halakorik.

Dokumentazioa:

Geuriyaga, Senada de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Gernikabaso (basoa)

Ahoz: *Gernikebaso*

Auzoa: Lumo

Gernika toponimoa eta basoa generikoaz eratutako toponimoa. Lumoko muga barruan Gernika hiribilduarena zen basoa dela dirudi. Pentsa liteke ere Gernika izeneko antzinako baserriarena izatea. Ohikoak dira, herri basoei hiriaren izena eta baso generikoa izena ematea. Gernikako hiribilduak ez zuenez lurrik herri basoak beste udalerrri batzuetako muga barruan izan behar zituen.

Dokumentazioa:

- Guernicabaso (1652) Bizkaiko Foru Agiritegia, TB 0005/011.
- Guernicabaso (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.
- Guernicabaso (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.
- Gernikabaso (1929) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XX (1929), 29.
- Gernikabaso (1999) Historia de Lumo, 17.

Gernikako ibaia ik. **Oka**

Gernika-Lumo

Ikusi sarreran Gernika eta Lumo udalerri izenen etimologiari buruz esandakoa.

Gernikazarra (-a) (lekua eta desagertutako baserria)

Auzoa: Gernika-Lumo

Gernika herriaren izena eta zarra (zaharra) adjektiboaz konposatutako leku-izena. Gernikan toponimo ezagun eta zaharra da.

Gernikako Arbolaren inguruan egiten ei ziren batzarrak, Gernikazarra deitutako lekuan eta Antiguako Andra Maria deituriko ermitaren ondoan; Andra Mariaren eliza berria sortu zenean eta bere inguruan Gernikako hiri berria, goiko aldekoari Gernikazarra deitzen hasi zitzaion eta ermitari Antiguako Andra Maria.

Bestalde, beste kronika batzuetan ere aipatzen da Gernikazarra inguru horretan zegoen dorretxe baten izena zela, bertako familiaren abizena hain zuzen.

Dokumentazioa:

- Gernikazarra (1999) Historia de Lumo, 16.

Geuriya (ah.) ik. **Gauriaga**

Gipuzkoa (kalea)

Auzoa: Arana

2006ko ekainaren 21ean Gernika-Lumoko Udalak Arana auzoko zenbait kaleri Euskal Herriko 7 probintzietako izenak ematea erabaki zuen etxebizitza sozialak egingo ziren gunean; horrela, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa kaleak ditugu inguru horretan. Izenaren osagaiak giputz herritar izena eta -(h)oa atzizkiak dira eta giputzen herria esan nahi du. Bizkaiko mendebaldean eta Debarroan giputz era-biltzen da gipuzkeraz hiz egiten duena izendatzeko.

Goienkale (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Goiko aldeko kalea esan gura du.

Kale honi buruzko lehenengo datu historikoa *Foguer-Vecindario de las villas de Vizcaya del año 1511* liburuan daukagu eta bertan *Somera* izenarekin aipatzen da. Kale honen izenak (Erdi Aroko hiriguneko beste lau hiribilduren moduan) inguruko topografiak markatzen duen mailaketan eta Kosnoaga mendiak ematen dion berezko egituran dauka jatorria. 1627ko dokumentu batean jaso dugun bezala Goienkale da euskaldunek eta bertako herritarrek erabili izan duten forma.

Dokumentazioa:

Goyencalle (1627) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 3194/008.

Goikoplantea (-a) (basoa)

Ahoz: *Goikoplantie*

Auzoa: Zallo

Planta hitzak mintegi esan nahi du, landareak hazten diren lekua. Goiko planteia izenak beraz goiko mintegia, goiko basoa esanahia du.



Goikosoloa (-a) (soroa)

Ahoz: *Goikosoloa*

Auzoa: Zallo

Baserri inguruko lursailei maiz izen bertsuak ematen zaizkie, kokalekuaren arabera (ikus Etxabea toponimoaz esandakoa) eta Goikosoloa edo Bekosoloa toponimoak oso erabiliak dira baserri inguruko lursailak izendatzeko.

Solo hitza bizkaieraz erabiltzen da, euskara arautuan soro da. Nolanahi ere, idatziz euskalkiaren formak gordetzen dira toponimian ohi lez.

Goikoerrota (errota)

Ahoz: *Goikoerrota*

Auzoa: Lumo

Genitiboduna izan arren, lotuta idatziko da etxe izena delako. Lumoko errota da.

Dokumentazioa:

Goicoerrota, Molino de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
Goikoerrota (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Goikoetxea (-a) (baserria)

Ahoz: *Goikotze*

Auzoa: Lumo

Esangurari dagokionez goiko etxea esan gura du, maiz Bekoetxe edo Beaskoetxe izeneko baserria izan ohi da inguruan, hemen gertatzen den lez.

Ahoz bokal elkarketak batu eta *Goikotze* esaten diote, artikulurik gabe, baina artikulua gabeko forma hori ez da oso zaharra, eta beraz, Euskaltzaindiaren irizpideei jarraiturik idatzizko forma osoa artikulua berreskuratze duena izango da. Jatorrizko forma osoa artikuluduna da.

1745eko sutegietan eta gerora ere 1796koan bi zeudela esaten da. 1745ean, hain zuzen ere, **Goikoetxetxua** izeneko beste baserri bat jaso zen.

Lumoko baserri zaharra, behe-rago dagoen Beaskoetxea baserriaren izenaren bikotea dena.

Dokumentazioa:

Aguirregoi-coechea (1672) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 1716/007.

Goicoechea (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Goicoechea maior (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Goicoechea maior (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Goicoechea (1754) Bizkaiko Foru Agiritegia, TB 0015/001.

Goicoechea (dos) (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Goicoetxe (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Goikoetxe (1929) Voces Toponimas Vascas, RIEV, XX (1929), 33.

Goikoetxe (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Goikoibarra (-a) (kalea eta ibarra)

Auzoa: Gernika-Lumo

Erreka ondoko inguru lauaren goialdea adierazi gura du, laborantzarako lur gozoa duena.

Ik. Bekoibarra eta Ibarra leku-izenak.



Golako erreka (erreka)

Auzoa: Erreterria

Beste izen batzuk: *Arratzuko erreka*

Arratzutik Erreterria auzoan sartzen den erreka, Gernika-Lumo eta Arratzu udalerrien arteko muga naturala markatzen duen erreka da.

Dokumentazioa:

Golaco, Rio de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.



Gorostitza ik. Txarakagoikoa

Goikoetxetu edo Goxeaskoetxetu (baserria / desagertua)

Auzoa: Zallo

Ez dakigu ziur bera izan daitekeen Goscoechechu formaz dokumentaturikoa eta 1745eko fogerazioetan Goicoechechu formaz dokumentaturikoa. Izan ere Goikoetxea eta Goxeaskoetxea izeneko bi baserri daude, eta beraz baliteke bi baserri horiek eranskin bana izatea.

Dokumentazioa:

Goscoechechu (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Goskoetze (ah.) ik. **Goxeaskoetxea****Goxeaskoetxea (-a)** (baserria)

Ahoz: *Goskoetze*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: *Lumogoxeaskoetxea (-a)*

Desagertutako baserria, Lumoko Beaskoetxea baserriaren bikotea. Goxeaskoetxea izen soilaz ezagutuko zuten, baina dokumentatu, batez ere, Lumogoxeaskoa izenaz dokumentatzen da. Izan ere, ohikoa zen Goxeaskoa, Beaskoa edota Etxebarria bezalako izen arrunten ondoan auzoaren izena jartzea, udalerrri berean egon zitezkeen izen berdineko baserriak bereizteko asmoz.

Dokumentazioa:

Luno goxeascoechea (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

[Lumo] gojeazcoechea (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Goxeazcoechea (1796) Bizkaiko Fogerazioak.



Ibaigana (-a) (etxea)

Ahoz: *Ibaigane*

Auzoa: Arana

Ibai eta gana (gainean) hitzen elkarketaz eratutako toponimoa. Ibaiaren gainean esan gura du.

Ibarra (-a) (belardia eta baserri desagertua)

Ahoz: *Iberra*

Auzoa: Gernika-Lumo

Ibarra toponimo erabilia eta ezaguna da Gernikan, erreka edo ibai ondoko lursaila esan gura du ibar berbak. Gernika-Lumo inguruetako geografia elementu ohikoa. Ibarra izenez kaleak, lursailak, inguruak, industrialdeak daude, bai eta baserri hau ere.

Bere kokapenari dagokionez, Eriabarrena kaleari buruz esandakoa ekarri behar hona, Ibarbe baserriari buruz esandakoarekin lotura du eta.

Dokumentazioa (baserria):

Ibarra (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Dokumentazioa (belardia):

Ibarra (1930) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXI (1930), 179.

Ibarra (-a) (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Ik. Bekoibarra eta Goikoibarra.

Erreka ondoko inguru lauaren goialdea adierazi gura du, laborantzarako lur gozua duena.

Errekaren inguruko eremu gehienak lehortu zirenean, ibar emankorra agertu zen hiriaren sartaldean. Eremu hau hain zabala zenez, izen ezberdin ugari hartu ditu tokian-tokian: Saraspe ibarra, Santana ibarra, San Juan Ibarra... Gaur egun Giokoibarra, Ibarra eta Bekoibarra

kaleak desberdintzen dira eta bertan kokatu da Gernika-Lumoko Industrialdea



Ibarra (-a) ik. Aldape

Iberra (ah.) ik. Ibarra**Ifarragarre (ah.)** ik. Iparragirre**Igeragena (-a)** ik. Iparragirre**Industria (-a)** (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

XX. mendearen hasieran urbanizatu egin zen kale hau, artean tailer eta lantegi eremua izan zena. Sasoi batean Juan Tomas Gandarias izena izan zuen, politiko gernikarra, negozio-gizona eta eskualdeko jauntxoa izan zenaren omenez. Frankismoaren amaierarekin, udal hau-teskunde demokratikoen ostean, berriro ipini zitzaion Industria izena.

**Iñigo Lopez de Haro** (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Iñigo Lopez edo Enneco Lopiz (agiri guztietan horrela dakar izena), Bizkaiko lehen kondea izan zen, nahiz eta autore batzuk, froga historiko barik, haren aurretik beste batzuk aipatu.

Garibayren garaian (XVI. mendean) da-borduko aipatzen zen historian itzal handia izan duen Haro abizeneko nafar jatorriko leinu hori.

**Iparragirre** (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Jose Maria Iparragirre Balerdi (1820-1881) erromantizismoaren zurrunbiloak hara eta hona astindu zuen foruzale su-tsu, musikari, poeta eta kantore, erbes-teratu, emigrante, negozio-gizon fraka-satua...; baina gaurko euskaldunak, gernikarrak batez ere, *Gernikako Arbola* ereserkiaren egile lez gogoratuko dute-na.



Iparragirre (baserria)

Ahoz: *Ifarragarre*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: *Igeragena* (-a)

Bokal asimilazioa desegin da, normala da Agirre izena, Bizkaian batez ere, *Agarre* ahoskatzea. Iparran dagoen “agirrea”, edo ageriko eremua, esan gura du. Euskararen fonetikan ohikoa da <p> eta <f> doinuen alternantzia, beste hainbat hitzetan ikusten dugun bezala.

Dokumentazioa:

Iparragire (...) (vulg. Ifarragirre)

Iparraguirre (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Iparraguirre (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Iparragire (...) (vulg. Ifarragirre) (1930) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXI (1930), 193.

Ifarragirre (1930) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXI (1930), 184.

Iparragirre (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Iparragirrebidea (-a) (bidea)

Ahoz: *Ifarragarrebide*

Auzoa: Lumo

Iparragirre baserrira doan bidea.

Dokumentazioa:

Iparraguirre, Camino de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Iparragirregoikoa (-a) (baserria)

Ahoz: *Ifarragarregoikoa*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Irilena**, **Irile**

Iparragirre baserria baino gorago dagoen beste baserria, lehenengoa baino berriagoa da. Iparragirre toponimoa eta goikoa berbez konposatutako izena da. Ahoz, antza, *Irielene* esaten zaio, jabearen izenari erreferentzia eginez.

Ik. Iparragirre baserri-izenaz esandakoa.

Lumon Landaberde auzoatik gertu daude Iparragirre eta Iparragirregoikoa baserriak.

Dokumentazioa:

Iparragirregoikoa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Irielena ik. **Iparragirregoikoa**

Isidoro Leon ik. **Barrenkale**

Iturburu (baserri desagertua eta kalea)

Ahoz: *Iturburu*

Auzoa: Lumo

Ahoz, inguruko euskararen fonetikari jarraituz hasierako bokalaren eraginez <t> kontsonante leherkaria busti egiten da eta *Iturburu* esaten diote. Izena aurrerago dagoen baserriaren izenetik datorkio. Antzina iturri bat zegoen leku horretan eta lur-eremu horretako eskrituretan toponimo hori jasota dago.



Allensesalazar etorbidean hasi eta epaitegi atzean amaitzen duen kalea. Hegoaldetik Allendesalazar etorbidearekin egiten du muga eta beste aldetik ez du irteera biderik.

Dokumentazioa:

Iturburu (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Iturralde (basoa)

Ahoz: *Iturralde*

Auzoa: Lumo

Iturri eta alde, inguru, hitzen elkarketaren ondorioz sortutako izena. Iturria dagoen ingurua esan gura du. Ahoz, inguruko euskararen fonetikari jarraituz hasierako bokalaren eraginez <t> kontsonante leherkaria busti egiten da eta *Iturralde* esaten diote. Izen sano erabilia euskal toponimian.

Iturrikoa (-a) (etxea)

Ahoz: *Iturrikoa*

Auzoa: Arana

Iturria duen etxea esan gura du. Ahoz, inguruko euskararen fonetikari jarraituz hasierako bokalaren eraginez <t> kontsonante leherkaria busti egiten da eta *Iturrikoa* esaten diote Araneko etxe honi.



Iturriondo (kalea / plaza)

Ahoz: *Iturriondo*

Auzoa: Zallo

Leku horretan kokaturiko Iturriondo leku-izenetik hartua dugu kale honen izena. Bertan dago oraindik iturria izenaren lekuko.

Itxulikia (-a) (iturria)Ahoz: *Itzulikie*

Auzoa: Lumo

Toponimo iluna da. Ezin esan liteke zer dagoen izen horren atzean. Baliteke iteuli hitza egotea, tabanoa alegia, beharbada inguruan ganadua zegoelako-edo. Baina amaierako -ki atzizkiaren esanahia ez letorke bat, eta ez dio esangurarik gehitzen. Akaso iteulieren antzekoa denari esateko erabilitako izena? Bigarren elementua hegia izan daiteke? Itaulien bazterra esangura luke izenak beraz. Ez dago baina beste dokumentu edo testigantzarik lagungarria denik.

Ixiarre (ah.) ik. **Izagirre****Izagirre** (baserria, teileria antzina)Ahoz: *Ixiarre*, *Isegarre*

Auzoa: Arana

Mitxelenaren ustez Izagirre, bai eta Eizagirre ere, Aizagirreraren aldaerak dira. Azken honen etimologia haize eta agirre dira, haizeak jotzen duen lekua, ageriko eremua, alegia. Ez dakigu, ostera, baserri-izenak jabearen izenetik hartuko zuen izena, edota guneari egiten dion aipamena.

Arana auzoko baserri zaharra, teileria izandakoa. XVIII. mendeko azken urteetako sutegietan ageri da lehenengoz, beraz mende horretako etxea dela pentsa liteke. Izagirre etxea oso garrantzitsua izan zen, baita bertako jabeak ere. Ondoan du Santu Txireneen ermita, etxearena berarena da.

Dokumentazioa:


Izaguirre (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Izagarre (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Izagirre (1930) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXI (1930), 528.

Izagirre (1999) Historia de Lumo, 18.

Izagirre (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.



J

Jai Alai (pilotalekua)

Auzoa: Gernika-Lumo

Frontoi hau Secundino Zuazok egin zuen eta 1963. urtean zabaldu zen. Frontoi honen itxura kartaboi sinple batena da, bi planta ditu eta guztira 1.800 pertsona inguru sartzen dira.

Munduko kantzarik handiena da, 58 metroko luze eta 10,5 metroko zabal dena. Egia esateko badaude frontoi handiagoak ere, Cuban eta Mexikon adibidez, baina horiek itxita daude gaur egun. Gaur egun bisita gidatuak antolatzen dira, Turismo Bulegoarekin elkarlanean, eta zesta-punta erakustaldiak eskaini ere bai.



Jausaondoko errebala ik. Barrenkale

Jose Antonio Agirre Lehendakaria (Plaza)

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: lehengo Geltoki Plaza

Jose Antonio Agirre Lekube (Bilbo, 1904-III-6 - Paris, 1960-III-22) Errepublikasasoiaren eratu zen Euzkadiko Gobernuaren lehengo lehendakaria izan zen. Espainiako Gerrazibilean zehar egon zen agintean eta Euzko Gudarostea eratu zuen. Erbesteratu behar eta hil arte eutsi zion bere karguari.

Geltoki plaza izena ezabatu eta ordezko Jose Antonio Agirre Lehendakariaren plaza jarzea erabaki zuen Udalbatzak 2010eko ekainaren 30ean,

Josepaiturri (iturria)

Auzoa: Kokatugabea

Josepa emakume-izena eta iturri izen generikoaz eratutako leku-izena. Ez dakigu non dagoen, baina 1930ean Eleizalde Brenosak *Voces Toponomasticas Vascas* lanerako bildu zuen izena Gernikan.

Dokumentazioa:

Josepa-iturri (1930) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXI (1930), 533.

Juan Calzada (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Juan Joaquin Calzada y Echaniz Ajangizen jaio zen 1829an eta San Frantziskon (Kalifornia) hil zen 59 urte zituela, 1888ko azaroaren 12an. Merkataritza-itsasontzietako kapitaina zen eta negozioetan aritu zen bizitza osoan (Txilen, El Salvador-en, Estatu Batuetan,...)

Behin, Kaliforniako San Frantziskora joan zitzaion Adolfo Urioste bisitan eta bertan zela gaixotu eta hil zen. Testamentua egin zuen Adolfo Urioste lagunaren alde eta honek zera agindu zion: diru guztiak on-egite lanetan erabiliko zituela. Halaxe, bada, bien artean erabaki zuten Gernika-Lumon ospitale bat eraikitzea (Calzada Egoitza).

Juntetxea (-a) ik. Batzar Etxea

K

Kalekotxu (baserria eta kalea)

Ahoz: *Kalekotxu*

Auzoa: Erretereria

Beste izen batzuk: ***Kalekotxuena (-a)***

Kalekoa eta -txu atzizki txikigarriaz eratutako izena da. Seguru antzean jabearen ezizena da, ez jatorriz etxearena. Baserriaren izena hartu du ondoan duen kaleak.

**Kantera** ik. Kantereta**Kantereta** (basoa)

Ahoz: *Kantara*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: ***Kantera***

Toponimo honetan -eta atzizkidun forma erabiltzea hobetsi da, jatorragoa delakoan eta ahozko erabileran bizirik delako.

Dokumentazioa:

Kantera (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Karmelo Etxegarai (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Azpeitian jaio zen, 1865eko ekainaren 3an. Gernikan bizi izan zen. Kronikari, liburuzain eta artxibozain egin zuen lan 1896tik 1925eko azaroaren 4an hil zen arte.

1965ean, Karmelo Etxegarairen jaiotzaren urteurrena ospatzeko, kale zati honi bere izena ipini zioten. Bera bizi zen Saraspe plazatik Juntetxeraino lanera joateko egiten zuen eguneroko ibilbidea gogoratu gura izan zuten orduko udal arduradunek.



Katarroren jatetxea (-a) (etxea)

Ahoz: *Katarron etxea*

Auzoa: Gernika-Lumo

Gaur egun etxe honetan jatetxe bat dago. Bertako jabearen ezizenetik datorkio izena etxe honi.

Etxe zaharra bota eta itxura bereko berria eraiki zuten familiakoek. Gaur egun ere Katarroren etxea izenetik ezagutzen dute herriko nagusiek.

Katekonekoa (-a) (baserria)

Ahoz: *Kateko*

Auzoa: Erretereria

Erretereria auzoan. Katea zegoen etxea, fielatoa edo kontsumo-zerga ordaindu behar zen etxea. Desagertu egin den arren, Udalbatzak toki horretan plaka bat jartzea erabaki zuen toponimo horren lekukotzat.

Katea toponimoa sarri topatzen dugu beste udalrri batzuetan ere, ezagunena beharbada Erandioko Asua auzoko Katea (erdaraz La Cadena) ingurua da.



Kortezubibidea (ah.) (bidea)

Kosnoa (ah.) ik. Kosnoaga

Kosnoaga (baserria eta mendia)Ahoz: *Kosnoa*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Aizerrota** (mendia), **Kosnoagaantxonena** (-a) (baserria)

Bokalarteko <g>aren galera ahozkoan jasotzen da, izan ere -aga amaierako atzizkia -a bakarrik ahoskatzen da inguru honetan. Forma arautuan berreskuratu egin da baina. Kosnoaga mendi tontorrean zegoen haizezko errotagatik herritar askok mendiari Kosnoaga deitu beharrean Aizerrota esaten diote.



Etimologiari begiratuta ez dago argi, baina antza “kosno” formaren atzean gorosti zuhaitz izena egon daiteke -ño atzizki txikigarria eta fitonimoekin sarri erabiltzen den -aga leku edo ugaritasun atzizkia. Hau da, gorosti txiki ask- dagoen lekua esan gurako luke. Hala balitz arauzko izen egokia Gorosnoaga-edo litzateke, hasierako leherkaria ahostuna eginenez, eta bokal arteko <r> galdua berreskuratuta; baina hori oinarritzeko dokumentaziorik ez dagoenez, dagoen bezala utziko dugu. Markina-Xemeinen ahoz *Kostolamendi* izenaz ezaguna den mendia dago, idatziz eta dokumentazioak argi erakusten duen bezala Gorostolamendi delarik.

Dokumentazioa (baserria):

Cosnoága (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Kosnoa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Kosuoaga-antxona (1930) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXI (1930), 544.

Dokumentazioa (mendia):

Aize-errota (1930) Voces Toponomasticas Vascas, Euskal Esnalea, 20 (1930), 104.

Kosuoaga (sic.) (1930) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXI (1930), 544.

Kosnoaga (1999) Historia de Lumo, 17.

Kosnoaga (1999) Historia de Lumo, 15.

Kosnoaga (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Kosnoagaetxebarri (baserria)Ahoz: *Kosnoatzebarri*

Auzoa: Lumo

Kosnoaga baserri izena eta etxebarri (etxe berria) izen sintagmaz eratutako leku-izena. Kosnoaga baserri multzoko etxerik berriena delako seguru antean.

Ik. Kosnoaga izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Cosnoága-echévarri (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Kosnoa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Kosnoagagoikoa (baserria)Ahoz: *Kosnoagoikoa*

Auzoa: Lumo

Kosnoaga baserri-izena eta goikoa postposizioaz eratutako izena da. Kosnoaga baserri multzoko goien dagoena esan nahi du.

Ik. Kosnoaga izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Kosnoagoicoa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Kurtzea (-a) (gurutzea/monumentua)

Ahoz: *Gurutzie*

Auzoa: Erretereria

Donejakue bidean, bidegurutzean dagoen gurutzea. Ziortzatik Gernika-Lumora doan kostaldeko bidearen ezau-garrietako bat da eta Erretereria auzoko bidegurutzean kokatuta dago.



Kurutzebidea (-a) (bidea)

Auzoa: Lumo

Tradiziozko euskal toponimian bidea izen generikoa daramaten izenak lotuta idatzi dira. Izenaren lehen elementua kurutze berba da (gurutzea) eta bidean dauden 14 gurutzeengatik hartu du izena bide honek.

Andra Mari elizan hasi eta Lumorako bide honek albo bietara 14 gurutze dauzka. Gerra Zibilean ipini ei ziren gurutzeak, nahiz eta antza lehenagotik amaituta zeuden.

L

Lamiñaga (ingurua)

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Errebatxa**

Bertan dago gaur egun Garbigunea (zaborren bilketa selektiboa egin eta zabortegira transferitzen da bertan). Lamien lekua esan gura du, lamina eta -aga lekua adierazteko atzizkia erabili dira izenean.

Ik. Errebatxa.

Ik. Lamiñaerreka izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Laminaga edo Errebatxe (1999) Historia de Lumo, 18.

Lamiñaerrekea (-a) (erreka)

Ahoz: *Lamiña*

Auzoa: Lumo

Lamina eta erreka berbez konposatutako izena. Lamiak, lamiñak bizkai euskaraz, erreketan bizi ziren pertsonaia mitologikoak dira, gerritik gora emakumezkoak eta oinak edo hankak ahatearenak zituzten.

Lamia berba sarritan errekek izendatzeko erabili izan da edo erreka inguruetan ageri zaigun toponimian, besteak beste, horra hor Leioako Lamiako auzo-izena edo Usansoloko Lamiñarrieta toponimoak.

Bastegieta inguruan jaio eta ibilbide labur baten ostean Zarratuko errekan isurtzen ditu urak.

Dokumentazioa:

Lamiñaerreka (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Landaberde (auzoa eta baserria)

Ahoz: *Landaberde*

Auzoa: Lumo

Landa berba, larra esan gura duena, eta berdea adjektiboaz eratutako izena. Berde izenondoa mailegua bada ere, euskarak aspaldi bereganatu zuen, eta toponimian agertzean erakusten du euskaraz ondo egokitutako eta erabilitako berba dela.

Forua udalerriaren muga, auzo honek Foruko zein Gernika-Lumoko mugak hartzen ditu.

Dokumentazioa (auzoa):

Landaverde (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Dokumentazioa (baserria):

Landaberde (1931) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXII (1931), 292.



Landaberdeko erreka (erreka)

Ahoz: *Landaberdeko errekie*

Auzoa: Lumo

Landaberde Foruko auzo izena da. Bertatik pasatzen den errekarri esaten zaio horrela. Gernika-Lumo eta Foruren arteko muga egiten du.

Ik. Landaberde toponimoaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Landaverde, A° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Landaetxebarria (-a) (baserria, desagertua)

Ahoz: *Landetxebarri*

Auzoa: Zallo

Landa eta etxebarria (etxe berria) izen sintagmez eratutako toponimoa. Baliteke Landa izeneko beste baserri bat egon izana eta hau horren bikotea izatea. Baina ez dugu hori egiaztatzeko dokumenturik aurkitu.

Dokumentazioa:

Landa-echevarría (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Landaguren (soroa)

Ahoz: *Landaguren*

Auzoa: Lumo

Landa eta guren, bazterra, osagaiak ditu izen honek. Bazterrean dagoen lana esan gura du. Lumoko lursail baten izena da. Guren elementua toponimian gorde da batez ere, eta Gernika-Lumon ezaguna da Bidaguren (*Bideun*) baserri izenagatik esate baterako.

Landazabal (etxea)

Ahoz: *Landasabale*

Auzoa: Arana

Landa izena eta zabal(a) adjektiboaz eratutako leku-izena da. Arana auzoko etxe baten izena da, eta seguru antzean etxean eraikita dagoen ingurutik hartuko zuen izena.

Dokumentazioa:

Landazabale (1931) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXII (1931), 293.

Lapikotxuena (-a) ik. **Benturena**

Lapurdi (kalea)

Auzoa: Arana

2006ko ekainaren 21ean Gernika-Lumoko Udalak Arana auzoko zenbait kaleri Euskal Herriko 7 probintzietako izenak ematea erabaki zuen etxebizitza sozialak egingo ziren gunean; horrela, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa kalean ditugu inguru horretan.

Larrabaltzak (-ak) (basoa)

Ahoz: *Larrabaltzak*

Auzoa: Lumo

Larra eta baltz adjektiboaz eratutako baso-izena da. Pluralean erabiltzen da Larrabaltzak, seguru antzean ingurua izendatzeko izen generiko gisa erabili izan delako, larra beltzak edo.

Larragan (basoa)

Auzoa: Lumo

Ahoz: *Larragan*

Larrearen gainean dagoen basoa esan gura du. Lumoko basoa da.

Larrarte (basoa)

Auzoa: Lumo

Ez dugu kokatu, baina 1780ko agiri zahar batean jaso da baso honen izena. Larren artean dagoen basoa izango zelako-edo.

Dokumentazioa:

Larrarte (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Larratxu (mendi-lepoa)

Auzoa: Lumo

Larra txikia esan gura du. Gernika-Lumo inguru honetan baso-izenetan sarri ageri zaigu larra hitza, landatu gabeko lursaila esan gura du, landa. Larratxu etxebarría izeneko baserria zegoen, eta pentsatzekoa da Larratxu izeneko baserria ere izango zela, Eta agian lotura izatea toponimo honekin.

Dokumentazioa:

Larratxu (1931) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXII (1931), 299.

Larratxu etxebarría (-a) (baserria / desagertua)

Auzoa: Arana

Larratxu, larra txikia eta etxebarría izenaz eratutako toponimo konposatua. Antza Arana auzoan zegoen baserria da, gaur egun desagertuta dago.

Dokumentazioa:

Larrachu-echevarría (Arana) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Larreta (basoa)

Ahoz: *Larreta*

Auzoa: Lumo

Larra eta -eta leku-atzizkiaz eratutako izena. Larrak izen generikoaz sortua seguru antzean, eta erabileran deklinatzean larretara, larretatik, larretan bezalako formetatik erantsi zaio amaierako -eta atzizki pluralgilea eta Larreta izena erabiltzen da gaur egun.

Larrondo (baserria)Ahoz: *Larrondo*

Auzoa: Gernika-Lumo

Larra eta ondo leku postposizioa zeratutako toponimoa, larrearen ondoan dagoen baserria esan gura du. Bokal elkarketa <ao> lotura aspaldiko dokumentuetan ageri da eta <o> arautu da.

Dokumentazioa:

- Larraondo (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Larrondo (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Larrondo (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Larrondo (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Larrondo (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Larrondo (1931) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXII (1931), 301.
- Larrondo (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Laugizonsolo (belardia)Ahoz: *Laugizonsolo*

Auzoa: Zallo

Lau zenbakia, gizon eta solo berbez eratutako izena. Gizon berbarekin, gizonlan edo gizalan hitzen parekoa, gizon batek egun batean egin dezakeen beharra adierazten da eta lursailak neurtzeko erabiltzen den neurria da, hain zuzen ere, gatzelaniaz *peonada* esaten zaio.

Etxebizitza sozialak egin diren lurretan zeuden belardietako batzuk neurketa sistema horren arabera izendatzen ziren eta badaude hango eskrituretan horrelako izenak (hiru..., lau..., bost..., sei..., saspigizonsolo...). Han sortutako kaleei euskal lurraldeetako izenak ipini zaizkie.

Legarreta (baserria)Ahoz: *Legarreta*

Auzoa: Lumo

Legar (grava) eta -eta ugaritasun atzizkiaz eratorritako baserri-izena, Lumoko baserria.

**Lexarraga** (baserria)Ahoz: *Lexarre*

Auzoa: Zallo

Lizar, bizkai euskaraz lexar, arbola izena eta -aga ugaritasun atzizkiaz eratorritako izena da Lexarraga. Ahoz *Lexarre* esaten diote, amaierako -aga>-a bihurtzen da bokal arteko kontsonante galeraren ondorioz, eta ondoren okerreko deklinabide interpretazio baten ondorioz amaierako -a -e bihurtu da ahozko erabileran. Baina esan bezala azken fenomeno hori hizkuntza ukipenek eta euskararen atzeratzearen ondorioz denez gero, Euskaltzaindiak idatziz ez erabiltzeko gomendioari jarraituko diogu.

Ustez gaur egun desagertua dago, Zallo auzoko baserri hau.

Dokumentazioa:

Lexarraga (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Lejarraga (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Lejarra (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Lexarre (1932) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIII (1932), 415.

Lexarre (ah.) ik. **Lexarraga**

Lizeo Antzokia (antzokia)

Loitza (ah.) ik. **Loitzaga**

Loitzaga (kalea)

Ahoz: *Loizaga*

Auzoa: Gernika-Lumo

Udalbatzak Euskaltzaindiaren arauetara egokitzeko 2010eko ekainaren 30ean hartu zuen erabakia. Ordura arte Loizaga kalea deitzen izan dena Loitzaga kalea izango da aurrerantzean.

Loizaga familia aintza handikoa izan da betidanik Gernika-Lumon: Antonio Joaquin de Loizaga 1768an Antiguako Andra Mari ermitan egin ziren obretako arduraduna izan zen. Ostekoak: Jose Joaquin de Loizaga (diputatu nagusia; 1.790ean ermita bereko obrak egin zituen), Jose Joaquin de Loizaga (Napoleonen gudarosteak eragindako kalteak konpondu zituen Artxibategian), Casimiro Loizaga (1782-1841; frantsesen kontrako Independentzi Gerran nabarmendu zen), Timoteo Loizaga (1820-1892; Bizkaiko Diputatu Nagusia izan zen - 1848-1850 eta 1856-1858).

Hegoaldean Iparragirre kalea eta iparraldean Jose Antonio Agirre Lehendakariaren plaza (lehen Geltoki plaza) ditu muga.

Lorategieta (auzoa)

Ahoz: *Lorategieta*

Auzoa: Erreterria

Lorategieta auzo-izena ondoan dagoen baserri-izenetik dator. Lorategietan baserria Ajangizen dago, baserri zaharra da. Lorategia, loreak dauden lekua esan gura du, eta amaierako -eta atzizkia toponimian agertzen de atzizkia da, lekua edo ugaritasuna esan gura duena.

Erreterria biztanle entitateko auzunea.

Lubarria (-a) (basoa, belardia)

Ahoz: *Lubarrixe*

Auzoa: Arana eta Lumo

Mendebaldeko euskararen ezaugarri da “barri” forma. Ahozko erabileran berri agertzen bada ere toponimo honetan aurreko bokalaren eraginez egindako bokal itxitura baino ez da, eta beraz idatziz barri erabili behar da.

Lubarria, euskara batuan luberria, hitz generikoa da, ereiteko prest dagoen lur eremua esan gura du, goldea pasatuta duena.

Lumo (biztanle entitatea)

Ahoz: *Lumo, Elisaldie*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **San Pedro, Elexaldea (-a)**

Izen asko dituen arren Lumo da zaharrena. Hagiotoponimo, San Pedro eta toponimo baten artean, toponimoari eman zaio lehentasuna. Izen ofizial osoa, berriz, San Pedro de Lumo da.

Jatorriko forma egokia Luno da, baina ahozko aldaera gailendu egin da eta normaldu egin da Lumo izenaren erabilera. Gaur egun Gernika-Lumoko auzoa, baina garai batean elizatea izan zen, 1982. urtean Gernikara lotu zen arte.

Ik. Sarreran Lumo izenaz esandakoa.

Lumo ik. **Zarratuko errekea**

Lumobeaskoetxea (-a) ik. **Beaskoetxea**

Lumoetxebarria (-a) (baserria, desagertua)

Auzoa: Zallo

Behin baino ez da dokumentatu izen hau, Zallo auzoan. Baliteke Etxebarrikoerrota izenaz ezagutzen duguna izatea.

Dokumentazioa:

Luno-echevarría (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Lumogoitia (-a) (baserria)

Ahoz: *Lumogoitti*

Auzoa: Lumo

Lumo izena eta goitia lekua adierazten duen postposizioa. Jatorrizkoa artikuluduna bada ere, ahozko erabileran artikulua desagertu egin da. Goitia aldaera, eta ez goikoa aldaera agertzeak izen zaharra dela adierazten digu.

Betanzos Aita plazatik ateratzen den



bideko baserria. Lumoko baserririk zaharrenetakoa, 1704ko baserri-eroldan dagoeneko ageri dena.

Dokumentazioa:

Luno goitia (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Lumo (sic) goitia (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Luno goitia (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Lumo-goiti (1932) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIII (1932), 425.

Lumogoiti (2004) Bizkaiko Gida

Kartografikoa, 17.

Lumogoxeaskoetxea (-a) ik. Goxeaskoetxea

Lumoko iturria (-a) (iturria)

Ahoz: *Lumoko itturixe*

Auzoa: Lumo

Lumon, Lumogoitia baserriaren aurrean dagoen iturria.



Lumoko kaltzada (bidea)

Ahoz: *Lumoko galtzadie*

Auzoa: Lumo

Lumora igotzeko egin zen Erdi Aroko galtzadari ematen zaio Kaltzada izena, andabide lez ere erabiltzen zena Gernikatik Lumora gorpuk eramateko.

Dokumentazioa:

Calzada de Lumo (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.



Lumotorre (dorretxea)

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: *Torre*

Lumoko dorretxea, Betanzos Aitaren plazan dagoena, Lumoko herrigunean.

Dokumentazioa:

Luno, casa-torre (1704) Bizkaiko Foge-razioak.

[Lumo] torre (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Luno, casa-torre (1796) Bizkaiko Foge-razioak.



Lupiolaerreka (basoa)

Auzoa: Kokatu gabea

Lupiola (lupia, animalia eta ola –erota edo lursaila- izenen konposaketa, seguru antzean oikonimoa) eta erreka izenez konposatutako toponimoa. Mendebaldeko toponimian erreka berbak, ibaia esanguraz gain, lursaila edo basoa esangura ere izan du. Beraz ola eta erreka hitzak bata bestearen ondoan egotea erredundantzia ematen du. Azeri tokia esan gura du, lupiak zeuden lur edo ingurua.

Bizkaiko Foru Agiritegiko basoei buruzko 1780ko errolda batean jasotzen den baso-izena da eta ez dugu kokatu.

Dokumentazioa:

Lupiolaerreca (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Lurgorri (kalea eta belardia)

Ahoz: *Lurgorri*

Auzoa: Arana

Arana auzoko belardi baten izena izatean gain, kale-izen bat ere bada.

Lur hitza eta gorri adjektiboaz konposatutako izena da. Lurgorri izena herriko paraje honi lurraren kolore gorrixkatik datorkio. Izan ere, Aro Sekundarioaren barruan Triasiko (Keüper) aldiko buztin gorritz osoturiko lurak dira. Buztin gorri horiek garai baten Izagirre eta Amunaga baserrietako teilategian erabiltzen ziren.

Lurgorri izeneko kalea Gernika-Lumoko sarreran dagoen errotondatik Santa Luzia ermitaraino heltzen da. Ekialde-mendebalde orientazioa dauka.

Dokumentazioa (belardia):

Lurgorri (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.

Lurgorri (1999) Historia de Lumo, 18.

M

Madabide (basoa)

Auzoa: Kokatu gabea

Mandoan joaten ziren bidea pasatuko zen seguru antzean leku honetatik. Ez dugu kokatzerik izan, 1780ko dokumentu batean jaso da.

Dokumentazioa:

Mandavide (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Madalengoitiabidea (-a) (bidea)

Auzoa: Kokatu gabea

Izan daiteke Erretereria auzoko *Maloste* (Madalenoste) toponimoarekin lotura izatea, baina ez dago argibiderik. 1923an argitaratu zuen Eleizalde Brenosak *Voces Toponomasticas Vascas* lanean.

Dokumentazioa:

Madalengoitia, C de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Madalenoste (Maloste) (plaza)

Ahoz: *Maloste*

Auzoa: Erretereria

Erretereriako plaza. Jatorrizko izen osoa eta egokia Madalenoste da, Magdalena ermita bertan zegoelako, eta plaza eta kiroldegia haren atzean, ostean, daudelako. Izena, berriz, ez da asmatua, Ajangizko udalerriko mugetan zegoen baserri izenetik dator, dokumentazio zaharrean *Magdalena* oste formarekin dokumentatzen dena; ahaz, *Maloste* esaten diote, bokal arteko kontsonanteak desagerraraziz. Hain dago zabaldua, non ezin izan den Madalenoste forma osoari eutsi, herriarrek ez lukete-eta identifikatuko.



Madariaga (etxea)

Ahoz: *Madariaga*

Auzoa: Gernika-Lumo

Madariaga euskal abizena oso zabaldua dago Euskal Herrian. Madariondoen lekua esan gura du. Etxe honek izena jabearen abizenetik hartu du. Madariaga izeneko baserri zaharra dago hala ere Lumon.

Madariaga (baserria)

Ahoz: *Madarixa*

Auzoa: Lumo

Madariaga baserria 1704ko sutegei-eroldan dokumentatu zen lehenengoz, beraz pentsatzekoa da XVI. mendeko baserria dela. Eraikinak, oster, hainbat berriztatze izan ditu harrezkero, baina garai haietan egon bazegoen inguru berean izen bereko baserria.

Madariaga, madarien lekua esan gura du. Madariondoak zeuden lekua, alegia. Amaierako -aga atzizkia, lekua edo ugaritasuna adierazten du, eta sarritan fitonimo edo landare-izenekin ageri da. Bizkaiko euskaraz amaierako -aga ez da ahoskatzen, -a baino. Izan ere, bokal arteko leherkari ahostuna <g> kontsonantea askotan desagertzen da ahoskeran.

Horrela *Madarixa* esaten diote baserri honi, amaierako bokal elkarketa *yod* epentetiko baten bidez markatuta, bertako euskalkiaren joerei jarraituz.

1780ko dokumentu zahar batean **Madariagaerreka** toponimoa ageri da, seguru antzean etxe honen inguruko basoaren izena izango zen, ez dakigu, berriz, gaur egun erabilia eta ezaguna den.

Lumoko baserri zaharra, Amillaga inguruan dagoena.

Dokumentazioa:

- Madariaga (1704) Bizkaiko Fogeraioak.
- Madariaga (1745) Bizkaiko Fogeraioak.
- Madariaga (1796) Bizkaiko Fogeraioak.
- Madariaga (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Madariaga (1932) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIII (1932), 427.
- Madarija (1987) Ermitas de Bizkaia, 197.
- Madariaga (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Madariagabidea (-a) (bidea)

Ahoz: *Madariyabidie*

Madariaga baserrira doan bidea.

Ik. Madariaga toponimoaz esandakoa.

Dokumentazioa:

- Madariaga, C° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Madariagaerreka (basoa)

Ahoz: *Madariyaerrekie*

Auzoa: Lumo

Madariaga baserri izenaz elkartutako berba da, bigarren elementua erreka da. Erreka berba toponimian, ibaia esanguraz gain, badu beste esangura bat ere, hain zuzen lursail edo basoa. Bizkaiko toponimian asko dira erreka lexemaz eratorritako baso-izenak. Ez dakigu, berriz, baso hori erreka ingururen batean edo troka itxurakoa ote zen, eta horregatik esango ote zitzaion horrela, betiere ez da horrela gertatzen eta.

Madariaga (Lumo) baserri inguruko basoa izango zen, hurrean. 1780ko Foru Agiritegiko dokumentu zahar batean baino ez da jaso eta basoa zela dio.

Ik. Madariaga (Lumo) baserri-izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

- Madariaga erreka (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Madarixa (ah.) ik. **Madariaga**

Madura (baserria)

Ahoz: *Madure*

Auzoa: Zallo

Madura izeneko baserri-multzoa hiru etxek osatzen dute: Madura, Madurazar eta Maduraerrota. Hirurek ere Lumoko Zallo auzoko baserri zaharrak dira eta sutegi-erroldetan 1704az geroztik ageri dira; Maduraerrota 1745az geroztik.

Jatorrian Madura izeneko baserri bi izango ziren, gerora zaharrenak -zar adjektiboa hartu zuen izenaren atzetik, zaharrena zelako eta bi etxeok bereizteko. 1860ko Izendegian *Maduretas* formaz ageri da, bitxia berori, izan ere -eta ugaritasuna adierazten duen atzizkia da (ez -etas; forma hori okerra da, erdararen eraginezkoa), eta pluralez-edo erabili ote zelako erakuslea, hau da, *Madurak* esaten badugu, etxe multzoari erreferentzia egiteko, deklinatzean *Maduretatik*, *Maduretara* edo *Maduretako* esango litzateke eta ondorioz, forma nominala *Madureta* geratuko zen. Forma hori behin baino ez bada dokumentatzen, toponimo honen erabilerari buruzko informazio polita eskaini digu. *Madureta* izena, basoa izendatzeko ere erabili izan da.

Ahoz *Madure* esaten diote, Arane edo horrelako beste toponimoetan gertatzen den lez.

Madura berba *padura* edo *fadura* berbaren aldaera izan liteke, errecondoko lursail laua hain zuzen ere.

Ik. *Madureta* toponimoari buruz esandako.

Dokumentazioa:

Madura, otra (1704) Bizkaiko Fogeraioak.

Madura (1745) Bizkaiko Fogeraioak.

Madura (1796) Bizkaiko Fogeraioak.

Mederuétas (1860) Bizkaiko Izendegia.

Madura (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Madura, -errota y -zarra (1932) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIII (1932), 428.

Maduraerrota (baserria, errota)

Ahoz: *Marikorte*,

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: **Madurakoerrota**

Ik. Madura.(baserria)

Errota honi gaur egun *Marikorte* edo *Marikorta* esaten badiote ere, jatorrizko izen osoa *Maduraerrota* da, ahoskeraren eta ahozko transmisioak eragin du, hitzunek aparteko etimologia bat eraikitzea eta Mari eta korta berbez eratua dagoela pentsatzea, baina ez da horrela. Ahoz erabiltzen den *Marikorta* forma horren atzean *Madurakoerrota* edo *Maduraerrota* dago.

Madura berba *padura* edo *fadura* berbaren aldaera izan liteke, errecondoko lursail laua hain zuzen ere.

Zallo auzoko baserri-errota zaharra, Madura baserri multzoko etxea.

Ikusi Madura baserri-izenaz esandakoa.



Dokumentazioa:

- Madura, mo° (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Madura, mo° (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Madura, -erota y -zarra (1932) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIII (1932), 428.
- Madulikoerota (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.
- Marikoerota (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Maduraetxebarri ik. **Etxebarria****Madurakoerota** ik. **Maduraerota****Madurazar** (baserria)

Ahoz: *Mausarre*

Auzoa: Zallo

Ahoz *Madure* esaten diote, *Arane* edo horrelako beste toponimoetan gertatzen den lez. *Madurazar* baserri-izen honi, ostera, *Mausarre* esaten diote, *Bideune* < Bidaguren toponimoaz jazo bezala deklinabidearen ondorioz amaierako kontsonantearen ostean -e gehitu zaiolarik. Azken bokal berri hori, ez da egokia berreskuratzea deklinabide kaltetu baten ezaugarria delako. Era berean, bokal arteko <d> eta <r> kontsonanteak ahoskeran desagertu egiten dira.

Madura berba padura edo fadura hitzaren aldaera izan liteke, errekonkoko lursail laua hain zuzen ere.

Zallo auzoko baserria.

Ik. Madura (baserria)

Dokumentazioa:

- Madura (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Madura zar (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Madura zar (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Madura (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Madureza (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Madura, -erota y -zarra (1932) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIII (1932), 428.
- Madure (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.
- Madura (1999) Historia de Lumo, 18.
- Madurazar (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Madureta (basoa)

1780ko dokumentu batean *Maderueta* formarekin dokumentatu bada ere, baso honen izen osoa Madureta da. Zalantza barik Madura toponimoa, baserri-izena + -eta leku-atzizkiaz osaturiko toponimoa da. Madura izeneko baserri inguruan zegoelako edota euren jabetzakoa izango zelako beharbada.

Dokumentazioa:

- Mederueta (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.
- Mederueta (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Maileskoena (-a) (baserria)

Ahoz: *Mailleskoene*

Auzoa: Txaporta

Mailes berbari buruz Euskaltzaindiaren Orotariko Hiztegiak honakoxea dakar: “seto de prado comunal”. Ez dakigu baina hitz horrekin loturarik duen leku-izen honek.

Dokumentatuta dago Maileskoena baserria eta ondoan dagoen baserriari Maileskoenabekoa esaten diote.

Dokumentazioa:

Mayoskene (1933) Voces Toponómicas Vascas, RIEV, XXIV (1933), 284.



Maileskoenabekoa (-a) (baserria) ik. **Maileskoena**

Ahoz: *Mailleskonebekoa*

Auzoa: Txaporta



Maisuzarratu (basoa)

Ahoz: *Maisusarratu*

Auzoa: kokatu gabea

Maisu berba, irakasle esan gura duena, eta zarratu berba dira leku-izen honen elementuak. Zarratu berba lursail itxia esan gura du, eta Bizkaia osoko toponimian ugari ageri da. Maisuaren zarratua edo lursaila esan gura du.

Makatza (iturria)

Ahoz: *Makatze*

Auzoa: Arana

Makatza berba berez hasten den landareak izendatzeko erabiltzen da, batzuentzat madari edo udare mota bat da.

Makatza toponimoa makatza berba gehi –aga atzizkiaz osaturikoa izan daiteke eta ahoskatzerakoan *Makatzeko iturria* eta horrelakoak esaten direnez, forma nominala *Makatze* geratu da ahoz.

Malgorbe (basoa)

Auzoa: Lumo

1932an Luis de Eleizalde Brenosak egindako *Voces toponomásticas vascas* lanean jasotako baso-izena da. Gaur egun izena ezaguna eta erabilia den ez dakigu.

Etimologia iluneko toponimoa da. Malgor hitzak zuhaitz ihartua, usteldua esan gura du eta horrekin lotura izan dezake hurrean.

Lumoko basoa, Errigoitiko mugan.

Dokumentazioa:

Malgorbe (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Malorbe, C de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Magorbe (1932) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIII (1932), 428.

Maloste (ah.) ik. **Madalenoste**

Mamategi (basoa)

Ahoz: *Mamatei*

Auzoa: kokatu gabea

Mama berbak haur hizkeran ura esan gura du, eta helduek ere *mama gozo* esaten diote ardo edo txakolinari. Baliteke Mamategi izena ura jaiotzen den lekua izatea, edo ur ugaria dagoen lekua.

Mamatei (ah.) ik. **Mamategi**

Marreka (erreka eta sastraka)

Ahoz: *Marreka, Marraka*

(erreka) Zallo

Beste izen batzuk: **Margaerreka**

Marreka izen bereko basoan jaio den ibaia, eta handik datorkio izena. Edozelan ere, *Marreka* izena toponimo iluna da, eta baliteke Berrekondo toponimoaren lotura izatea, edota 1932ko lan batean jasotako Margaerreka toponimoan, Marga emakume izena eta erreka berbez konposatutako toponimoan. Datuak faltan dira eta ezin da gauza argirik esan, baina “b” eta “m” kontsonanteen artean txandaketa ahozko hizkuntzan normala dela go-goan izanda, badirudi Marreka toponimoaren atzean beste hitzen bat egotea, gaur egun desitxuratua. Resurreccion Maria de Azkuek *Diccionario Vasco Español Frances* lanean barrauke berba dakar behientzako zarratu esangurarekin. Ez da beste inongo hiztegitan ageri, baina toponimia txikian beste udalerriren batean topatu dugun berba da hori.

Erreka berba, ibaia esanguraz gain, inguruko toponimian eta Bizkaiko beste hainbat lekutan bezalaxe oronimian erabilia da baso izenak edo lursailak izendatzeko. Pentsa liteke inguruan ibai edo trokaren bat zegoelako hartzen dutela izena, baina betiere ez da horrela izaten. Beraz, esan genezake erreka berbak baduela lursail, zarratu edo baso esangura. Edozelan ere, *Marreka* edo *Margaerreka* izeneko erreka dago inguruan, beraz, hemen ibai izenetik eratorria izango da baso izena seguru antzean.

Elorrietatik jaisten diren bi erreketatik bat.

Dokumentazioa (erreka):

Marreka (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Dokumentazioa (sastraka-basoa):

Margarreka (1932) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIII (1932), 433.

Marijesiak plaza (-a) (plaza)

Ahoz: *Marijesixen plazie*

Auzoa: Gernika-Lumo

Gabon aurreko bederatziurreneko ohiturarekin lotuta dago. Marijesiak deitzen zaie abenduaren 15etik 24 bitartean goizaldero aritzen diren kantariak, kristoren jaiotza iragartzeko ahapaldietan kantatuz. Erdi Aroko auto sakramentaletan ei dauka jatorria.

Marikorte (ah.) ik. **Maduraerrota**

Maritxuena (-a) ik. **Benturena**

Marreka (ah.) ik. **Margaerreka**

Marreka ik. **Margaerreka**

Masandegi (basoa)

Auzoa: kokatu gabea

1780ko Foru Agiritegiko dokumentu batean Masandegi izeneko basoa jaso da Gernika-Lumon. Ez dakigu, berriz, gaur egun hiltunen batek erabili eta ezagutzen duen leku-izen hau.

Etimologiari dagokionez, baliteke mahats berbarekin lotura izatea, baina ez dago egiazta-zerik beste informaziorik izan ezean.

Dokumentazioa:

Masandegui (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Masandegui (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Mausarre (ah.) ik. **Madurazar**

Mendia (-a) (mendia)

Ahoz: *Mendixe*

Auzoa: Lumo

Mendiaretxeta (basoa)

Auzoa: Arana

Mendiko, haretx (haritza, zuhaitz mota) gehi -eta lekua adierazteko atzizkiaz eratorritako izena. Baso izenetan sarritan ageri dira fitonimoak, landare eta zuhaitz izenak, kasu hone-tan "(h)aretx" bizkai euskarazko haritz izeneko zuhaitzaren izena.

Billarkaio mendi eta baserri inguruko basoa.

Dokumentazioa:

Mendicoarecheta (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Mendi arechita (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Mendiaretxeta (Bilikario) (1999) Historia de Lumo, 18.

Mendikoatxak (-ak) (basoa)

Ahoz: *Mendikatzak*

Auzoa: Arana

Mendiko haitzak (hatxak bizkaieraz) esan gura du. Inguruan seguru antzean haitzak egongo zirelako.

Dokumentazioa:

Mendikoatxeta (1933) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIV (1933), 288.

Mendikoaretxeta (?) (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Mendiola (baserria)

Ahoz: *Mendiola*

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: **Mendiolabekoa (-a), Mendiolanagusia (-a), Mendiolalde**

Mendiola izena mendi eta ola (errota) hitzez elkartutako izena da.

Hiru ziren garai batean Mendiola baserriak, bi hasierakoak, bigarrenari Mendiolagoxeaskoa esaten zioten, eta haren analogiaz inoiz baserri honi Mendiolabekoa ere esan izan zaio dokumentazioak argi erakusten duenez.

Lumoko Zallo auzoko baserria. Egungo katastroan Mendiolalde izenarekin ageri da, eta ez da historian jaso duen izen bakarra; izan ere, dokumentazioan ageri den lez hainbat izen izan ditu. Mendiola baserri multzoko etxe nagusia izanik, postposizio gabeko forma da hobestekoa.

Dokumentazioa:

Mendiola de suso (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Mendiola mayor (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Mendiola becoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Mendiola (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Mendiola (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Mendiola (1933) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIV (1933), 289.

Mendiola (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.

Mendiola (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Mendiolabekoa (-a) ik. Mendiola

Mendiolagoikoa (-a) ik. Mendiogoxeaskoa

Mendiogoxeaskoa (-a) (baserria)

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: **Mendiolagoikoa (-a)**

Mendiola (mendiko ola, errota) eta goxeaskoa (goikoa) berbez konposatutako baserri-izenena. Mendiola baserri nagusiarekin batera baserri-multzoa osatzen duena. Berau goikoa izanik, Mendiola baserriari inoiz Mendiolabekoa ere deitu izan diote.

Goxeaskoa forma zaharragoa da, baina 1796rako goikoa formaz dokumentatu zen.

Desagertutako baserria, Mendiola baserri multzoko baserria zen. Hiru dira dokumentatu diren baserriak: Mendiola (edo Mendiolabekoa), Mendiogoxeaskoa eta Mendiolaondo.

Ik. Mendiola baserri-izenena.

Dokumentazioa:

Mendiola de yuso (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Mendiola gojeazcoa (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Mendiola goicoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Mendiolako iturria (-a) (iturria)

Ahoz: *Mendiolako itturixe*

(iturria) Zallo

Mendiola baserri ondoko iturria.

Ikusi Mendiola baserri-izenaz esandakoa.



Mendiolalde ik. Mendiola

Mendiolanagusia (-a) ik. Mendiola

Mendiolaondo (baserria)

Ahoz: *Mendillondo*

Auzoa: Zallo

Beste izen batzuk: **Mendiolaondotxu**

Mendiola baserriaren ondoan dagoela adierazten du izenak berak, eta hala da. Mendiola toponimoaz eta ondo postposizioaz eratutako izena da. Ahoz, berriz, *Mendilondo* esaten zaio, bokal elkarretak sinpletu egiten direlarik. Gainera, <i> bokalaren eraginez <l> kontsonantea busti egiten da ahoz.



1796ko sutegi-errolan, *Mendiola ondochu* formaz dokumentatu zen, seguru antzean baserri txikia izango zelako.

Zallo auzoko baserria, Mikieneko presa baino gorago dagoena, Pagoko errekaaren ondoan. Hiru ziren Mendiola baserri multzoa osatzen zuten baserriak: Mendiola, Mendiologoxeaskoa (desagertua) eta Mendiolaondo. Lehenengo biak 1704ko sutegetian dokumentatu ziren. Honako hau, oster, lehenengoz 1745eko sutegi-errolan jaso zen.

Dokumentazioa:

Mendiolaondo (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Mendiola ondochu (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Mendillona (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Mendillondo (1933) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIV (1933), 289.

Mendilondo (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.

Mendiolaondo (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.

Mendiolaondotxu ik. **Mendiolaondo**

Merkurioiturria (-a)

Ahoz: *Merkurioitturrix*

(iturria) Gernika-Lumo



Mertzedek (kalea)

Ahoz: *Mersedeko kalie*

Auzoa: *Erreterria*

Mertzedekoa 1218an musulmanen lurraldeetan katigu egindako kristauen askatasuna erosteko sortu zen ordena erlijiosoa da.

Kale honi Mertzedeko komentuk ematen dio izena. Komentu horren jatorria Ibarrurin (Muxika) dago. 1595. urtean emakume talde batek Mertzedeko ordena hartu eta komunitate txiki bat sortu zuen. Erreterriako Marina Saenz alargunak bere etxea eskaini zienean 1625an, Muxikako Ibarruri auzunetik irten eta herri handiago batera joateko aukera izan zuten.



Ekialdetik Uharte kalea, mendebaldetik San Bartolome kalea eta iparraldetik Amaiur kalea ditu mugakide.

Mertzedeko zubia (-a) ik. Zubigorri

Mestika (auzoa eta kalea)Ahoz: *Mestike*

Auzoa: Gernika-Lumo

Mestika toponimoa, toki honetan izandako landarediaren adierazgarri da. Izan ere, inguru hori guztiori, Gernika hiriko ateetaraino Gernikak eta Lumok ustiatzen zuten baso komunal “*proindiviso*” bat zen, Mestikabaso. Baso horrexetan gordetzen ziren Gernikako Arbolaren “semeak”, behar zenean Arbola ihartua ordezkatzeko.

Ustez -ika atzizkiak jatorri indoeuroparra adierazten du, eta inguru horretan historiaurrean egondako atzerriko eraginen adierazgarri da. Gainera, ez da atzizki hori daukan toponimo bakarra inguruan: Baldatika, Gernika, Otxilika, Mesterika, Ordorika...

Lurgorri kalea da hegoaldeko muga eta Fray Martin de Murua iparraldekoa.

Dokumentazioa:

Mestike (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
Mestika (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Mestikabaso (basoa eta kalea)Ahoz: *Mestikebaso*

Mestika toponimoa eta baso izenaz konposatutako leku-izena.

Ik. Mestika toponimoaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Mesticabaso (1751) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 0764/003.
Mesticabaso (1751) Bizkaiko Foru Agiritegia, JCR 0764/007.
Mesticabaso (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.
Mesticabaso (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.
Besticabaso (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.
Mestikabaso (1999) Historia de Lumo, 17.

Mestikabidea (-a) (bidea)Ahoz: *Mestikebidie*

Mestikara doan bidea.

Ik. Mestika leku-izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Mechicas, C de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Mestikako iturria (-a)Ahoz: *Mestikeko itturixe*

(iturria) Lumo

Ik. Mestika leku-izenaz esandakoa.

Metxikako erreka ik. **Baldatikaerrekea**

Mezeta (etxea, desagertua)

Auzoa. Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: ***Casa de las pinturas, Casa de los muñecos***

Etxe honek izena eraiki zuen jabearen deituratik hartu du, baina deitura jatorrian Lumoko dorretxe ezagun batetik dator, Mezeta dorretxetik hain zuzen ere.

Adolfo Urioste kaleko etxe ezaguna, Martin Ruiz de Mezetak eraiki zuena eta hortik eman zitzaion izena. XX. Mende hasieran desagertu zen. “Regiones Devastadas” erakundeak bonbardaketaren ostean hirigunea berreraiki zuenean, leku berean eraikitako etxean pinturak ipini zituen, Mezeta etxea gogoangarri.

Dokumentazioa:

Torre de Meceta (1999) Historia de Lumo, 15.



Miguel de Unamuno (kalea)

Miguel de Unamuno Yugo (Bilbo, 1864 - 1937, Salamanca). Grekerako Katedra lortu zuen Salamancako Unibertsitatean 1891n eta urte berean Gernikako Andra Mari elizan ezkondu zen Concepcion Lizarraga Ecenarro gernikarrarekin. Alfonso XIII.a erregearen kontrako prentsa-artikulu bat idaztearren Fuerteventurara erbesteratua izan ondoren, Hendaiara atzerriratu zuten eta gero Parisera. 1937ko urtarrilaren 1ean, atzerritik etorri berria, Salamancan hil zen.

Eleberri, tragedia, olerki, saiakera eta prentsa-artikuluen egile, bere idazlanetan sarritan eduki zuen gogoan Gernika-Lumo. Besteak beste *Recuerdos de un viaje corto* (1884), *Paz en la guerra* (1897).

Juan Calzada kaletik Iparragirre kalera bitartean dagoen kalea.

Mikiena (-a) (baserria)

Ahoz: *Mikiene*

Auzoa: Zallo

Miki eta -ena jabetza adierazten duen atzizkiaz eratutako baserri-izena da. Batez ere oikonomian, baserri-izenetan, ageri ohi den atzizki hori gehienetan jabearen izen, abizen edo ezizenari gehitu ohi zaio, kasu honetan Miki. Mikiren etxea esan gura du beraz.

Ahoz amaierako -ena atzizkia -ene ahoskatzen da, Arana Arane bezalako toponimoetan gertatzen den aldaketa bezalakoxea da.



Billarkaio mendi-maldan dagoen baserria, Lumoko mugetatik gertu. Ondotik pasatzen den erreka ere izena ematen dio: Mikieneko erreka hain zuzen ere.

Dokumentazioa:

- Mikiene (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Mikiena (1933) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIV (1933), 292.
- Mikiene (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.
- Mikiena (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Mikienabidea (-a) (bidea)

Ahoz: *Mikienebidie*

Mikiena baserrira doan bidea.

Ik. Mikiena leku-izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

- Mikiene, C° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Mikienalde (basoa)

Ahoz: *Mikinalde*

Auzoa: Zallo

Mikiena baserri-izena eta alde postposizioaz eratutako toponimoa da, Mikiena baserri inguruan zegoen basoa esan gura du.



Mikiene (ah.) ik. **Mikiena**

Mikieneko errekea (-a) (erreka)

Ahoz: *Mikieneko errekie*

Auzoa: Zallo

Errigoitin jaio eta Mikiena baserritik pasatzen den erreka. Urak Barrenetxeko errekan isurtzen ditu.

Ik. Mikiena baserri-izena.

Dokumentazioa:

- Mikiene, Arroyo de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Mikiena (1999) Historia de Lumo, 15.
- Arroyo de Mikiena (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Monasterio (aizunea eta baserria)

Ahoz: *Monasterio*

Auzoa: Lumo

Lumoko auzoa eta baserria. Monasterio izen bereko baserri-izenetik hartu du izena auzoak. Monasterio deitura eza-guna eta zabaldua da gurean. Erromantze jatorriko izena bada ere, mailegatu da ondo euskaraz.

Dokumentazioa (auzoa):

Monasterio (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Dokumentazioa (baserria):

Monasterio (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.



Monasteriobekoa (-a) (baserria)

Ahoz: *Barranderuene*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Barrenderoena (-a)**

Herritarrek gaur egun Barrenderoena izenaz ezagutzen dute etxe hau, baina jatorrizko izen osoa Monasteriobekoa da. Monasterio auzoaren behealdean dagoelako du izena etxeak.

Izen bereko Lumoko auzoko etxea. Monasterio izeneko etxearen bikotea, baina azken horri, berriz, ez diote Monasteriogoikoa esaten.

Dokumentazioa:

Barrenderoena (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Mundakako itsasadarra ik. Oka

Mundiabaso (basoa)

Ahoz: *Muniebaso*

Auzoa: Arana

N

Nafarroa (kalea)

Auzoa: Arana

2006ko ekainaren 21ean Gernika-Lumoko Udalak Arana auzoko zenbait kaleri Euskal Herriko 7 probintzietako izenak ematea erabaki zuen etxebizitza sozialak egingo ziren gunean; horrela, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa kaleak ditugu inguru horretan.

Izen honen osagaiak nafar herritar izena eta -(h)oa atzizkia dira eta nafarren herria adiera du. XII. mendeko *Codex Calistinus*-en, Compostelara joateko gidaliburu ezagunean ageri da eta Bizkaia eta Araba Nafarroako zatiak zirela esaten da guretzat oso goxoak ez diren hainbat hitzen artean:

In quibusdam horis eorundem, in Biscagia scilicet et Alaua, dum Nauarri se calefaciunt, uir mulieri et mulier uiro uerenda sua ostendunt.

(Hango eskualde batzuetan, Bizkaian eta Araban hain zuzen, nafarrak berotzen diren bi-tartean, gizonezkoek enadrazkoei et andrazkoek gizonezkoei lotsariak erakusten dizkiete elkarri).



Nafarroa Behera (kalea)

Auzoa: Arana

2006ko ekainaren 21ean Gernika-Lumoko Udalak Arana auzoko zenbait kaleri Euskal Herriko 7 probintzietako izenak ematea erabaki zuen etxebizitza sozialak egingo ziren gunean; horrela, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa kaleak ditugu inguru horretan.

Neguetxea (-a) (etxea)

Ahoz: *Neguetzea*

Auzoa: Lumo

Negu urtaro-izena eta etxe izenez konposatutako etxe-izena. Neguko etxea esan gura du.

Zearreta bidean Ugartetxe eta Iturburu baserrien hurrengo etxea da.

Nere Kabia (-a) (kalea)

Ahoz: Nire Kabia

Auzoa: Gernika-Lumo

Inguru horretan zegoen Arana kondearen etxearen izena zen *Nere Kabia* eta inguru horretan zegoen, bonbardaketan hondatu zen arte.

Teodoro de Arana y Belaustegi jaimismoaren (karlista) ordezkari nagusienetariko bat izan zen, publizista eta politikoa, diputatua eta senadores eta “Comunión Tradicionalista” alderdi politikoaren Bizkaiko Juan Nagusia 1922. urtetik aurrera.

Mugak: San Juan ibarra hegoaldeetik eta Don Tello kalea iparraldeetik.

O

Oar (baserria)

Auzoa: Lumo

Ahoz Obar esaten bazaio ere, bokal arteko kontsonante epentetiko hori idatziaz arautzeko dokumentazionahikoa egon behar du, eta badiardi XIX. mende amaierakoa XX. mende hasierakoa dela. Euskal deituretan ere Oar gisa gorde da, eta beraz idatziz horrela ustea da zuzenena.

Etimologiari dagokionez ezin argibide segururik eman.

Dokumentazioa:

Hoar (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Oar (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Oár (1860) Bizkaiko Izendegia.

Obar (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Obar (1933) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIV (1933), 391.

Obar (1987) Ermitas de Bizkaia, 197.

Obar (1999) Historia de Lumo, 17.

Obar (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Oarbidea (-a) (bidea)

Auzoa: Lumo

Oar baserrirako bidea.

Ik. Oar baserri-izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Oar, C° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Oarerreka (sastraka)

Auzoa: Lumo

Oar baserri-izena eta erreka izen generikoaz eratutako leku-izena. Lursaila da eta ohikoa da lursail eta oronimoetan erreka izen generikoa aurkitzea, ez hidronimoa eratzeko, ez bada, lursaila izendatzeko.

Ik. Oar baserri-izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Oarrerreka (1933) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIV (1933), 390.

Oarko errekea (-a) (erreka)

Auzoa: Zallo

Nongo leku-genitibo kasuaren marka kontsonantez amaitutako toponimoetan forma ezberdinak hartzen ditu, baina ahozko tradizioan inguru honetan Obarko da forma egokia eta ez Obarreko.

Barrenetxan hasi eta Barrenetxeko errekan isurtzen dituen errekaetako.

Ik. Oar (baserria) izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Arroyo de Obar (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Ocho de Enero (kalea)

Ahoz: *Otxodenero*

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: **Barrenkalebarrena (-a)**

Euskaldunek ere euskaraz ari direnean erdaraz esaten dute kale-izen hau: *Otxodenero*. Euskara batzordeak izen honen inguruan honako irizpena eman du:

“...dagoenean uztea erabaki da, euskarazko testuinguruan txertatuta dagoelako “ochodenero kalea” eta ez delako oztopo euskararen erabilerarako; gainera, kaleko jendearentzat “urtarrilaren zortzia kalea” jartzea arrotz egingo litzaiokeelakoan daude batzarkideak”.

Gernika hiria eta Lumo elizatea bat egin zireneko eguna adierazten du (1982ko urtarrilaren 8a).

Aurretik Barrenkalebarrena izena zuen kale honek.

Oiñaztua (-a) (basoa)

Auzoa: Kokatu gabea

Dokumentatuta dagoen arren, ez dakigu non kokatu gaur egun. Uñestue formaz dokumentatu den arren, badirudi *oñestu* hitza, idatziz oinaztu, dagoela; inguru honetako euskaraz trumoiarekin batera izan ohi den argi ezlandari esateko erabiltzen den hitza, inusturia ere esaten zaiona.

Dokumentazioa:

Uñestue (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Oka (ibaia)

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: **Gernikako ibaia, Mundakako itsasadarra**

Etimologia ezezaguna du toponimo honek. Bizkaiko ibairik garrantzitsuenen artean dugu. Muxikan jaio eta 14 kilometroko ibilbidea egiten du Mundakan itsasoratzen den arte.

Okaranaga (basoa)

Auzoa: Kokatu gabea

1780ko dokumentu zahar batean baino ez da dokumentatu Gernika eta Lumoko basoen artean. Okaran fruta izena eta -aga ugaritasuna edo lekua adierazten duen atzizkiaz eratua dago leku-izen hau. Okaranak izango zirelako bertan-edo.

Dokumentazioa:

Ocaranaga (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Ola (baserria,desagertua)

Auzoa: Zallo

Ola (ferrategia) eta errota hitzez konposatutako etxe-izena.

Dokumentazioa:

Olaerrota (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Olakorta (basoa)

Auzoa: Zallo

Ola berbak ferrategia esanahia duen arren, toponimiako erabilerari jarraituz gero, kortabaso esanahia du. Erredundantea badirudi ere, maiz ola eta korta hitzak batera jasotzen dira.

Olakorta izena 1780ko agiri zahar batean jaso da.

Dokumentazioa:

Olacorta (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Olasarre (ah.) ik. Olazarraga

Olazarraga (baserria)Ahoz: *Olasarre*

Auzoa: Zallo

Ahoz *Olasarre* esaten dioten arren, idatzizko forma osoa Olazarraga da, ola (ferrategi, forja), zarra (zaharra) izenondoa eta -aga lekua adierazten duen atzizkiaz eratutako izena da. Amaierako -aga atzizkia ahoz ez ohi da ahoskatu; izan ere, euskararen fonetika joera da bokal arteko kontsonante soinuak ez ahoskatzea, horrela, bokal arteko <g> jausi egiten da ahoskeran.



Gainera, -a bokalaz amaitutako beste hainbat toponimorekin gertatzen den lez, Arana auzo-izenarekin esate baterako, -e bihurtzen da amaierako bokal hori, deklinabidearen ondorioz. Olazarraga forma osoa, *Olazarra* ahoskatu eta azkenik -a artikulua delakoan, deklinatzerakoan <e> bokal epentetikoa gehitzen zaio: Olazarrera, Olazarretik... deklinabide oker horren eraginez, forma absolutiboa *Olazarre* dela uste izan dute hiztunek.

Mikiena baserriarekin batera Errigoitiko mugarantza urrunen dauden baserriak dira. Olazarraga baserri izenarekin lotuta beste toponimo batzuk ere topatzen ditugu: Olazarragalde baso-izena esate baterako.

Dokumentazioa:

Olazarraga (1796, 1860) Bizkaiko Fogeraioak.

Olazárraga (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Olazarre (1933) Voces Toponomásticas Vascas, RIEV, XXIV (1933), 398.

Olazarre (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.

Olazarraga (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Olazarragabidea (-a) (bidea)Ahoz: *Olasarrebide*

Auzoa: Zallo

Olazarragara doan bidea.

Ik. Olazarraga izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Olazarre, C^o de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.**Olazarragalde** (basoa)Ahoz: *Olasarralde*

Auzoa: Zallo

Ahoz ondoko baserriari *Olasarre* esaten dioten arren, idatzizko forma osoa *Olazarraga* da, ola (ferreria), zarra izenondoa eta -aga lekua adierazten



duen atzizkiaz eratutako izena da. Amaierako -aga atzizkia ahoz ez ohi da ahoskatu, izan ere euskararen fonetika joera da bokal arteko kontsonante soinudunak ez ahoskatzea, horrela, bokal arteko <g> jausi egiten da ahoskeran.

Gainera, -a bokalaz amaitutako beste hainbat toponimorekin gertatzen den lez, Arana auzo-izenarekin esate baterako, -e bihurtzen da amaierako bokal hori, deklinabidearen ondorioz. *Olazarraga* forma osoa, Olazarra ahoskatu eta azkenik -a artikulua delakoan, delinatzerakoan <e> bokal epentetikoa gehitzen zaio: Olazarrera, Olazarretik...deklinabide oker horren eraginez, forna absolutiboa Olazarre dela uste izan dte hiztunek.

Basoak, bestalde, Olazarragalde izena du, amaieran “alde” berba duelarik. Ohiko erabilera da baserri izenei atzean “alde” berba gehitzea, baserriarena edota baserri jakin baten inguruko basoak izendatzeko batez ere.

Errigoitiko muga inguruan dago, Olazarraga izeneko baserriaren ondoko basoa da.

Ik. Olazarraga baserri-izenaz esandakoa.

Oletako erreka ik. Baldatikaerrekea

On Tello (kalea)

Ahoz: *Don Tello*

Auzoa: Gernika-Lumo

XIV. mendean Gernikako hiribildua sortu zuen Bizkaiko jauna izan zen. Kale honek izen hau hartu aurretik beste izen batzuk izan zituen: Ensanche eta Nueva Travesía.

Gernika zeharkatzen duen kalea, punta batetik bestera doa.

Ordorika (baserria)

Ahoz: *Ordorike*

Auzoa: Lumo

Ordorika izena abizen ezaguna da Euskal Herrian. Amaierako -ika atzizki zaharra inguru honetako toponimian sarri topatzen dugu.

Dokumentazioa:

- Ordorica (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Ordorika (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Ordorika (1933) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXIV (1933), 403.
- Ordorika (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Ordorikako erreka (ibaia)

Ahoz: *Ordorikako errekie*

Auzoa: Lumo

Ik. Ordorika izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

- Ordorika, A° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Oregi (basoa)

Auzoa: Kokatugabea

Oregi izena, gaur egun abizen ezaguna orue eta (h)egi(a) beben elkarketatik eratutako leku-izena da. 1780ko basoen zerrenda zahar batean dokumentatu da baso-izena.

Dokumentazioa:

Oregui (1780) Bizkaiko Foru Agiritegia, Libro de Montes.

Ormaetxea (-a) (baserria)

Ahoz: *Ormetze*

Auzoa: Errenteria

Ahozkoan <ae> bokal juntadura bere hartan gorde denez horrela arautu da. Jatorrizkoa artikuluduna zen arren, artikulua galduta du erabileran, eta arautuan ere artikulurik gabea arautu da.

Ormaetxea izeneko baserriak harriz egindako baserriei jartzen zitzaien, hain zuzen ere egituraz baserriak egurrezkoak ziren-eta.

Dokumentazioa:

Ormaechea (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Ormaetxe (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Ortizena (-a) (baserria)

Auzoa: Gernika-Lumo

Ortiz abizeneko baten etxea esan gura du.

Ortubarria (-a) (belardia)

Auzoa: Zallo

Ortu izen generikoa eta barria adjektiboaz eratutako leku-izena da.

Dokumentazioa:

Ortubarria (1934) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XXV (1934), 419.

Ospitalekale ik. Adolfo Urioste

P

Pablo Picasso (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Pablo Picasso (1881-1973) sormen handiko margolari malagarria izan zen eta abangoardiako pintura estilo guztiak jorratu zituen. Bere nazinoarteko lanik ezagunenetariko bat *Guernica* margolana izan zen, 1937ko apirilaren 26an Condor Leginoaren hegazkin alemaniarrek egin zuten bonbardaketa eta sarraskia salatzeko egina.



Iparraldean Adolfo Urioste kalearekin egiten du muga, hegoaldean Industria kalearekin eta mendebaldean Eriako Lorategiarekin.


Pagoa (-a) (basoa)

Auzoa: Zallo

Toponimo honek Pagoaga leku-izena izan dezake atzean, baina ez dago argi. Pagoak dauden lekua.

Dokumentazioa:

Pagoa (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Pagoko errekea (-a) ik. Atxinerreka

Pasealekua (-a) (parkea)

Ahoz: *Pasilekua*

Auzoa: Gernika-Lumo

Antzina toki horretan harrobi bat zegoen. Gure herriaren historian bertatik atera izan dira eraikuntzarako materialak, hiriko orube asko eta padurako toki batzuk lurrez betetzekoak ere bai. Guzur Arets izenaz ezagutzen zen Lumoko toki hau herri-plaza bilakatu zen.

Gernika eta Lumoren arteko batasun ekitaldia bertan izan zen 1882an. 1883-85 artean frontoiaren gainean “*Escuelas Públicas de Niños*” eraiki zen. Beranduago, beste aldean,

neskena (1927). Bien arteko goialdean, *Balcón Sacafaltas* izen xelebrea daukan terraza egin zen.

Laukizuzen baten itxura du. Aurreko aldeak mendebaldera ematen du, eskumakoak iparraldera eta ezkerrekoak hegoaldera.

Patxosolo (soroa)

Auzoa: kokatu gabea

Patxo pertsona-izena eta solo izen generikoaz eratutako lursailareni zena.



Pedro Aboitiz ik. Elbira Iturri

Pedro Elejalde (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

1756. urtean Gernikak izugarrizko ur-eskasia eduki zuen ur-horniketan (Lumotik eta Txorraburutik beherako urak kanalizatzeko arazoak; Oka erreko ura fidagarria ez izatea, etab.).

Don Pedro de Elejalde gernikarrak, Salamancan ikasitakoak, ur-hornikuntzari erantzuna eman guran, itsasadarreko ura gazatzeko proiektua aurkeztu zion Udalari (eztainuzko alanbikeroetatik pasatu eta jarraian arrosarekin zenbait aldiz egosi behar zen garbitzeko).

Gernikako Udala diru barik zegoen garai hartan. Dena dela, 1758. urtean proiektuak ezet borobila jaso zuen, pozoitzeko arriskua zegoela aitzakia moduan erabilita. Argi dago inork ez zuela egin gura urteroko 300 dukateko inbertsioa.



Pedroena (-a) ik. Akurioena

Piñu (iturria)

Auzoa: Gernika-Lumo

Piñu esaten zioten Bustergiñena baserriari ere. Leku horretan zegoen Bustergiñena baserria eta, honi, Piñu ere esaten zioten. Gaur egun, bizirik dirau Piñu leku-izenak, bertan dagoen pinuagatik eta ondoko iturria lekuko (Piñuko iturria).



Piñubolas ik. Sekeroa

Portuzarra (lekua)

Auzoa: Gernika-Lumo

San Juan Ibarra plazarekin bat egiten duen Portu kalea erreferentea izanik, Erreka hegala deitura duen inguruan kokatuta dago Portuzarra toponimoa.

Portuzarra hainbat dokumentu zaharretan agertzen da eta historikoki Lumo eta Ajangiz artean kokatuta egon zen portutik dator.

Portu aroztegiaren paretik tren apeadero-rainoko tarteari, errekondoari esaten zaio.



S

Sagastietxe (baserria)

Ahoz: *Alargunena*

Auzoa: Arana

Beste izen batzuk: ***Alargunena (-a), Sagastietxebarri***

Sagastietxe izeneko etxe honi ahoz Alargunena ere esaten diote. Alargun izena eta -ena jabetza atzizkiaz eratorritako izena da, hau da, jabea edo bertan bizi zena alarguna zela adierazten du izenak. Dirudenez beste izen batekin ere da eza-guna. Gainera ondo-ondoan egin duten etxe berriagoak Sagastietxebarria izena du, baserri honen jatorrizko izenetik abiatuta.

Gernika-Lumora Arana auzotik sartzen den BI-635 errepidetik sartzerakoan eskumatarara trenbidearen ondoan dagoen etxea.

Dokumentazioa:

Alargun (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Sagastieche (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Arguena (Argoena?) (1922) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIII (1922), 431.

Alargunena (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Sagasti-etxebarri (1963) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XIX, 3 (1963), 249.



Sakona (-a) (belardia eta sakonunea)

Auzoa: Lumo

Ik. Sakoneta toponimoa.

Sakoneta (erreka eta basoa)

Ahoz: *Sakoneta*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Amillagako errekea (-a)**

Amillagako errekea izenaz ere ezaguna da erreka hau. Edozelan ere, *Sakoneta* izena ego-kiagoa dela ematen du, erreka bera izendatzeko sortua da eta. Beste izena Amillagan jaiotzen delako hartu du.

Sakoneta izenak sakonean dagoen tokia esan gura du, sakon gehi -eta atzizkiaz konposatutako izena da. Amaierako -eta atzizkiak ugaritasuna edo tokia esan gura du eta oso erabilia izan da toponimian.

Amillagan jaio eta Errebatxa inguruan Zarratuko errekaekin bat eginik Etxandiko erreka-ira isurtzen ditu urak.

San Bartolome (kalea)

Auzoa: Erretereria

San Bartolome Jesusen ikasleatariko bat izan zen. Tradizioak dioenez, Asia txikian, Indian eta Armenian ibili zen irakasten. Azken horretan, larrua kendu eta gero burua ebaki zioten. Hortik dattorkio larruginen zaindari izatea.

San Bartolomek bere ermita izan zuen Erretereriako auzoan, baina ez dakigu zehatz non zegoen. Dakigunez, Ajangizko Santo Tomasen agintaritzapean zegoen eta 1789an, jausteko arriskuan zegoela-eta, bota egin zuten. Auzokoek santu guztiak hartu eta Madalena ermitara eraman zituzten.

Gaur egun, Bartolome Deunaren Parrokia da Erretereriakoa eta bere omenez ospatzen dira auzoko jaiak ere.



San Juan (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

1937ko bonbardaketan suntsitua izan zen elizari zor dio izena kale honek.

Gernikako hiriaren iparraldetik eta maldan behera, euriteen ondorioz erreka-ira bat eratu zen antzina. Erreka-ira hori estaldu zenean, ibilgua kale bihurtu zuten, Gernikako uri zaharretik kanpo.

Antzina *Calle del Norte* izenarekin ezagutzen zen, baina Gernikak eta Lumok bat egin zutenean, San Juan kalea izena ipini zioten, San Juan elizaraino iristen zelako.

Mendebaldetik Allendesalazar kalea eta ekialdetik Erretereriako zubia eta San Bartolome kalea ditu muga.

San Jose (auzunea)

Auzoa: Lumo

1964an etxebizitza multzo bat eraiki zuten Mestikabaso inguruan. Konstruktoreek izen bat ipini gura zioten auzune horri eta jabeei giltza eman zitzaien eguneko santuaren izena hartzea proposatu zuten. Horregatik, bada, auzuneko 1 zenbakidun portalean horma-konka bat ipini zen San Joseren irudiarekin (oraindik bertan dirau).

Atzealdean Agirrreburu kalea dauka, iparraldean iturriondo kalea eta ekitaldean Mestikabaso kaleak egiten dio muga.

Dokumentazioa:

San Jose (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

San Juan Ibarra (parkea)

Auzoa: Gernika-Lumo

San Juan kaleari zor dio izena. Inguru hori padurari irabazitakoa da: lurrez bete, lehortu eta makalak (txopoak) landatu ziren. Lur publikoa zenez, Gernikak zein Lumok erabiltzen zuten. XIX. mendearen azkenerantz, garijoteak egiteko erabiltzen zen leku hori. San Juan eliza zegoen lekutik ibairaino heltzen zen, Erretereria aurreraino. 1960ko hamarkadan plaza egin zuten.



Dokumentazioa:

Ibarra de San Juan (1999) Historia de Lumo, 17.

San Kristobal (plaza)

Auzoa: Gernika-Lumo

San Kristobal plazak gerra aurretik bertan zegoen txalet batek zeukan Santu horren iruditik hartu du izena. Plaza hau lauki itxi bat da eta etxebizitzek inguratutik dago.

Mugak: ekitaldetik Juan Calzada kalea eta mendebaldetik Mestikabaso kalea.

San Pedro (plaza)

Ahoz: *San Pedro*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **San Pedro plaza**

San Pedro Apostolua edo Done Petri Apostolua Lumoko elizaren adbokazioa da.

San Pedro ik. Done Petri Apostolua

San Pedro ik. Lumo

San Pedroko iturria (-a) (iturria)

Auzoa: Lumo

San Pedro eliza eta plazako iturria.

San Roke (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

San Rokek Gernika-Lumorekin daukan lotura gure herriak jasan zuen izurrite batetik dator. Bere laguntza eskatu, eta erreguteak eta otoitz egin ondoren, izurritea desagertu egin zen. Santuari esker ona adierazteko, gernikarrek aldatu egin zuten euren herriko zaindaria: or-dura arte zaindari izandako San Sebastian kendu eta San Roke ipini zuten haren ordeaz.

Iparraldetik Merkatu plaza dauka eta ekialdetik Don Tello kalea. Mendebaldeak "Ocho de enero" kalearekin egiten du bat.

Sanpedrobaso (basoa)

Auzoa: Lumo

Elizak jabetza ugari izan ditu historian eta maiz lurral zituen, basoak. Elizaren jabetzakoak ziren baso eta lurrei elizaten adbokazioa eta izen generikoaz deitzen zitzairen. Ugariak dira, esate baterako Euskal Herrian Andramaribaso bezalako toponimoak.

Santa Ana (baserria)

Ahoz: *Santana*

Auzoa: Lumo

Santa Ana ermitaren ondoan dagoen baserria eta ermitaren adbokaziotik hartu zuen izena. Halako toponimoen hagiotoponimoak deritze, hagianimo edo santu izen batetik eratorriak dira eta.

Dokumentazioa:

Santa Ana (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Portal de Santa Ana (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Santa Ana (ermita)

Ahoz: *Santana*

Auzoa: Lumo

Santa Ana, Andra Mariaren ama zen. Izen bereko baserria dago ondoan. Auzoak ere Santa Ana izena hartu du. Ermitaren azpialdean dagoen Santanape kiroldegia ere hor dauka izenaren jatorria.

Aspaldi ez da kulturik egiten han eta ermita bera erdi hondaturik dago.

Dokumentazioa:

Santa Ana (1860) Bizkaiko Izendegia.

Santa Ana (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Santa Ana (auzunea)

Auzoa: Lumo

Bertan den Santa Ana ermitagatik du izena auzo honek.

Dokumentazioa:

Santa Ana (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Santa Eufemia ik. Amillagako San Martin

Santa Klara (kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Bertan dagoen komentutik eta kokatuta dagoen monja komunitatetik datorkio izena. Santa Klara komentua: 1619an klausura komentu bihurtu bazen ere, badakigu 1422tik bertan monjategi bat zegoela.

Kale honek Sabino Arana izena eduki zuen errepublika sasoian.

Mendebaldetik Europako Herrien parkea dauka ondoan. Ekialderantza Karmelo Etxegarai eta Angel Allendesalazar kaleak.

Santa Luzia (parkea)

Ahoz: *Santaluzidxe*

Auzoa: Arana

Izen bereko Gernikako ermita eta baserriagatik du izena kale honek.

Ik. Santa Luzia ermita eta baserria.

Santa Luzia (baserria)

Ahoz: *Santalusidxe*

Auzoa: Gernika-Lumo

Santa Luzia adbokazioko ermita izenetik datorkio izena baserri honi. Euskal grafiaz ematen da, euskaldunek euskarazko ahoskeraz darabiltelako.

Dokumentazioa:

- Santa Luzia (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Santa Lucía (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.
- Santa Lucia (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.
- Santa Lucia (1999) Historia de Lumo, 15.

Santa Luzia (ermita)

Ahoz: *Santalusidxe*

Auzoa: Zallo

Zallo auzoko ermita.

Dokumentazioa:

- Santa Lucia (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Sta. Lucía (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Santa Lucia (1999) Historia de Lumo, 15.
- Santa Lucía (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Santaluziabidea (-a) (bidea)

Ahoz: *Santaluzidxebidie*

Auzoa: Zallo eta Arana auzoarteko muga

Santa Luzia ermitara doan bidea.

Dokumentazioa:

- Sta. Lucia, C° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Santanape (ingurua)

Ahoz: *Santanape*

Santa Ana ermitaren kokapena aitzakia, behealdeari Santanape deitu izan zaio beti eta udal kiroldegia ere hortik hartu du Santanape izena.

Santu Motzak ik. Santu Txireneak



Santu Txireneak (-ak) edo Santu Motzak (-ak) (ermita)

Ahoz: *Santutxireniek*

Auzoa: Arana

Beste izen batzuk: ***Santu Motzak, Andra Maria Sortzez Garbiaren ermita***

Herritarrek ahoz Santu Txireneak (Santos Chirenes) edo Santu Motzak, izenarekin ezagutzen badute ere, ermitaren jatorrizko adbokazioa Inmakulada da, hau da, euskarazko adbokazio osoaren izena Andra Maria Sortzez Garbia.



Ahoz Santu Txireneak edo Santu Motzak izenekin ezaguna da bertan diren 12 apostoluen irudiagatik, irudi txiki eta bitxiak direlako. “Txirene” berba Bilbokotzat dute askok, baina egia esateko Bizkaia osoan erabiltzen da, pertsona edo gauza barregarria eta bitxia dela adierazteko.

Dagoeneko ez da mezarik egiten ermita honetan. Gerra aurrean eraiki zen, 20ko hamarkada inguruan. Eizagirre baserriarena ei da, lbarguengoitia familiarena.

Dokumentazioa:

La Inmaculada Concepción (1987) Ermitas de Bizkaia, 200.

Santos Chirenes (La Inmaculada Concepción) (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.

Saraspe (plaza eta baserria, desagertua)

Auzoa: Gernika-Lumo

Sarats (sahats zuhaitz izena) eta -pe (behean) atzizkiak eratorritako toponimoa da. Saratsaren azpian dagoena, edo sarats basoaren azpian dagoena.

Saraspe izen bereko baserri izenetik datorkio izena plazari ere. Saraspe toponimoa Lumoko udalerriko lurraldeetan agiri da Erdi Arotik. Bertan zegoen Saraspeko taberna.



Juan Calzada kalea dauka ondoan eta plazatik bertatik gorantz doaz Frai Martin Murua eta Karmelo Etxegarai kaleak.

Dokumentazioa (baserria):

Saraspe (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Saraspe (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Saraspe, taberna (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Saraspe (Arana) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Portal de Saraspe (El) (Arana) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Saraspe (1963) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XIX, 3 (1963), 255.

Zaraspeondo (1999) Historia de Lumo, 18.

Saraspegana (-a) (baserria, desagertua)

Auzoa: Gernika-Lumo

Saraspe baserriaren gainekoa esan gura du. 1745ean Saraspe izeneko beste baserri bat zela dio dokumentuak, baina 1796ko erroldetan Saraspegana formaz jaso zen.

Dokumentazioa:

Saraspe, otra (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Saraspe gana (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Saraspe-gana (1963) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XIX, 3 (1963), 255.

Seber Altube (auditorioa)

Auzoa: Gernika-Lumo

Sebero Altube Lertxundi (Arrasate 1879 – 1961 Gernika). Musikari, hizkuntzalari eta filosofoa. 1901ean Gernika-Lumoko musika bandarako oposaketara aurkeztu eta zuzendari kargua lortu zuen.

1931n Gernika-Lumoko alkate izendatu zuten eta horri ekin zion bost urtean. 1936ko irailaren 29an erbestera alde egin behar izan zuen eta ez zen bueltatu 1958ra arte.



Pasealekuaren hegoaldean eta Junta Etxerako pasabidean dagoen auditorioari ematen dio izena.

Seigizonsolo (belardia)

Auzoa: Lumo

Sei zenbakia, gizon eta solo hitzez eratutako izena. Gizon berbarekin, gizonlan edo gizalan berben parekoa, gizon batek egun batean egin dezakeen beharra adierazten da eta lursailak neurtzeko erabiltzen den neurria da, hain zuzen ere, gaztelaniaz peonada esaten zaio.

Etxebizitza sozialak egin diren lurretan zeuden belardietako batzuk neurketa sistema horren arabera izendatzen ziren eta badaude hango eskrituretan horrelako izenak (hiru..., lau..., bost..., sei..., saspigizonsolo...). Han sortutako kaleei euskal lurraldeetako izenak ipini zaizkie.

Dokumentazioa:

Sei-gizon-solo (1963) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XIX, 3 (1963), 260.

Segin-solo (Sei-gizon-solo) (1963) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XIX, 3 (1963), 259.

Sekeroa (etxea)

Auzoa: Erretereria

Beste izen batzuk: **Piñubolas**

Piñubolas bertako arduradunaren ezizena zen, eta askok horrela esaten diote lekuari, baina jatorrizko izena Sekeroa da. Sekero berbak erdal etimologia du sikatzeko lekua esan nahi du.

Gaur egun Gernika Aterpetxea zerbitzu publikoa dago bertan.

Sigerta (ah.) ik. Zearreta

Sigertatxu (ah.) ik. Zearretatxu

Solobarriak (-ak) (belardiak)

Auzoa: Lumo

Solo izen generikoa eta berria adjektiboaz sortutako izena da.

T

Talabera ik. Zearretatxu

Tercera ik. Barrenkale

Torre ik. Lumotorre

Torrezuri (etxea)

Ahoz: *Torresuri*

Auzoa: Gernika-Lumo

Torre berba eta zuri adjektiboaz eratutako izena da. Seguru antzean dorrearen koloreagatik emango zitzaion izen hori.

Totorika (baserria)

Auzoa: Gernika-Lumo

Ez da antzina dokumentatu eta beraz pentsatzekoa da jabearen abizenetik hartzea izena baserri honek. Totor (tontor) eta -ika atzizkiaz eratutako izena da.

Dokumentazioa:

Totorika (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Trama (baserria eta mendia)

Ahoz: *Trama*

Auzoa: Gernika-Lumo, Arana

Beste izen batzuk: ***Tramagoikoa (-a)***,
Tramagoxeaskoa (-a)

Trama Arana auzoko baserria dugu. Inguruko toponimo ezaguna da. Trama berbaren etimologia ez da argia, trama-da ikatz mota izan daiteke atzean, edo tramana arrain motaren izena. Berba horiekin izan dezake lotura, baina ez dugu zehazterik.



Dokumentazioa:

Trama (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Trama goxeascoa (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Trama goicoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Tramagoicoa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Trama y -zabala (1963) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XIX, 3 (1963), 272.

Trama (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.

Tramabidea (-a) (bidea)

Ahoz: *Tramabidie*

Auzoa: Arana

Tramara doan bidea.

Dokumentazioa:

Trama, C° de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Tramaerreka (soroa)

Auzoa: Arana

Trama toponimoa eta erreka izen generikoaz eratutako izena da. Erreka berbak, ez da soilik ibaiak izendatzeko erabiltzen, saroi eta korta, edo lursailak izendatzeko ere erabiltzen da.

Dokumentazioa:

Tramarreca (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Tramaerreka ik. Amunagarreka

Tramaetxebarri (baserria)

Auzoa: Arana

Trama baserri-izena eta etxebarri izen sintagmaz eratutako baserri-izena.

Dokumentazioa:

Tramaechevarri (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Tramagoikoa (-a) ik. Trama

Tramagoxeaskoa (-a) ik. Trama

Tramazabala (-a) ik. Zabala

Tramena (-a) (baserria)

Ahoz: *Tramene*

Auzoa: Arana

Beste izen batzuk: **Tramenetxe**

Trama eta -ena elementuez eratutako toponimoa da. Trama Arana auzoko hainbat baserriren izen zaharra da. Baserri hau berriagoa da, eta Trama toponimoa eta -ena jabetza atzizkiaz eratutakoa da Tramena.

Tranpioena baserrirako bidean dagoen etxea.

Dokumentazioa:

Tramene y -etzebarri (1963) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XIX, 3 (1963), 272.
Tramena (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.

Tramene (ah.) ik. Tramena

Tramenetxe ik Tramena

Tranpioena (-a) (baserria)

Ahoz: *Tranpillone*

Auzoa: Arana

Tranpion formarekin ere dokumentatu izan da, eta horrek adierazten digu *Tranpillone* ahozko formaren atzean idatzizko *Tranpione* forma egon litekeela. Tranpion ezizeneko jabearen etxea esan gura du izenak.

Arana auzoan, Amunaga industrialdera heldu aurreko baserria.

Dokumentazioa:

Tranpion (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.

Travesia de San Juan ik. Aldape

Traiskillena (-a) (basoa)

Auzoa: Lumo

Trauskil adjektiboa, seguru antzean jabearen ezizena eta zakarra esan gura duena eta basoa izen generikoaz eratutako toponimoa. Trauskil ezizeneko baten basoa beraz.

Txanrresena (-a) (baserria)

Auzoa: Erreterria

Bestei zen batzuk: Etxezuri

Txanrresa ezineneko jabearen etxea esan gura du. Amaieran -ena jabetza atzizkia du.

Aita Villasante kaleko ezkerreko espalorian dagoen baserria dugu (erreferentzia batzuetan, antza denez, Etxezuri izena ere hartzen du). Agirian dauka armarria eta inguruko baserririk zaharrenetakoa da.



Txaporta (baserria eta auzoa)

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk (baserria):

Txaportaurre

Txaporta auzoak izena bertan dauden baserriengatik hartu du. Baserri zaharrak dira eta XVIII. mende hasieratik ondo dokumentatuak daude. Hiru dira baserriak eta izen ezberdinak hartu dituzte dokumentazioan zehar, baina gaur egun Txaportaurre, Txaportatze eta Txaportaerdikoa lez ezagutzen dira. Baina dokumentazioan Txaporta (nagusia), Txaportaerdikoa eta Txaportatxu edo Txaportaetxebarria dira.

Litekeena, “txaparrota” izatea jatorrizko forma osoa, txaparro (fitonimoa) gehi -eta atzizkia, sasilekua aleegia.

Ik. Txaporta baserrien fitxak.

Dokumentazioa (auzoa):

Chaporta (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Txaporta (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 105.

Txaporta (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Dokumentazioa (baserria):

Chaporta (1704) Bizkaiko Fogeraioak.

Chaporta nausia (1745) Bizkaiko Fogeraioak.

Chaporta (1796) Bizkaiko Fogeraioak.

Chaporta (Arana) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Txaportaerdikoa (-a) (baserria)

Auzoa: Gernika-Lumo



Txaporta baserri multzoko erdiko baserria.

Ik. Txaporta baserriaren fitxa.

Dokumentazioa:

Chaporta, otra (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Chaporta erdicoa (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Chaporta erdicoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Txaportaetxebarria (-a) ik. Txaportatze

Txaportatxu ik. Txaportatze

Txaportatze (baserria)

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: ***Txaportatxu, Txaportaetxebarria (-a)***

Txaporta baserri-multzoko atzeko baserria.

Ik. Txaporta baserriaren fitxa.

Dokumentazioa:

Chaporta echebarria (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Chaportachu (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Txaportaurre ik. Txaporta

Txaraka (baserria)

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: ***Txarakabekoa (-a)***

Txaraka izena baso txikia esan gura du, gaztelaniazko jaral esangura duena, eta sarri topatzen dugu toponimia txikian Bizkaian lursailei izena emateko. Horrela dio herritar batek: ... *Onek terrenoak eukiban ba ixena, da etziena aixe ixena, txaraka.*



Bi dira Txaraka baserriak Txarakagoikoa eta Txaraka edo Txarakabekoa baserriak. Lumoko baserriak biak, Amazpe baserriak baino goraxeago daudenak.

Dokumentazioa:

Txaraka (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Txarakabekoa (-a) ik. Txaraka

Txarakagoikoa (-a) (etxea)

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Gorostitza**

Baserri honi askok Gorostitza esaten badiote ere, Txarakagoikoa du izena. Txaraka (Txarakabekoa) izeneko baserriarekin batera baserri-multzoa osatzen duena.

Ik. Txaraka baserriaren fitxa.

Dokumentazioa:

Gorostitza (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Txarakasolo (belardia)

Auzoa: Arana

Txaraka baso txikia esan gura du, eta solo berben konposaketaz eratutako izena da.

Dokumentazioa:

Txaraka (1964) Voces Toponomásticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 105.

Txipitena (-a) (baserria)

Ahoz: *Txipittene*

Auzoa: Zallo

Txipita, nekazaritza lanabesa da, garia garantzeko erabiltzen dena eta -ena jabetza atzizkiaz eratorritako baserri izena da. Txipita jabearen ezizenetik hartutakoa seguru antzean.

Dokumentazioa:

Txibikiena (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Txibitene (1964) Voces

Toponomásticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 106.

Txipitzena (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Txokillo (baserria eta basoa)

Ahoz: *Txokillo*

Auzoa: Arana

Beste izen batzuk: **Garrazuetxebarri**

Izen honek seguru antzean etxearen jabearen ezizena izango zen. Txokil edo txakil berbak gizon argala, ezebeza esan gura du; dirudienez hotzak hilik esaeratik datorrena.

1923ko *Voces Toponómicas Vascas*



lanean jaso zuen baserri-izen hau Eleizalde Brenosak. Edozelan ere, badirudi jatorrizko izena Garratzuetxebarri dela.

Baserria desagertu egin zen eta gaur egun inguruari deitzen zaio Txokillo, herritik Amunaga industrialdea baino hurrago dagoen inguruari hain zuzen.

Izen bereko basoa dago.

Dokumentazioa (baserria):

Txokilloa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Dokumentazioa (basoa):

Txokiloa (1999) Historia de Lumo, 18.

Txorraburu (baserria, kalea eta auzoa)

Auzoa: Gernika-Lumo

Antzinako baserri-ortuaren izena. Ramón de Goiria y Basterretxea Montevideon (Uruguai) bizi izan zenak, 1904an Karidadeko Ahizpa Karmeldarren Institutuari Txorraburun zegoen ortu-etxe baten dohaintzaren eskritura egin zion. *Chorraburu-ondo* deitutako beste orube bat erosi zuten eta bietan egin zen karmeldarren ikastetxe berria, gaur egun San Fidel Ikastola dena.



Mendebaldetik Iñigo Lopez de Haro kalearekin egiten du muga eta ekialdetik Carlos Gangoiti kalean amaitzen da.

Dokumentazioa (baserria):

Chorr(o)buru (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Dokumentazioa (auzoa):

Txorraburu (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 109.

Txorrokoa (-a) (baserria, desagertua)

Auzoa: Gernika-Lumo

Txorro toponimoa eta -ko leku-genitibo markadun izena.

Dokumentazioa:

Chorrocoa (1825) Bizkaiko Foru Agiritegia, TB 0009/003.

Chorrocoa (1853) Bizkaiko Foru Agiritegia, TB 0064/008.

Txorrokoa (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 109.

Txutxillena (-a) ik. Elorrietaland

U

Ubitarte (baserri desagertua eta kalea)

Ahoz: *Ubittarte*

Auzoa: Gernika- Lumo

Kale honen inguruan (leku zehatzik ez dugu) izen bereko baserri bat zegoen eta handik hartu du kaleak izena. Orain lur azpitik doazen erreka biren bitartean zegoen baserria eta horrexegatik hartu ei zuen izen hori, ur bitarte.

Juan Calzada kalea eta Saraspe Plaza goitik eta Iparragirre kalea behetik.

Dokumentazioa (baserria):

Ubitarte (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Ubitarte (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Ubitarte (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Ubitarte (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 113.



Udetxea (-a) (jauregia)

Ahoz: *Udetxeako palazixoa*

Auzoa: Gernika-Lumo

Urdaibaiko Patronatoko Egoitza dago bertan gaur egun. Uda eta etxea izenez konposatutako izena. Udako etxea esan gura du.

Uharte (kalea)

Auzoa: Errenteria

Errenteriako zubiaren iparraldean, ibaiko urak inguratzen zituen lurrak hartzen zuten izen hori. Ibaiak, kanalizatua izan aurretik, meandroak egiten zituen eta horiek batzuetan uharte bihurtzen ziren.

Kale horren ipar muturrean Portuzarra deituriko Ajangizko portua egon zen.

Ibai ondotik doa. Hegoaldetik Zubialde kalea dauka eta Iparraldetik Mertzede kalea.



Urbietta (errekagunea eta kiroldegia)

Auzoa: Gernika-Lumo

Errekak batzen diren tokia da. Gaur egun bertan dagoen kiroldegiak izen hau darama.

Dokumentazioa:

Urbietta (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 120.

**Urdaibai** (etxea)

Auzoa: Zallo

Urdaibai Gernikaldeko biosfera eta natura inguruaren izena da. Hortik hartuko zuen izena etxe honek.

Dokumentazioa:

Urdaibái (1860) Bizkaiko Izendegia.

Urganetxea (-a) (baserria)

Auzoa: Lumo

Dokumentazioa:

Uganetxea (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Urioste (baserria)

Auzoa: Gernika-Lumo

Uriaren ostean dagoen baserria esan gura du. Uri (hiria) Gernikari egiten dio erreferentzia.

Urkieta (baserria, belardia eta kalea)

Auzoa: Gernika-Lumo

Urki zuhaitz izena eta *-eta* ugaritasuna adierazten duen atzizkiaz eratorritako izena da, hau da, urki asko dagoen lekua esan gura du.

Gaur egun desagertutako baserria. Bertan dagoen kaleari eman zion izena.

Dokumentazioa (belardia):

Urkieta (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 125.
Dokumentazioa (baserria):
Urquieta (1796) Bizkaiko Fogerazioak.



Urramendi (baserria eta auzunea)Ahoz: *Urremendi*

Auzoa: Gernika-Lumo

Ahoz *Urremendi* esaten diote, aurreko bokal itxiaren ondorioz zarratzen da hurrengo bokala, eta *Urremendi* esaten zaio. Baina dokumentuak argi erakusten du urra dela lehenengo elementua, ondo dokumentaturik dago-eta 1704az geroztik. Hurritzaren fruituaren izena da. Fitonimoak oso erabiliak izaten dira toponimian, inguruaren deskribapena egiteko, zer nolako landara, zuhaitz edo fruta-arbola dagoen inguruan esaten da sarritan. (Ikusi baso izenez esandakoa sarrera idatzian).

Baserri-izen zaharra izanik, eta toponimoaren itxuragatik baserriak berak inguruko toponimoa hartuko zuen beretzat. Izan ere, toponimoak jatorrian oronimoa izango zen hurrean.

Oso baserri zaharra da Urramendi eta gaur egun hirigunean dago, eraikin handiagoen artean.

Dokumentazioa (baserria):

Urzamendi (sic. Urramendi) (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Urramendi (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Goitiz Urramendi (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Urramendi (Zallo) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Urremendi (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 129.

Urramendi (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Dokumentazioa (auzoa):

Urremendi (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

**Urramendikoetxetxu** (baserria)Ahoz: *Urremendikoetzetxu*

Auzoa: Gernika-Lumo

Urramendi baserri ondoko etxetxua.

Ik. Urramendi baserria.

Dokumentazioa:

Urramendi (1745) Bizkaiko
Fogerazioak.

**Urrengoerrota** (kalea)

Auzoa: Errenteria

Hur dagoen errota. Antzina inguru horretan zegoen errotaren izena, gutxienez 1592tik martxan egondakoa, eta agiri batzuetan *Renteria* eta *Madallerengo* (Madalengo, Magdalena ermita eta baserri izenetik eratorritako izena) izenekin agertzen zaiguna.

Bada beste erreferentzia bat ere 1600. urteko idazki batean; Juan Ortiz ajangiz-tarrak urtegi bat eraiki zuen Jagoa ibaian, eta honela dio: “que viene a un molino que está junto al dicho puerto, que se llama Urrengoerota”.

Garai batean Ajangiz bazen ere, gaur egun Gernika-Lumoko mugetan dago. Mendebaldetik San Bartolome kaleak eta ekialdetik Errekazarra kaleak mugatzen dute.



Uruburu (baserria)

Auzoa: Kokatu gabea

Beste izen batzuk: **Uruburuetxebarri**

Dokumentazio zaharrean Uruburu hutsa ageri bada ere, gaur egun *Uruburuetxebarri* esaten diote.

Dokumentazioa:

Uruburu (1704) Bizkaiko Fogeraioak.

Uruburu (1796) Bizkaiko Fogeraioak.

Uruburu (1860) Bizkaiko Izendegia.

Uruburuetxebarri ik. Uruburu

Uxuxu (erreka)

Ahoz: Uxuxu

Auzoa: Lumo

Bestelako daturik izan ezean, toponimo iluna ematen du izen honek. Baliteke ujuju berbarekin lotura izatea, izen onomatopeikoa oihua esan nahi duena, baita mozoiloak egiten duen soinua ere. Gernikabason jaio eta Foruko udalerriarekin muga naturala egiten du tarte batean.

V

Villa Arana (-a) (etxea)

Auzoa: Gernika-Lumo

XX. mendeko joera izan zen etxe berriei Villa aurretik jartzea, nolabaiteko prestigioa edo ematen zuelakoan. Gaur egun bertan Ertzaintzaren polizia-etxea dago.

Z

Zabala (-a) (baserria)

Ahoz: *Sabale*

Auzoa: Arana

Beste izen batzuk: ***Tramazabala (-a)***

Izen osoa Tramazabala da, Trama baserri multzoko etxea izan da-eta. Zabala izena oso zabaldua dago oikonimian eta Euskal Herrian zehar ugariak dira izen hau duten baserriak. Ahoz *Sabale* esaten diote, amaierako artikulua -e bihurturik beste hainbat toponimotan egiten den lez, Arane esate baterako.

Dokumentazioa:

Zabala Tama (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
Trama zabala (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
Zabala aurrecoechea (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
Zabala (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
Zavala (Arana) (1860) Bizkaiko Izendegia.
Zabale (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
Zabale (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 138.
Zabala (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.

Zabalabidea (-a) (bidea)

Ahoz: *Zabalebidie*

Auzoa: Arana

Zabala baserrira doan bidea.

Ik. Zabala baserri-izena.

Dokumentazioa:

Zabale, Cº de (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Zabaleko iturria (-a) (iturria)

Ahoz: Zabaleko iturrixe

Auzoa: Arana

Zabala baserriaren ondoan dagoen iturria.

Ik. Zabala baserri-izena.

Dokumentazioa:

Fuente de Zabala (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Zallo (baserria eta biztanle-entitatea)

Auzoa: Lumo

Lumo elizateko auzoa bere sasoian eta gaur egun Gernika-Lumoko biztanle entitate ofiziala da Zallo. Izen bereko baserri-multzoa ere badago.

Euskal abizen zaharra eta zabaldua da, Gernika-Lumon duena jatorria.

Dokumentazioa (baserria):

- Zallo (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Zallo (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Zallo (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Zallo (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Zallo (1858) Bizkaiko Izendegia.
- Zallo (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Zallo (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Zallo (1960) Bizkaiko Izendegia.
- Zallo (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 142.
- Zallo (1987) Ermitas de Bizkaia, 198.
- Zallo (1999) Historia de Lumo, 15.
- Zallo (1999) Historia de Lumo, 15.
- Zallo (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.
- Zallo (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

**Zallobieta** (baserria)

Ahoz: *Sallobieta*

Auzoa: Gernika-Lumo

Zallo, bi zenbakia gehi -eta atzizkia daude izen honen atzean. Zallo biak dauden lekua esan gura du.

Toponimo zaharra da edozelan ere, 1704ko sutegietan jadanik dokumentatu zena.

Dokumentazioa:

- Zallorueta (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Zallobieta (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Zallobieta (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Zallobieta (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Zallobiéta (Arana) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Zallobieta (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Zallobieta (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 142.
- Zallobieta (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Zallobietatxu (baserria)

Ahoz: *Sallobietatxu*

Auzoa: Gernika-Lumo

Zearreta eta Zearretatxu toponimoekin gertatzen den lez, bi baserriak bereizteko bateri-txu atzizki txikigarria erasten zaio, baserri multzo berekoa izanik txikiagoa edo berriagoa dela adierazteko.

Zallo baserri multzoko etxea.

Ik. Zallobieta izenaz esaten dena.

Dokumentazioa:

Zallobietatxu (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.

Zallotxu (1999) Historia de Lumo, 18.

Zalloetxebarria (-a) ik. Etxebarria

Zarate (baserri desagertua)

Aspaldi desagertutako baserria baina XVIII. mendeko sutegietan dokumentatua.

Dokumentazioa:

Zarate, casa-torre (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Zarate (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Zarratua (-a) (basoa)

Auzoa: Lumo

Zarratu berbak lantzeko lur eremu itxia esan gura du. Hitz generikoa bada ere, berezi berbarekin gertatzen den lez, lursail askok hartzen dute zarratu izena.

Zarratuko errekea (-a) (erreka)

Ahoz: *Sarratuko errekie*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Lumo**

Izen hori duen lursailaren ingurutik pasatzen da antza erreka.

1923an Bizkaiko Foru Aldundiak egindako kartografian *Arroyo de Luno* izenarekin dakar.

Lamiñaerreka eta Bastegieta erreken urak batzen dituen erreka da, Errebatxa inguruan Sakoneta errekaekin bat egin eta Etxandiko errekan isurtzen ditu urak.

Ik. Zarratu izenaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Arroyo de Luno (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Zearkalea (-a) ik. Andra Maria

Zearreta (baserria, auzunea eta kalea)

Ahoz: *Sigerta*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: **Aguakorriente** (auzoa)

Zearreta da toponimo honen idazkera egokia, nahiz eta ahoz *Sigerta* esaten dioten, tartean dagoen bokal diptongoa apurtzen duen bokal protetiko bat sortu delarik. Zuhatsu toponimoan ere *Sugutzu* esaten dioten lez. *Zear* gehi -eta atzizkiak eratutako toponimoa da; leku zeharra, leku okertua esan gura du. Gernikaldean “hortik zehar” esaldia honela ahoskatzen da: “*hortik zier*” (zearreta, zierreta, sigerta). Gainera dardarkaridun silaba <t> leherkariaren aurretik doanean sarritan bokala desagertu egiten da.

Kurutzebidean dagoen baserria. Aipagarria da baserri honen horman dagoen armarría: zuhaitz errotua, ostoa eta lapikoa erakusten duena.

“Aguakorriente” izenaz ere ezaguna da auzoa, Lumotik behera bertatik igarotzen ziren erreka-stoen ur emaria handia zelako eta askoz nabariago euria egiten zuenean.

Dokumentazioa (baserria):

Zearreta (1704) Bizkaiko Fogeraioak.

Zearreta (1745) Bizkaiko Fogeraioak.

Ziarreta (1761) Bizkaiko Foru Agiritegia, TB 0047/040.

Zearreta (1796) Bizkaiko Fogeraioak.

Zearreta (1999) Historia de Lumo, 15.

Dokumentazioa (auzunea):

Cearreta (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Zigerta (1964) Voces Toponomásticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 149.

Zigarreta (vulg. Zigerta) (1964) Voces Toponomásticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 149.



Zearretagoikoa (-a) (baserria)

Ahoz: *Sigertagoikoa*

Auzoa: Gernika-Lumo

Zearreta toponimoa eta goikoa postposizioan konposatutako toponimoa. Zearreta baserri multzoko etxea da beraz, izenak adierazten duenez goren dagoena.

Ik. Zearreta toponimoaz esandakoa.

Dokumentazioa:

Zearreta (1745) Bizkaiko Fogeraioak.

Zearreta goikoa (1796) Bizkaiko Fogeraioak.



Zearretatxu (baserria)

Ahoz: *Sigertatxu*

Auzoa: Gernika-Lumo

Beste izen batzuk: **Talabera, Zearretatxubekoa (-a)**

Zearreta baserri nagusiari lotutako beste baserria, txikiagoa edo berriagoa izateagatik-edo ipiniko zioten izena. Zearreta eta -txu atzizki txikigarriaz eratorritako izena da. Baserri multzoetan sarri topatzen ditugu -txu atzizki txikigarriarekin eratutako baserri izenak Gernika-Lumon, bereziki bi baserri bereizteko.

Atzizki horren erabilera gainera zaharra da, XVIII. mende hasierako sutegietan ere jasotzen da eta.

Ikusi Zearreta toponimoaz esandako.

Dokumentazioa:

Talabera, Ilamada Zearretatxu (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Zearretatxu (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Zearretachu (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Ciguertatxobekoa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Zigertatxu (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 149.

Zigarretatxu (vulg. Zigertatxu) (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 149.

Zearretatxubekoa (-a) ik. Zearretatxu

Zelaieta (baserria)

Auzoa: Lumo

Zelai gehi -eta lekua adierazten duen atzizkiaz eratorritako izena.

Dokumentazioa:

Celayeta (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.

Zeututze (basoa)

Auzoa: Lumo

Toponimo iluna da. Seguru antzean amaierako -tze, ugaritasuna adierazten duen -tza atzizkia izango da, baina aurreko elementua ezin da identifikatu. Sertutxa abizenarekin lotura izan dezaleela dirudi.


Lumoko basoa.

Dokumentazioa:

Zeutuze (1964) Voces Toponomasticas Vascas, BRSBAP, XX, 1-2 (1964), 148.

Zimela (baserria, orain jatetxea)

Auzoa: Lumo



Beste izen batzuk: *Zimelena (-a)*

Gaur egun Zimela jatetxea Zimelena baserria zegoen lekuan dago.

Zimela jabearen ezizena izango zen, ohi lez –ena amaieran jabetza adierazten duen atzizkia gehituta. Zimelak ihartua, gaztetasuna galdua duena esan nahi du.

Zimelena (-a) ik. Zimela**Zuberoa (-a)** (kalea)

Auzoa: Arana

2006ko ekainaren 21ean Gernika-Lumoko Udalak Arana auzoko zenbait kaleri Euskal Herriko 7 probintzietako izenak ematea erabaki zuen etxebizitza sozialak egingo ziren gunean; horrela, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa kaleak ditugu inguru horretan.

Zubia (-a) (baserri desagertua)

Ahoz: *Zubixe*

Auzoa: Erretereria

Beste izen batzuk: *Zubikoa (-a)*

Zubia zein Zubikoa formaz dokumentatu izan da Erretereria auzoko baserri hau. Seguru antzean inguruan zegoen zubiagatik izango zuen izen hori; izan ere, Erretereria auzoan Portu inguruan hainbat zubi egin ziren. Bat Zubia izenekoa eta beste bat Mertzedeko zubia.

Ik. Zubialde kaleari buruzko esandakoa.

Dokumentazioa:

Zubia, casa-torre (1704) Bizkaiko Fogerazioak.

Zubicoa, taberna (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Zubicoa (1745) Bizkaiko Fogerazioak.

Zubia (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Portal de Zubicóa (1860) Bizkaiko Izendegia.

Zubia (-a) ik. Erretereriako zubia**Zubialde** (kalea)

Auzoa: Erretereria

Zubi eta alde (ingurua) lexemez eratua dago, zubiren baten ondoan zegoela esan gura du. Erretereria auzoa zubi askoko lekua izan da betidanik.

XIX. mendearen amaieran, Erretereria inguruan 4 zubi zeuden: nagusiena Zubikokoa, Erretereria Aldape kalearekin lotzen zuena; bigarrena, zikoina motako



zubia zen (Zubigorri izena zuena), Mertzedeko komentuaren ondokoa eta Santa Ana auzo-
ra ematen zuena; hirugarrena, Tabernabarrikoa (Elantxoberako kaminoan) eta laugarrena,
Arabietakoa (Ajangizko bidean).

Erretereria auzo inguruan dago. Hortik hartu du izena kale honek. Errekazarra kalea dauka
ekialdetik, Urrengoerrota kalea iparretik eta hegoaldeztik Aldape kalerako zubia.

Zubialdeibarra (-a) (belardia)

Auzoa: Erretereria

Zubialde (zubi ingurua) baserri-izena eta ibarra izenaz konposatutako toponimoa. Ibarra
izen generikoa oso erabilia da Gernikako oronimian, bereziki lursailen izenetan. Hain zuzen
ere erreka eta ibai ertzeetako lursailetarako erabiltzen da.

Zubialde baserriaren belardia.

Zubigorri (kalea eta berreskuratutako zubia)

Auzoa: Erretereria

Beste izen batzuk: **Mertzedeko zubia
(-a)**

Gaur egun kale berri baten izena bada
ere, garai batean zubi baten izena zen,
eta handik hartu du gaur egun kaleak
izena.

Erretereria auzoan garai batean Ger-
nikako portua zegoen, eta inguruan
hainbat zubi zeuden. Horietako bat Zu-
bigorri izenaz ezagutzen zen, baita Mer-
tzedeko zubia izenaz ere; eta Mertzedeko komentua eta Santa Ana auzoa lotzen zituen.

Erretereria auzoko kale berria, 2009an eman zion izena Udalak.



Zubikoa (-a) ik. Zubia

ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK

- ABELLA, MANUEL; GONZÁLEZ ARNAU, VICENTE; MARTÍNEZ MARINA, FRANCISCO; TRAGGIA, JOAQUÍN: *Diccionario geográfico histórico de España por la Real Academia de la Historia. Sección I. Comprende el reyno de Navarra, señorío de Vizcaya y provincias de Álava y Guipúzcoa* (2 liburuki), Madril: Viuda de AtD. Joaquín Ibarra, 1802. [Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968].
- ARREGI AZPEITIA, GURUTZI: *Ermitas de Bizkaia* (3 liburuki), Labayru ikastegia; Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987.
- ASKOREN ARTEAN: Gernika erdi-aroan, Gernikako Udala, 2002.
- CARRERAS CANDI, FRANCISCO (zuz.) (1911-1925) *Geografía general del País Vasconavarro* (12 liburuki), Alberto Martín, Bartzelona.
- DELMAS, JUAN EUSTAQUIO: *Viaje pintoresco por las provincias vascongadas*, Imprenta y librería de N. Delmas, Bilbao, 1846.
- DELMAS, JUAN EUSTAQUIO: *Guía histórico descriptiva del viajero en el señorío de Vizcaya en 1894*, Kultura Batzarra, Bizkaia Probintziako Aldundia, Bilbao, 1944.
- DEUSTUKO UNIBERTSITATEA: Deiker Institutuak 1986. eta 2002. urteetako kanpainetan ahoz jasotako toponimoen zerrenda.
- ELEIZALDE BRENOSA, LUIS DE (1922-1964) Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas in *RIEV*, 13, 1922: 113-128, 420-438, 493-509; 14, 1923: 128-144, 315-328, 442-456, 558-571; 18, 1927: 625-663; 19, 1928: 77-87, 381-392, 614-626; 20, 1929: 24-35, 218-227; 21, 1930: 178-201, 518-546; 22, 1931: 288-303; 23, 1932: 408-437; 24, 1933: 283-303, 387-404; 25, 1934: 418-429; 26, 1936: 153-172; BRSBAP, XIX:3, 1963: 241-273; XX:1.2, 1964: 103-159.
- ENSUNZA ARRIEN, MAIDER: *Gernika: azterketa historiko-artistikoa*, BFA: herrien monografiak, 2003.
- EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA *Euskal Herriko mendien katalogoa*, Euskal Mendizale Federazioa, Bilbo, 1950, 1956, 1972, 1976, 1982, 1990, 1991.
- GALÉ GARCÍA, PATXI: *Bizkaiko Gailurren katalogoa: Bizkaiko Toponimiaren ikerketarako materialak*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 2000.
- GARCÍA DE SALAZAR, LOPE: *Las Bienandanzas e Fortunas*, Bizkaia Probintziako Aldundia, Bilbao, 1967 [s. XV].
- GARIBAY Y ZAMALLOA, ESTEBAN DE: *Los quarenta libros del compendio historial de las crónicas y universal historia de todos los reynos de España*, Biblioteca del vascófilo, Gerardo Uña, 1988 [1628].
- GERNIKA-LUMOKO UDALA: turismo gudak etab.: 1984, 1988, etab.
- GERNIKA-LUMOKO UDALA: "Gernika-Lumo kalerik kale" (Gernikazarra Historia Taldea). Gernika-Lumo, 2003.
- GERNIKA-LUMOKO UDALA: Gernikazarra Historia Taldea: callejero, apuntes y anécdotas del Gernika anterior al 26-IV-37. Gernika-Lumo, 1987.
- GERNIKA-LUMOKO UDALA: "Historia de Lumo" (Gernikazarra Historia Taldea). Gernika-Lumo, 1999.

- IRIGOIEN ETXEBARRIA, ALFONTSO: Formas de nombres de localidades vizcaínas in *FLV*, 11, 1972: 207-218, 1972.
- IRIGOIEN ETXEBARRIA, ALFONTSO: *Las lenguas de los vizcaínos: antroponimia y toponimia medievales*, Pracor, Bilbao 1985.
- IRIGOIEN ETXEBARRIA, ALFONTSO; OLASOLO, ELIZABET: *Nombres de familia y oicónimos en las fogueraciones de Bizkaia de los siglos XVII y XVIII* (5 liburuki), Bizkaiko Batzar Nagusiak, Bilbao, 1998.
- ITURRIARTE MARTINEZ, ALBERTO: Erretereria, Gernikako Udala, 2005.
- ITURRIZA Y ZABALA, JUAN RAMÓN DE: *Historia general de Vizcaya, comprobada con autoridades, y copias de escrituras, y privilegios fehacientes...* París-Valencia S.L., Valentzia [(1884) Bartzelona: Imprenta de la V. É de J. Subirana], (2000 [1785]).
- JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA: Gernikako Andra Mari Eliza (1988, Bizkaiko Aurrezki Kutxa).
- KEREXETA GALLASTEGI, JAIME DE: *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Estudios de etnología y etnografía 2, Instituto Labayru; Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbao, 1992.
- LABAYRU Y GOICOECHEA, ESTANISLAO JAIME DE: *Historia general del señorío de Vizcaya* (7 liburuki), Zalla: La Gran Enciclopedia Vasca, (1967-1973 [1895-1903]).
- LACARRA DE MIGUEL, JOSÉ MARÍA: Onomástica vasca del siglo XIII in *RIEV*, XXI, 1930: 247-254.
- LEKUONA ETXABEGUREN, MANUEL: Euskalerriko toponimoak geografo klasikoetan in *Julio Caro Barojari omenaldia, RIEV*, XXXI, 1986: 905-907.
- LÍBANO ZUMALACÁRREGUI, ÁNGELES: *Toponimia medieval en el País Vasco* (4 liburuki). Onomasticon Vasconiae 14-16-19-20, Euskaltzaindia, Bilbao, 1995-1999.
- MADOZ IBÁÑEZ, PASCUAL: *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar* (16 liburuki). Madril: Establecimiento literario-tipográfico de P. Madoz y L. Sagasti, 1845-1850. [(1989) *Álava-Araba*. Gasteiz-Valladolid: Arabako Biltzar Nagusiak; Ámbito. (1990) *Bizkaia*. Valladolid: Bizkaiko Batzar Nagusiak; Ámbito. (1991) *Gipuzkoa*. Valladolid: Gipuzkoako Batzarre Nagusiak; Ámbito. (1986) *Navarra*. Valladolid: Gobierno de Navarra; Ámbito].
- MADRILGO MINISTERIOAK: *Nomenclátor de las ciudades, villas y pueblos de España*. Madril, (XIX. mendean zehar).
- MIÑANO Y BEDOYA, SEBASTIÁN DE: *Diccionario geográfico-estadístico de España y Portugal* (11 liburuki), Imprenta de Pierat-Peralta, Madril, 1826-1829.

KARTOGRAFIA ITURRIAK:

- Bizkaiko Foru Aldundia (2004) *Bizkaiko Gidaliburua*, Durero, Baracaldo.
- Deia (2002) *Colección de Mapas de la Comunidad Autónoma Vasca* (1:25000 eskala, 25 mapa). Bartzelona: Iparraguirre.
- Eusko Jaurilaritza, Bizkaiko Foru ALdundia (2003) *1:5000 eskalako mapak*, Deiker, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Excelentísima Diputación de Vizcaya (1934 [1924]) *Mapa 1:25000 de Vizcaya*. Bilbo: Bizkaia Probintziako Aldundia.
- Instituto Geográfico Nacional (1993-1999) *Mapa Topográfico Nacional de España 1:25000* (Ikus orrien lerokada 1:50000 eskalako mapetan) Madril: Instituto Geográfico Nacional.
- Instituto Geográfico y Catastral/Nacional; Servicio Geográfico del Ejército (1942-1990) *Mapas 1:50000 del Instituto Geográfico y Catastral/Nacional* (Orriak: 37-41, 60-66, 85-91bis, 110-118, 136-144, 169-175, 203-208, 243-245, 281-283, 319-321). Madril: Instituto Geográfico y Catastral/Nacional.
- MALO ICÍAR; JAVIER (1968-1995) *Mapas montañosos* (Gailur-lerro bidezko topografia eskematikoak. Orriak: B5, B7, B9-B15, B17, B19-B28, C-3). Bilbo: Javier Malo.

BESTE ITURRI BATZUK (lekukoenak)

- GERNIKA-LUMOKO UDALA: Deiker institutuak jasota zituen ahozko toponimoen (14 lekukori egindako elkarrizketak) garbiketa lana. Gernika-Lumo, 2004. Partaideak:

- Nerea Goiria
- Saioa Zamakola
- Estiñe Astorkia
- Igor Ojinaga
- Amaia Jauregizar
- Iban Auzokoa
- Ainara Idoiaga Lejarzegi
- Iratxe Garmendia Jorge

- GERNIKA-LUMOKO UDALA: 2004an toponimia maparako egokitutako zerrenda lekukoekin (27) eta grabazioekin kontrastatu eta toponimo berriak jaso. Busturialdean Euskaraz Bizi elkartearekin elkarlanean. Gernika-Lumo, 2005. Partaideak (hiru lan talde):

- 62-12/13 mapa atala kontrastatzeko lan taldea:

- Nerea Goiria
- Saioa Zamakola
- Estiñe Astorkia

- 62-05 mapa atala kontrastatzeko lan taldea:

- Igor Ojinaga
- Amaia Jauregizar
- Iban Auzokoa

- 62-04 mapa atala kontrastatzeko lan taldea::

- Ainara Idoiaga Lejarzegi
- Iratxe Garmendia Jorge

